

# Goienkaria

2010eko irailaren 3a > Egubakoitza > X. urtea > 432. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE  
www.goiena.net TOKIKOM

"Une honetan,  
EAJ da  
Zapateroren  
politikaren  
konplize  
nagusia"

Mikel Arana  
Ezker Batuko  
koordinatzailea > 08



G2a

Txemi Etxeberria  
musikariarekin  
berbetan > 31

ARRASATE  
Bidea egingo dute Gazteluondo eta  
Arrasate pasealekua lotzeko > 12

ARETXABALETA  
Areantzako bidegurutzea eta  
Goroeta arteko bidea gertu > 22

KIROLA  
Gatzagako mendi bizikleta irteerak  
irekiko du ibarreko zirkuitua etzi > 22

AZPIEGITURAK > ERREPIDEAK

## Deskargako tunelarekin hasiko dira

Urretxu-Bergara autobide zatiaren proiektua onartu berri du Aldundiak. 10 kilometro izango ditu eta aurten hasiko dira lanak; Deskargako tunelarekin (620 metro) hasiko dira, hain zuzen. > 05

EKONOMIA > INDUSTRIALDEAK

## Gipuzkoako industrialde handienetako bat, Bergaran

**BUKATUTA** Larramendiko poligonoa, 300.000 m<sup>2</sup>-koa, bukatuta dago eta enpresa handiendako izango da

**JAURLARITZAK** Spri Lur sozietate publikoaren bitartez egin du Eusko Jaurlaritzak, eta hark kudeatuko du zuzenean

**NOBEDADEAK** Debagoieneko Industrialdearen pabiloietara ere bi enpresa etorriko dira, eta beste bik interesa dute > 02-03

JENDARTEA > ZERBITZUAK

## Doako TAO sistema Bergaran

Hilaren 20an hasiko da erdiguneko lau gunetan eta denbora mugatua izango da > 16

### Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako jaiak

Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako Andramari jaien informazio guztia, barruko orrietan.



### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05  
Iritzia > 06  
Gutunak > 07  
Elkarrizketa > 08  
Herriak > 11-27  
Kirola > 28-30  
Kultura > 32-33  
Sailkatuak > 43  
Telebista-Irratia > 44  
Zerbitzuak > 44  
Eskelak > 44-45  
Berri-zakua > 45  
Non-zer > 38-39



## Betiko artzaina

Oñatiko Gorobizkar baserriko Jesus Zufiria 7 urte zituela hasi zen artzain; domekan omenaldia egingo diote Gipuzkoako Artzain Egunean, Legazpin > 05

BASERRIAN Jesus Zufiria, Bat txakurrekin etxean, Garibai auzoko Gorobizkar baserrian.

MIREIA BIKUÑA



Larramendiko poligono berria. Hura egiteko 1,5 milioi metro kubo lur hondeatu dituzte.

LEIRE KORTABARRIA



Fernando Narciso, Debagoieneko Industrialdeko gerentea.

## EKONOMIA &gt; INDUSTRIA

# Enpresa handiak hartuko ditu 300.000 m<sup>2</sup>-ko guneak Bergaran

**ARDURA** Eusko Jaurlaritzak kudeatuko du zuzenean Larramendiko gune berria, Spri Lur sozietate publikoaren bidez

**INDUSTRIALDEAK** Markuletera bi enpresa etortzekoak dira; Mekolaldera, Oerlikon-Balzers; eta Elgetara, Eibarko El Casco

## LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

Eusko Jaurlaritzak, garapen industrialerako Spri Lur bere sozietate publikoaren bitartez, industrigune handi bat prestatu du Debagoienean, Gipuzkoako handienetariko bat (303.179 m<sup>2</sup> gordin, 228.867 erabiltzeko): Bergarako Larramendi poligonoa.

Lanak 2008an hasi ziren, eta bukatutzat jo dituzte. 25 milioi euro inbertitu ditu Spri Lurrek, eta berak kudeatuko du; hala, Debagoieneko Industrialdearen menpe ez da egongo poligono berria, baina Industrialdeko arduradunak gertu izango dira interesa agertzen duten enpre-

sak Spri Lurrekin harremanetan jartzeko.

Bergarako Udalak ere ez du parte-hartzerik; hori bai, lur zati bat dagokio, eta Udalak aztertu egingo du han eraiki eta erabili edo Spri Lurri saldu. Udalak soilik zerbitzu batzuk mantendu beharko ditu: bideak, argiteria...

Enpresa bakoitzak askatasun handia izango du zelako instalazioak egin erabakitzeko. Udazkenean inauguratuko dute industrialde berria.

Debagoienean hain ohikoa ez den industrialde eredu bati jarraitzen dio Larramendik, izan ere, enpresa handiei dago zuzenduta. Debagoieneko Industrialdea elkarteko gerente Fernando Narcisok dioenez, Debagoiena kokapen estrategikoa da horrelako industriagune erraldoi baterako: "Pentsa zenbat enpresa hornitzen dituzten kooperatibek; bada, etor daiteke kooperatiben bezero on den enpresa bat, eta, Larramendin kokatuta, bertan izango litzuke bailarako enpresa guztiak; edo atzerriko edozein enpresak Euskadin ezartzeko asmoa agertzen badu, aurrerantzean Bergaran ezartzeko aukera ere azalduko dio Sprik".

**HANDIENAK, 10.000 M<sup>2</sup>**

Poligonoa bederatzi lursailetan dago banatuta, 4.000 eta 10.000 m<sup>2</sup> artekoak –ohiko industrialdeetan, 100 eta 1.500 m<sup>2</sup> arteko azalera izaten dute–, eta gainean eraikitzeko aukera ematen duen 133.047 m<sup>2</sup>-ko sabaia du. Bederatzi lursailetatik lau bana daitezke gehienez ere 500 m<sup>2</sup> izango dituzten modulutan.

Funtzioen arabera ere banatuta daude metro koadroak: ekipamendu komertzialerako, 3.296; ekipamendu sozialerako, 3.333;

berdegune eta espazio hutsetarako, 77.433; eta bide, espaloi eta aparkalekuetarako, 36.205.

Ingurua ere urbanizatu egin da: GI-2632 errepidean biribilgunea egin dute, Larramendira bertara sartzeko 640 metroko bidea, eta poligono barruko 690 metroko bide nagusia eta horrekiko perpendikularrak diren zortzi bidexka. 384 aparkaleku ere egin dituzte. Ur-horniketa eta saneamendu sareak ditu, 420 metroko 30 kW-ko elektrizitate-hartunea, 300

DATUA

# 4.000

METRO KOADRO

Larramendiko poligonoan bederatzi lursail daude, eta txikienak 4.000 m<sup>2</sup> hartzen ditu; ohiko industrialdeetan, handiena 1.500 bat m<sup>2</sup>-koa da.

# 25

MILIOI EURO

Spri Lurrek 25.000.000 euro inbertitu ditu Larramendi eraikitzeko. Lanak bi urte inguru iraun dute.

- Masaje terapeutikoa eta kirol masajea
- Akupuntura
- Presoterapia
- Hidroterapia SPA
- Osteopatia
- Erreabilitazioa
- Pancafit Metodoa
- Tecarterapia

Zure  
**Osasuna**  
gure *ardura* da



Belorrieta 6-7  
ARETXABALETA • 20550  
Tel.: 943 79 95 64



L.K. Markuleteko industrialdeko pabiloiak.

L.K.



Ezkerrean, gaur egungo Copreciren eraikina.

MIRARI ALTUBE

## Copreci handitzeko obrak, aurrera

Abuztua aprobetxatu dute bailarako beste industriagune handi bat, Aretxabaletako Copreci, handitzeko obrei ekiteko, argazkian ikusten den moduan. Orain arte aparkalekua izan den lur zatian 7.000 m<sup>2</sup> gehituko dira. Lehengo solairu estalgarria 21.040 metro koadrokoa zen.

metroko elektrizitate-linea tramua lur azpian eta beste 650 metroko aireko sarea.

Bergara aukeratu izanaz, Spri Lurrek hauxe esan du: "Inguruko industria eta ekonomia aktibitatea erabakigarria izan da".

### ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK

Narcisok azaltzen ditu industrialde eredu desberdinak: "Debagoienean dauden industrialdeen %90ak zuzenduta daude metro koadro jakin batzuk

hartu nahi dituzten enpresa txiki edo ertainengana; adibidez, enpresa-hazitoki batetik irten behar duten ekintzaile berriengana".

Debagoieneko beste industrialde berria Markuletekoa da, Debagoieneko Industrialdeak kudeatuta. Hango bigarren faseko obretan, 12.500 metro koadro eraiki zituzten, 25 pabiloi, eta oraingoz bi enpresa daude, Baikor eta Eikide; eta beste bi daude interesatuta, bat sukaldeko

altzariena eta bestea informatika arlokoa. Debagoieneko Industrialdeko gerenteak esaten digu irailan barrena "gertu" egongo dela Markulete maizterrak hartzeko. Horixe da ikasturte berri-rako helburu nagusietako bat.

Iazko abenduan Eskoriatzako Udala eta Eskoriatzako industrialdea sartu ziren Debagoieneko Industrialdea elkartearen. Fernando Narcisori "asko gustatzen" zaio industrialde hori: "Autobidetik irten eta bertan dago. Aha-

legindu egingo gara behar diren baldintzak ematen industrialde hori ere betetzen joan dadin".

Beste berrietasunik ere bada-gu industrialdeetan: hala, Bergarako Mekolalde gunera Oerlikon-Balzars enpresa etorriko da, Antzuolako Irialde erakundeak sustatuta; euren eremua hesiz inguratuta daukate, obrak has daitezten. Bestalde, Elgetan, Pagatzen ezarriko da Eibarko El Casco enpresa urte bukaera aldera, Eibarko instalazioak utzita.

Fernando Narciso  
> Industrialdea SAko gerentea

## "Baikorrak gara; erakunde guztiok dihardugu ibarra garatzeko"

L.K. > ARRASATE

Krisia bete-bete zegoela hartu zuen kargua Fernando Narcisok, orain urtebete ere ez dela. Onartzen digu interesa "eskasa" dela azkenaldian enpresen aldetik.

Oraindik igartzen da krisia?

Bai. Azkenaldian, interesa eskasa izan da industrialdeetara etortzeko, oro har. Baina baikorrak gara; erakunde guztiok dihardugu eskaintza eta prestakuntza ematen enpresak eta Debagoienean garatzeko. Arduratuko ginatke ikusiko bagenu Jaurlaritzak ez duela Industrialdeak bezalako espaziorik ematen.

Etorkizuneko ereduak gaur egungoak izan beharko du?

Aukera bat da; beste aukera batzuk ere egon daitezke, adibidez, orain 20-30 urte egin ziren pabiloi industrialak, bertan behera daudenak, inplikatu lituzketen politikak egitea. Baina helburua beti izango da ingurumena, ekonomia eta aisialdia bateratzen dituzten industriaguneak egitea, bailarako bizi-kalitatea handitzeko.

**HHI / EPA**  
Matrikulazioa  
Irailaren 2tik 15era

**goieskola**  
debagoieneko euskal  
eskola publikoa

**guztiona,  
guztion artean**

### ESKAITZA:

- Alfabetizazioa
- Gaztelera
- Euskara
- Ingelesa
- Frantsesa
- Informatika
- Bigarren hezkuntzako graduatu titulua
- Goi zikloetarako sarbidea
- 25-45 gorakoentzako Unibertsitate sarbidea

### HHI-EPA Bergara

Barrenkalea 33, 2 • 943 76 44 52  
012266aa@hezkuntza.net

### Soraluze

Baltegieta 19 z/g • 943 75 30 17

### Oñati

Aita Madina z/g • 943 78 35 77

### Antzuola eta Elgeta

943 76 44 52

### HHI-EPA Arrasate

Ferrerias 28 • 943 77 11 72  
www.epaarrasate.com

### Aretxabaleta

Markole 5 • 943 79 88 50

### Eskoriatza

Intxaurtueta 20 • 943 79 36 41

EKONOMIA &gt; ERAKUSKETA

# Kulturaten izango dira datorren astean Kimu Berriko proiektuak

Egitasmo berritzaileen gaineko erakusketa irailaren 8tik 10era egongo da zabalik

Gazteengan enpresa berriak sortzeko gogo bultzatzea bilatzen du Kimu Berri proiektuak

MIRIAN BITERI &gt; ARRASATE

Beste erakusketa bat izango da eguaztenetik egubakoitzera bitartean Arrasateko Kulturaten Kimu Berriko proiektu berritzaileen gainekoa, hain justu ere. 10:00etan hasiko den inaugurazio ofizialaren eta erakusgai dauden proiektuen aurkezpenaren ostean, eguerdian herritar guztiendako zabalduko dira klaustrorako ateak. Herritarrek arratsaldeko ordutegian edukiko dute erakusketa ikusteko aukera.

Erakusketa horren berri emateko eta Kimu Berri proiektuaz berba egiteko agerraldia egin zuten joan den eguaztenean Enpresako Zerbitzu Aurreratuetan Berrikuntza (ISEA) taldeko kudeatzaile Mikel Orobengoak, Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako ordezkari Koldo Azkoitiak eta Saiolane-ko Angel Etxabek.

IKASLEAK AZALPENAK EMATEN

Erakusketan Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Diseinu Industrialeko ikasleek garatutako 13 proiektu ikusi ahalko dira. Eguaztenean, gainera, Diseinu Industrialeko ikasleek garatutako proiektuen inguruko azalpenak emango dituzte zuzenean.



Eguazteneko aurkezpena: ezkerretik eskumara, Mikel Orobengoak, Angel Etxabe eta Koldo Azkoitia.

MIRIAN BITERI

Horretaz gain, Kulturateko klaustrorako, besteak beste, Kimu Berriko ideia irabazleak ere egongo dira erakusgai; baita Debagoieneko Mankomunitateko energia berriztagarrien tailerrean egindako instalazio fotovoltaikoa ere. Orain arte aipatutakoaz gain, Kulturatera joaten direnek ekintzailetasunaren inguruko informazioa jaso ahalko dute. Horre-

tarako hainbat mahai egongo dira bertan, Kimu Berriren proiektu barruan dauden erakundearen eskaintzekin.

GAZTERIA, AISIALDIA ETA KIROLA

Bestalde, eguazteneko aurkezpenean, Kimu Berri proiektua zertan datzan azaldu zuen Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako ordezkari Koldo

Azkoitiak. Gazteria, aisialdi eta kirol arloetan ekintzailetasun gune bat bultzatzea bilatzen duen egitasmoa dela gogorarazi zuen, Debagoieneko hainbat eragile-ribabesarekin. Eskualdeko ekonomia-aren lehiakortasuna bultzatu nahi da modu horretan, ekosistema berritzailea bultzatuz eta eduki sortzaile eta teknologiko handiko enpresa-jarduerei laguntza emanez.

ISEAko kudeatzaile Mikel Orobengoaren esanetan, "helburu nagusia da gazteengan enpresa berriak sustatzeko gogo indartzea". Aipatu zuen gazteetan langabezia tasa %40tik gora dagoela Espainian. Horren arabera, "ikasketa lanbidea topatzeko baliabidea dela uste duten gazteen pentsamoldea aldatu nahi dugu; jakin behar dute ikasketak bat tresna izan daitekeela enpresa berri bat sortzeko".

DATUA

## 13

PROIEKTU

Erakusketan, besteak beste, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Diseinu Industrialeko ikasleek garatutako 13 proiektu ikusi ahalko dira.

ESANAK

"Kimu Berri proiektuaren helburu nagusia da gazteengan enpresa berriak sustatzeko gogo indartzea"

Mikel Orobengoak > ISEAko kidea

Frutak &amp; Barazkiak

Migusta

Kalitatezko fruten bila? Migusta aukera biribila!

Tomate udarekara (12 kiloko kaja) 0.45€/kg

Piper gorria (10 kiloko kaja) 0.99€/kg

Melokotoi horia 0.99€/kg

Moratini madaria 0.69€/kg

Golden sagarra 0.99€/kg

Eskaintza epea: irailaren 4tik 11ra arte (biak barne)

Migusta

Barrenkale 9  
Tel.: 943 76 10 43  
BERGARADurana 16  
Tel.: 943 03 66 63  
ARETXABALETAUrizarri etorbidea 3  
Tel.: 943 08 14 07  
ARRASATEORDUTEGI  
JARRAITUA  
08:30etik 21:00etara

AZPIEGITURAK &gt; MOTORRAK

## Arlabenen babes pantailak jartzeko, 268.000 euro

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

### JUAN ZELAIA

#### X. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

**Saria: 9.000 €**

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUNEA.

**Irailaren 30a arte**

Tel.: 948 326535  
soltxate@pamiela.com  
Arauk: www.pamiela.com



2010

JENDARTEA

## Baketik-ek 'Bizizikasi' pedagogia aurkeztu du

MIREIA BIKUÑA &gt; BERGARA

Baketik zentroak *Bizizikasi* pedagogia aurkeztu du astean; bizitza hobetzeko pedagogia, alegia. "Bizitza pertsonala, bizikidetzeta eta heziketa hobetzen lagunduko digun kontzeptua da", esan zuen aurkezpenaren Jonan Fernandezek. Baketik-ek sortu duen kontzeptu berriak bizipenean eta ikaskuntzan du oinarria, eta zentroan egin duten lau urteko lanaren emaitza da.

EKITALDIA ARANTZAZUN

Hurrengo bi asteetan *Bizizikasi* jendaurrean aurkeztuko dute. Hilaren 18an, inaugurazio ekitaldia egingo dute Arantzazun. Euren helburua pedagogia berria arlo ezberdinetara zabaltzea da.

&gt; EKONOMIA

## Fagorrek %35 txikitu ditu galerak, iazko jardunarekin alderatuz

Martitzenean jakinarazitako emaitzen arabera, 2010eko lehen seihilekoan, Fagor Etxetresnek %35 txikitu dituzte aurtengo galerak, iazko jardunarekin konparatuta. Horrez gain, jakinarazi du *Lerro Zuria* negozioak zortzi milioi eurotik gorako emaitza operatibo positiboak lortu dituela, eta Fagorri dagokion Ebitda finantza-adierazlea %10 hazi dela (enpresaren errentagarritasun operatiboa neurtzen duen adierazlea). Taldetik adierazi dute emaitza horiek asko hobetu dituztela Plan Estrategikorako aurreikuspenak.

M.B. &gt; BERGARA

Diputazioak Vanos SA enpresari esleitu dio GI-627 errepidean motorzaleendako babes bereziko segurtasun pantailak jartzeko proiektua. Lanak egiteko epea hiru hilabetekoa izango da eta aurrekontua 268.000 eurokoa.

Motorzaleen segurtasuna handitzeko helburuarekin, 4.889 metro luze diren pantailak jarriko dira Arrasate eta Leintz Gatzaga artean. Diputazioak Azpiegitura sailetik azaldu digutenez elementu horiek 40 puntutan jarriko dira, eta gehienak Arlabanen. Hain justu ere, bihurguneen erradio handia dela-eta motorzaleendako babes handiago beharra dagoela gomendatzen den tokietan.

Lan horiekin amaitzean, ia 60.000 metro pantaila izango dira Gipuzkoako errepideetan.

Jesus Zufiria &gt; Artzaina

# "Artzaintzak ez du bizi izateko beste ematen, baina ardiekin 7 urterekin hasi nintzen"

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Gipuzkoako Artzain Eguneako antolatzaileek Jesus Zufiria omenduko dute domekan Legazpin. Garibai auzoko Gorobizkar baserrian bizi da. Harekin egin dugu berba, eta omenaldia "gustura" jasoko duela esan digu.

**Zorionak, domekan jasoko duzun omenaldiarengatik.**

Eskerrik asko. Egia esan, ezustean harrapatu naute. Aspaldi ez nuen Gipuzkoako Artzain Eguna- ren berririk. 14 urtean parte hartu izan dut Legazpiko gazta txapelketan. Orain dela urte batzuk baldintzak aldatu zituzten eta gazta lehiaketan parte hartzeko gutxienez 80 ardiren jabe izan behar genuen. Hori horrela, lehiaketan parte hartzeari utzi nion.

**Eta, zer-nolako emaitzak lortu zenituen txapelketa haie-tan?**

Ez nuen txapelik lortu. Askota jota, laugarren eta bosgarren tokiak lortu nituen. Baina beste artzain batzuekin hartu-emanak egiteko aukera ona zen.

**Egun, zenbat ardi dituzu?**

27. Garai batean 100 ardi izan nituen, baina poliki-poliki batzuk kendu egin ditut. Hori bai, beti ardi latxak izan ditut.

**Artzain lana gogorra da?**

Lehen orain baino gehiago ibiltzen nintzen. 81 urte bete behar ditut eta indar txikiagoa daukat orain. Lehen, uda etxe ondoko Ladarraitz zelaietan pasatzen nuen. Neguan txabolara ekartzen nituen ardiak.

Artzain lana gogorra izan da beti, batez ere neguan. Metro bateko elurtea egiten zuenean



Jesus Zufiria, Gorobizkar baserrian.

MIREIA BIKUÑA

ardiak txabola barruan egoten ziren preso. Batzuetan 40 egun egoten ziren.

**Gorobizkar baserrian bizi izan zara txikitatik?**

Bai, hala da. Gure ama baserri honetakoa zen. Hemen jaio ginen anaia guztiok. Oso txikitik, 7 urterekin hasi nintzen artzain lanetan. Ez dut beste ezer ikasi.

Artzaintzak ez du bizi izateko beste ematen, baina anaia eta biok moldatzen gara.

**Garai baten behiak izan zenituen.**

Bai, behiak eta idiak ere bai. Egun, oiloak, behorrak eta ardiak ditugu. Katuak ere asko dabilta baserri inguruan. *Bat* txakurra ere gurekin bizi da.

## Bi oñatiar artzain txakur txapelketan

Artzain Eguna barruan Gipuzkoako 42. euskal artzain txakurren txapelketako jokatu dute domekan. Zazpi txakurrek parte hartuko dute; tartean, *Txiki* eta *Mendi* oñatiarrek, Jose Luis Madinabeitiaren eta Migel Arregiren aginduetara. Txakurrek bi ariketa egin beharko dituzte. Lehenengoan sei minutu izango dituzte artaldea zelai erdian dagoen hesitik pasarazteko. Ondoren, ardiek eta txakurrak artzainaren ondoan geldi egon beharko dute. Bigarren ariketan, txakurrak banderatzoz seinalatzatutako bidetik joan eta eskortan sartu beharko dituzte ardiak, zazpi minutuan.

AZPIEGITURAK &gt; AHT

## AHTren bailarako lehen tunela zulatzen bukatu zuten eguaztenean

Induspeko tunela da bukatu dutena eta Eskoriatza eta Aramaio lotzen ditu

GOIENKARIA &gt; BERGARA

Eguaztenean amaitu zuten AHTren Eskoriatza eta Aramaio arteko Induspeko tunela zulatzen (2.224 metro eta 32 milioi euroko aurrekontua). Tarte horrek 5,6 kilometro izango ditu eta horietatik 3,5 kilometro pasatxo lur-azpitik joango dira.

Lanen amaieran izan ziren Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburu Iñaki Arriola; Adife-ko presidente Antonio Gonzalez; eta Madrilgo Gobernuako ordezkarria Araban, Gloria Sanchez.

Arriolak esan zuen AHTren lanak aurrera doazela eta "harro egoteko moduko" urratsa izan dela Induspeko tunela zulatzen amaitu izana. Eta gehitu zuen espero duela urte amaierarako Gipuzkoako zatia- ren lanen %60 esleituta izatea.

Adife-ko presidente Antonio Gonzalezek, era berean, "aurreikuspena betetzeko itxa-

ropena" azaldu zuen, eta lan guztiak 2016. urterako bukatu-ko dituztela berretsi zuen. Era berean, azpimarratu zuen Fomentoren konpromisoa "herrialde honetan trenbide sare modernoena ezartzeko".

**LOTURAK HOBETUTA**

Garraio sailburuak gogora ekarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuen arteko lotura "asko hobetuko" dela AHTri esker. Gasteiz eta Bilbo arteko ibilbidea 28 minutuan egin ahal izango dela esan zuen; Gasteiz eta Donostia artekoa, 34 minutuan; eta, Bilbo eta Donostia artekoa, berriz, 38 minutuan.

Horrekin guztiarekin batera adierazi zuen txikitu egin- go direla distantziak Frantziarekin zein Europako gainerako herrialdeekin eta gizarte eta kultura harremanak eta alderdi ekonomikoa hobetzea ahalbidetuko duela horrek.



Induspeko tunelak 2.224 metro ditu.

MIREN MANIAS

AZPIEGITURAK &gt; ERREPIDEAK

## Urte bukaeran hasiko dira egiten Urretxu-Bergara autobideko Deskargako tunela

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin ditu Urretxu eta Bergara arteko autobideko lanak: 10 kilometro izango ditu eta 170 milioi euroko aurrekontua

M.B. &gt; BERGARA

Urretxu eta Bergara arteko autobide zatiaren proiektua onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Guztira, 10 kilometro izango ditu eta N-1 errepidea (Beasainen) eta AP-1 (Bergaran) lotuko ditu. Aurrekontua 170 milioi eurokoa izango da eta 30 hilabeteko epea izango dute lanak egiteko.

Hori horrela, Antzuola eta Urretxu artean errepide berria egingo dute; eta Bergarako ekial-

deko saihesbidean lau errei egingo dituzte.

Urretxu eta Bergara arteko autobidean, zatirik konplexuena Deskargako tunela izango da. Hori horrela, Bidegik 620 metroko tunela egiteko lanak esleitzeko prozesua hasi du. Urtea bukatu aurretik hasiko dituzte lanak.

10 kilometro horietan egingo duten lan aipagarrienak dira: San Migel tunela, eta Ipurriete-

ka, La Antigua, Lapatza, Antzuola eta Igeribarrerrota biaduktua, hain justu ere.

**GUZTIRA, 23 KILOMETRO**

Beasain-Bergara autobideko lehen tramua (Beasain-Zumarraga) zabalik dago. Egun Zumarraga eta Urretxu artekoa egiten dihardute, eta 2011n inauguratuko dute. Urretxu eta Antzuola artekoa urtea bukatu baino lehen hasiko dute. Azken zatiarenda-

### Bergara-Urretxu autobidea

Luzera	10 kilometro
Aurrekontua	170 milioi euro
Epea	30 hilabete

#### LAN AIPAGARRIENAK

Deskargako tunela	620 m
San Migel tunela	890 m
Ipurrietea biaduktua	250 m
La Antigua biaduktua	250 m
Lapatza biaduktua	75 m
Antzuola biaduktua	220 m
Igeribarrerrota biaduktua	70 m

ko, alegia, Antzuola eta Bergarako AP-1 autobideko sarrera lotuko dituen, ez dute datarik zehaztu. Proiektua idazten hasiko dira. Beasain-Bergara autobideak 23 kilometro izango ditu guztira.

**AP-1 AUTOBIDEKO DATUAK UDAN**

Bidegik emandako datuen arabera, auto askok erabili du AP-1 autobidea udan. Igoera nabarmena izan da bi noranzkoetan: %18,9 igo da Gasteizerako noranzkoan eta %75,3 Eibarrerako noranzkoan.

Hain zuzen, 760.000 autok erabili dute Eibar Gasteizekin lotzen duen autobidea oporretara joateko, beste errepide sareak alde batera utzita. Izan ere, autobide hau Espainia Europako beste herrialdeekin lotzen dituen errepide sendoa bilakatu da. Hala, atzerritarren joan-etorrian oinarri izan da AP-1 autobidea. Askok AP-1 autobidea eta Donostia aldeko bigarren ingurabidea erabili dute. Ondorioz, Zarauzko ordainlekuan ere auto kopurua igo egin da udan: %7,1 Bilborako noranzkoan, eta %14,5 Iruenerakoan.



**zabalik**

Manu Arregi

## Zientzia eta Jainkoa

Zenbait liburu eraman nituen oportretan irakurtzeko. Ez ditut apenas ukitu. Horren ordeztu nire portatila antolatzen pasatu dut denbora libre, eta egunen batean ikusteko han gordeta neuzkan zenbait dokumental eta pelikula ikusi ditut. *Moon* eta *Cube* gomendatuko nituzke ikusitako filmen artean.

Eta *Dios, el Universo y todo lo demás* dokumentalen artean. Erraz aurkituko duzue, Youtuben izenburua idatziz. Carl Sagan, Arthur C. Clark eta Stephen Hawkingen arteko elkarrizketa bat da, telebistarako grabaturiko programa batean. Big banga, zulo beltzak, Unibertsoaren zabalkuntza, bizitza estralurtarra, Jainkoa eta abar luze bati buruz hitz egiten dute hiru jenio hauek. 1988koa da, baina ez du interesik galdu, 22 urte pasa arren. Pare bat bitxikeria azpimarragarri programaren inguruan: alde batetik, itxura okerren zeukana -Hawking- dela hiruren artean bizirik irauten duen bakarra. Eta, bestalde, orduan ere esaten zuela Hawkingek arriskutsua izan daitekeela gizakiontzat estralurtarrekin topo egitea.

**"Asko laburtuz, gauza guztiek dutela zergati bat dio Aquinoko Tomasek"**

*Probablemente Dios no existe* lema zenbait lekutako autobusetan jarri zutenean, baten bati irakurri nion ignorante hutsak zirela ateoak eta agnostikoak. Aquinoko Tomasek frogatuta baitu Jainkoaren existentzia. Asko laburtuz, gauza guztiek dutela zergati bat dio Tomasek. Eta Jainkoa dela Unibertsoaren zergatia. Jainkoa berez omen dago, zergatirik gabe. Ez al da hau kontraesan bat?

Zer dio zientziak Jainkoari buruz? Erantzun onena Laplacen hitzetatik etorriko zaigu. Napoleonen irakaslea izandakoa zen Laplace. Bere zeruko mekanikaren inguruko liburua aurkeztu zuenean, zergatik ez zuen Jainkoa behin ere aipatzen galdetu zion Napoleonek. "Ez dut hipotesi horren beharrik izan, jauna", erantzun zion Laplacek.

**usteak uste**


Edu Mendibil

## Pauso bat aurretik beti

Udan Gabonetako Loteria saltzen dute; udazkenean, udari begira datorren modaren berri jasotzen dugu; neguko gau hotzetan Karibeko hondartzeekin egiten dugu amets; eta udaberria gero eta lehenago hasten da El Corte Ingles-en. Argi dago gero eta zailagoa egiten zaigula orainaz gozatzea, betiere urrats bat aurretik ibiltzea ezinbestekoa balitz bezala. Gaurko gizartearen antsietatearen adierazgarri, orain, maletak desegin baino lehen, oporren osteko sindromeaz ohartarazten gaituzte. *Ufa!*, momentuan datorrenari aurre egitearekin nahikoa dugu.

**marrazkiz**

Unai Busturia



**blog-top**

## Aukeraren leihoa

Luis Aranberri 'Amatiño'  
<http://eibar.org/blogak/amatiño/>

Luistxo Fernandezekin bat nator euskal lurraldetasunaren dogma antzua salatzerakoan eta Kataluniak, ezer egingo badu, lehenago jarriko duela Bartzelonan biltzen den "Parlament"-aren burujabetza "pobles catalans"-en lurraldetasuna baino.

*Window of opportunity* (aukera leihoa) delako leloaz baliatuz Luistxo Fernandezek benetan iritzi-artikulu bakana bezain interesgarria eskaini digu gaur *Berria* egunkarian. Ez da gero batere ohikoa gauza originalik entzutea edo irakurtzea independentziaz, lurraldetasunaz edota Kataluniaren ereduaz, baina hona non gure Luistxok eztabaidarako aukera paregabea eskaini digun. Izan ere, bat etorri gaitezke ala ez bere hainbat irizpiderekin, baina ezin dakioke behinik behin fresko-tasunik ukatu.

Bere burua independentistatza jotzen du Luistxo Fernandezek, baina berri samarra nonbait, 2003an *Euskaldunon Egunkaria* itxi arte ez baitzen antza erabat jabetu. Espoleta harrigarria iruditzen zaidan arren, sentimenduak ez dira eztabaidagarri.

Egia da segurutik independentzia gauzatzeko prozesuetan "istripu historikoe" eragin handi izan ohi dutela baina, horratik, ez dut sinesten Kataluniaren noizbaiteko independentziak euskal aukeraren leihoa itxiko lukeenik. Are gehiago, ez dut uste katalanak inora doazeenik.

Luistxorekin bat nator, ostera, euskal lurraldetasunaren dogma antzua salatzerakoan eta Kataluniak, ezer egingo badu, lehenago jarriko duela Bartzelonan biltzen den Parlamentaren burujabetza pobles catalans-en lurraldetasuna baino.

Merezi du Luistxo Fernandezekin iritzi-artikulu irakurtzea. Auskalo oker ala zuzen, baina argi eta garbi bai, behintzat. Ezin gero esan "kazetari ohia" ulertzen ez zaionik.

**koplak**

Xabier Igoa

## Udako oporrei jarriak

Noja, Jaca edo Cambrils bisitatuz mila aldiz, aurtun bukatu zaigu *txoiloa* hurrengoko baten berriz!

Denek kanpo helburu herriz herri, munduz mundu, horren aurrean batzuk etxea zaindu behar izan dugu!

Eskolako examina eta fabrika zikina: uda bukatu eta badator berriz betiko berdina!

Dena ondo preparatu, ta maleta denak hartu! Batzuk oraintxe doaz eta guk inbidiz: aprobeztatu!

Beroari agur ere, ta batzuk moreno gabe! Baina lasaitu ze berotzeko era desberdinak daude!

Udazken ta negu giro, udaberria astiro, uda garaia bukatu zaigu. Etorriko da berriro!

## Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak, Goienkaza eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea), Oinarrizko diseinua Goio Arana Maketazioa Oxel Arrieta eta Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziortza Martín, Ederne Gorosabel, Aintzane Muruamendiarrak Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berzibar, Iratxe Bengoa.

### EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Postea-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

### LAGUNTZAILEAK



Eusko  
Jaurlaritzak



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiko  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

# Eskoriatza herri txikia da, eta herritarrek egiten dute handi

Ana Sanchez  
Eskoriatza

Herri txiki honetako jendeare eskerrak eman gura dizkiot. Urtebete pasa da esperientzia gogor bat bizi izan nuenetik.

Zorte handia izan nuen, nahiz eta mina handia izan, pertsona askoren maitasun eta laguntza izan nuelako, batez ere gertuko lagunena, beti hor dauden lagunena.

Eskerrrik asko; izan ere, nahiz eta mina handia izan, herri honetako jende guztiaren maitasuna sentitu nuen.

Eskerrrik asko, bihotz-bihotzez, orduan eta gaur egun ere, egunero, adiskidetasunaren altxorra sentiarazten didatenei. Hortaz, eskerrrik asko, nirekin egon zineten guztioi, asko izan zineten-eta, eskerrrik asko.

Bereziki iyiei, beti izan zenuten berba egoki bat niri

irri bat ateratzeko; nire lagun onenetako bati eta sostengu nagusia hasieratik, txokolaterapia egiteko daukagu; hiru hilean behin egiten ditugun afarietako lagunei; Mireni; ahizpa ilehoriei. Bueno, guzti-guztiei, urte gogor honetan, gauzak pasatu baina ahaztu egiten ez direla erakutsi didazuen guztioi.

Eskerrrik asko, baita ere, Gatzagako eta Aretxabaletako jendeare, Eneritzi (Lekeitio) eta Aitorri.

Eskerrrik asko, Jose Aranaren guraoi, zuen laguntzagatik.

Eskerrrik asko, Udaleko kideei, guztiei orokorrean.

Eskerrrik asko, herri txiki honetako jende guztiari, Eskoriatza, zuen solidaritate handiarekin egin izanagatik.

Eskerrrik asko.

## Iruña-Beleia SOS

Mikel Errasti  
Bergara

Erraza, oso erraza eta merkea da profesional baten lana zalantzan jarri eta mediatikoki epaitzea eta erruduntzea,

Eliseorekin egin den bezala. Nik ere zalantzak ditut. Baina argi dago 1.000 aztarnatik gorako eremu batean, bi dozenara heltzen ez diren aztarna faltsu batzuek ezin dezaketela gainerakoak zalantzan jarri eta ezeztatu frogarik gabe.

Hori egin dute Iruña-Beleian. Ez dut ulertzen. Aurrerantz goaz ala atzerantz goaz?

Gaizki ulertu ez badut, euskaraz idatzitako lehenengo aztarnak mende batzuk aurreratu daitezke aurkikuntza hauekin.

Baina ondorengoak ez dauka nondik heldu.

Balio handiko eremu arkeologiko baten, Atapuercan, Atenas edo Roman... ez zen horrelakorik gertatuko.

Iruña-Beleian ez dago zentrimetrotik zentrimetora lurra tentu handiz harakatzen ari den lan talde bat.

Ez, eskabadora bat dago. Zabortege baten egongo balitz bezala, gure ondare historikoa egun argitan eta alebosiarekin erailez.

Eta gure (?) politikariak beste aldera begira. Zein da helburua? Euskarak izan

dezakeen aztarna idatzien isiltze eta desagerrarazpena? Hau al da espainiar demokrazia multikulturala?

Honek izen bat dauka: terrorismo kulturala. Gainontzekoa soberan dago.

Mesedez, ikusi Youtubean *Destrozando Iruña-Veleia* bideoa eta jendeare zabaldu.

Post-data: pelikula baten izenburua *Las invasiones barbaras* da, baina hau ez da fikzioa.

## Nafarroa eta Euskadi

Jon Otero Uribarren  
Arrasate

Gogorra da onartzea Euskal Herriaren zati handi bat ez dela Euskadi. Baina, zer dugu Nafarroan? Botoen ehuneko 70a bozka espainolista da eta abertzaleok gara soilik %27. Eta, zer diote UPN eta PSNk? Nafarroa ez dela Euskadi. Are gehiago, diote, ez dutela nahi autodeterminaziorik eta gutxiago independentziarik. Hortaz, nafarrek ez dute Euskadi izan nahi, eta Nafa-

rroa nafarrek nahi dutena da eta izango da.

Gipuzkoa eta Bizkaian soilik dira nagusi abertzaleak Euskal Herriko lurraldeen artean. Iparraldean, zer esanik ez, frantziar zalea da gehiengo handia, Pays Basque omen dira eta han ere ez dute nahi autodeterminaziorik. Araban, abertzale kopurua handiagoa da, baina, halere, hor ere espainolista dira nagusi eta ez dira autodeterminazio eskean, baldin eta Euskadiren zati badira.

Hortaz, autodeterminazioaren aldekoak eta independentziaren aldekoak soilik gipuzkoarrok eta bizkaitarrok gara. Baina abertzaleek eskatzen dute Hego Euskal Herri osoaren autodeterminazioa gutxiengoa izan arren. Abertzaleok amore ematen dugunean Nafarroan eta, nork daki, agian Araban ere bai, orduan etorriko da Bizkaia eta Gipuzkoaren autodeterminazio erreferenduma. Amore ematen ez dugun bitartean, jarraituko dugu, zorritzarekin, Espainiako Estatuko zati izaten.

Nik, guk, ez dugu espainiarrik izan nahi; izan ere, txikia eta independentea hobe, ezer ez baino.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Ibarra kalea 6  
20570 BERGARA



Telefona: 943 25 05 01



Faxa: 943 25 05 13



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com

**Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!**

UDAKO ARGAZKIEN VI. GOIENA ARGAZKI LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

**...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!**

Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)



GARIKOITZ ITURBE

ANE JAUREGI

MARTIN URIARTE ASKASIBAR

**Har ezazu parte!**


## Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefona.
  - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
  - Argazkia zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztailean eta irailaren 17a bitartean.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).

- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK e-postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otxalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. BERGARA: Ibarra 6 (lehen, Arcelorren bulegoak), 20570 Bergara. ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua edo Basabe poligonoa E-0-5, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenezkin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Udako argazkiak izango dira: berdín da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailearen erdialdetik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAN eta [Goiena.net](http://Goiena.net)-n sortutako foto-blogean. GOITBn ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 4an jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAN.
- Epaimahaia argazkiaren kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez balego, GOIENKARIAk aukeraketa egingo luke.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

## Sariak

**1. saria: Canon EOS 1000D** argazki kamera digitala eta KB photoestudiok emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonoa. Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.  
10 megapixel / Canon 18-55 mm f3.5-5.6 EF-S objektiboa  
2,5 hazbeteko LCD pantaila Live View sistemarekin / Flash eta guzti.



**2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne. Arrasate Bidaiak-en eskutik.

**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

**BABESLEA:**



Laguntzaileak:



Canon GURE AMETSA  
JATETXEA

Goienkaria  
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

Goienkaria  
astelehenean, aste bukara oso

Goiena.net

Goitb  
Gome Tobats

Mikel Arana Ezker Batuko koordinatzailearen iritziz, kontuan hartzekoa da ezker abertzaleak egin duen aurrerabidea, baina ezin daitezke gutxietsi udako kale istiluak. Ezker Batuko barruko liskarrak irailean konpontzea espero duela dio eta ez du begi onez ikusten Zapateroren aurrekontuen negoziatioetan EAJk darabilen jokabidea.

Mikel Arana > Ezker Batuko koordinatzailea

# "Une honetan, EAJ da Zapateroren politikaren konplize nagusia"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Ezker Batuan legebiltzarkide bakarra da Mikel Arana (Ordizia, 37 urte). Animalien babeserako lege proposamena aurkeztu du Legebiltzarrean. Ezker Batu barruko gorabeheraz ere egin digu berba.

**Kaleko istiluak ugaltu egin dira udan. Ze iritzi daukazu?**

Uste dut direla ezker abertzalean dagoen eztabaidaren adierazgarri. Batez ere, ikusita ezker abertzaleak berak ekintza horien inguruan agertu duen iritzia. Seguruen erantzun hori ez da izan guk nahiko genukeena, baina ezin daiteke esan aldaketarik ez dagoenik.

**ETAk agindutako kale erasoak dira?**

Ez dakit. ETaren ekintzen barruan kale erasoak sartzen dira? Ez dira sartzen? Ez dagokit eztabaida horietan murgiltzea. Ez dakit nork agindu dituen ekintzok, baina norbaitek agindu ditu. Ez nago ados bandalismo ekintzak direla esaten dutenekin.

**Josu Erkoreka EAJko parlamentariak kale istiluok gutxietsia leporatu dio Jaurlaritzari.**

Ares sailburuak egin dituen adierazpenak dotoretasun txiki-koak izan dira. Jaurlaritzari esker istilu gutxiago egon direla esatean, inplizituki, iraganeko gobernuen lana gutxietsi du.

**Ze iritzi dauka Ezker Batuak ezker abertzalearen, EAren, Alternatibaren eta Aralarren arteko hartu-emanen gainean?**

Helburu bat daukate: independentisten arteko bloke bat eratztea. Ezker Batuak ez daukala hor tokirik. Bi arrazoirengatik: bate-tik, helburu sozialak lehenesten ditugulako, batez ere egoera ekonomiko honetan; bestetik, talde horiek bat egiten dutelako soilik independentziaren aldarrian. Ezkerreko alderdia da EA?

**Ezker abertzaleak egin dituen urratsak direla-eta, sumatu duzu aldaketarik Espainiako Gobernuan?**

Ez. Uste dut, gainera, ezker abertzaleak ere ez duela aldaketarik espero eta eman duten urratsa alde bakarrekoa dela. Ezker abertzalea bide berria egiten ari da eta nik espero dut ETAk ere bide beretik joatea. Ezker abertzaleak zor zion jendarteari egin duen apustua eta ETAk ere zor digu euskal hiritarroi, behingoz, armak utzi dituela esatea.

**Madrazoren sektoreak Ezker Batuan estatu kolpea eman izana salatu zenuen ekainean. Gogorra ezta?**

Bai, hartu zuten erabaki ere gogorra izan zelako. Edozein organotan eztabaida eta ezadostasuna onartu egin behar da eta onartzen ez bada, alderdi politiko baten barne demokrazia kolokan jartzen da. Madrazoren ingurukoek hartu zuten erabakia lekuz kanpo zegoen. Eztabaidak eta borrokak hasi ziren, puntu batera iritsi ziren, eta une honetan gauzak bere onera itzultzen eta adostasunetara heltzen saiatu behar gara.

**Adostasunetara iritsi zarete edo oraindik ere bi Ezker Batua daude?**

Ezker Batua bakarra da, baina sektore ezberdinekin. Eta hori, berez, ez da txarra. Ezkerreko alderdi guztiek izan beharko genituzke, ia-ia, militanteak adina sektore... Espero dezagun irailean adostasun batera heltzea, Udal hauteskundeak bistan ditugulako eta militanteei zor diegu hauteskunderi begira jartzea eta ez barne eztabaidatan ibiltzea.

**Epaitegietan konponduko dituzue liskarrak?**

Auskako! Kontseilu politiko-tik kanporatutako kideek epaitegietara jo zuten. Niri gustatuko litzaidake soluziobideak aurkitzea eta epaitegietako salaketa horiek erretiratzea.

**Aurrekontuak onartzeko botoen truke, Estatutua betetzeko eskatu dio EAJk Zapaterori.**

Gernikako Estatutua lege organikoa da, duela 30 urte onartu zena eta oraindik bete ez dena. Aurrekontuak onartzeko truke txanpon bezala erabiltzen baduzu Estatutua, gutxiesten zabiltza Estatutua bera. Konpetentziak lortzeko azoka moduko horrek ahuldu egiten du Estatutua. Ez zait gustatzen ikusten dudana eta are gutxiago kontuan izanda zelakoak izango liratekeen EAJk onartuko lituzkeen Zapateroren aurrekontuak. Eskuin neoliberalaren politika onartzea ez da Euskadiren alde egitea. Une honetan, EAJ da Zapateroren politikaren konplizerik nagusia.

**Politika aktiboen transferentziaren gainean eztabaidatan dabilta sozialistak eta jeltzaleak. Ze posiziotan dago Ezker Batua?**



Mikel Arana, Ezker Batuko koordinatzailea, Arrasaten.

ENEKO AZKARATE

EB BARRUKO LISKARRAK  
**"Soluziobideak aurkitu eta epaitegietako salaketak erretiratzea nahiko nuke"**

EUSKO JAURLARITZA  
**"Alderdi Popularrak gidatzen du Jaurlaritzaren jarduna"**

Estatutuak esaten duena erresetatzen dugu. Herri honek beharrezkoa du konpetentzia hori eta etor dadila lehenbailehen, zenbaten kuantifikatzen den itxoin gabe. Onartezina da, bestalde, Jaurlaritzaren barreratik begira ikustea, Zapaterok tranpa egiten dietelako Lopezi eta Zabaleta sailburuari.

**Lopez jarduna zela balortzen duzu?**

Eusko Jaurlaritzak dago erabat galduta. Gaitasunik eza erakutsi dute hainbat alorretan eta, bestalde, azken 30 urteotan herri

honetan lortu diren hainbat adostasun puskatzen ibili dira: ikurrina, euskara... Alderdi Popularrak gidatu du Jaurlaritzaren jarduna.

**PPk agintzen du Eusko Jaurlaritzan?**

Batere zalantzarik gabe. Eguero ikusten dugu Eusko Legebiltzarrean.

**Zein aurrerakoia, Lopezen ala Ibarretxeren jaurlaritzan?**

Sailaren arabera. Zintzoa izanda, egia da une honetan askoz ere diru gutxiago dagoela. Behin hori esanda, esaterako, Ezker Batuak zeraman sailari dagokionez, ezin dira konparazioak egin: Gemma Zabaletak erabaki du laguntza sozialak jaso behar dituztenak ia ia susmopean edukitzea, behin eta berriro ikuskatuz euren egoera. Eta diru gutxiago darabil gizarte laguntzetarako. Bestalde, etxebizitza politiketan Arriola sailburua egiten ari denak ez dauka zerikusirik orain arte egin den guztiarekin. Erabaki du etxebizitza publiko askoz ere gutxiago egitea, alokairuaz ari da, baina ez alokairu sozialaz, prezioak garestitu ditu...

**Ze iritzi daukazu Kataluniako parlamentuan zezenketak debekatzeko hartutako erabakiaren gainean?**

Pena eman dit. Ez erabakiak berak, jakina, baina bai eztabaidak: animalien inguruko eztabaida bihurtu da espainolotasunaren gaineko eztabaida. Gu saiatu gara etxera ekartzen hasierako eztabaida. Ez dut zalantzan jartzen zezenketek Euskal Herrian duten tradizioa; ezta artea edo kultura izatea batzuek. Hori ez dago eztabaidagai, baizik eta ea ulertzen dugun jendarte aurreratu batek onar dezakeen ikuskizuna dela animalia bati tratu txarrak eragitea. Lege proposamena aurkeztu dugu Legebiltzarrean.

**Iraileko greba orokorrarekin bat egingo du Ezker Batuak?**

Bai. Krisiaren errudunak dira finantza erakundeak. Baina, ordaindu beharrean, lagundu egin zaie eta krisia pairatu dutenek ordaindu egin behar dituzte krisiaren ondorioak. Egoera horren eta gobernuaren neurrien kontra, beharrezkoa da greba egitea.

goiena.net/bideoak

Elkarrizketa osoa, webgunean.



# ETXERA ITZULTZEA errazagoa Gorbeiarekin

# 4.500€

## baino gehiago irabazi ditzakezu

### 1. SARIA

Erosketa-  
txartela **2.000€** + **Eskolara Itzultzeko Packa**  
Ordenagailu eramangarri bat + motxila bat + txandal bat

### 2. SARIA

Erosketa-  
txartela **1.500€** + **Eskolara Itzultzeko Packa**  
Ordenagailu eramangarri bat + motxila bat + txandal bat


### 3. SARIA

Erosketa-  
txartela **1.000€** + **Eskolara Itzultzeko Packa**  
Ordenagailu eramangarri bat + motxila bat + txandal bat

Lortu ezazu parte hartzeko txartela (**Merkataritza Parkean** edo **GB-n**), 20€-tik gorako erosketa bat egin eta sarien zozketan parte hartu ahal izango duzu.

Oinarri osoak gerentziaren bulegoan daude eskuragarri.  
Promozioak 2010eko irailaren 3tik urriaren 2ra bitarte iraungo du.

ESKORIATZA 10 minutuan  
ARRASATE 13 minutuan.  
BERGARA 16 minutuan.  
SORALUZE 21 minutuan.  
EIBAR 23 minutuan.



**GORBEIA**  
gehien aurretzen duzun tokia

Etxabarri Ibiña  
IRTEERA  
AP - 1 EIBAR -GORBEIA  
(GASTEIZ)



www.danbaka.com



**DANBAKA** ))))

IV. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA **DEBAGOIENA** DURANGALDEA

# PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago:  
[www.danbaka.com](http://www.danbaka.com)

irailak **17** izena emateko azken eguna

# Herriak


Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23 Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 26-27 Gatzaga > 27



> **ARRASATE**  
Malvinetako pasabidea eta igogailua, datorren astean zabalik > 13



> **ARETXABALETA**  
Karmele Igartuaren errezitaldi bat, Youtuben > 23



> **ESKORIATZA**  
Kale-argi berriekin 3.000 euro aurreztuko dira > 24



> **ELGETA**  
Erabiltzaileak gustura daude Salbador kaleko pibotearekin > 27

BERGARA > ZERBITZUAK

## Ia gertu dago Zabalotegiko 'Txiki-txokoa', umeak gurasoekin jolasteko

### ZABALIK

Irailaren 20an zabalik egon dadin nahi du Udalak; negu parterako izango da

### KAFE-MAKINA

Psikomotrizitatea lantzeko materiala eta, helduendako, kafe-makina izango ditu

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Datorren astean barrena ailegatu da Zabalotegin Udala egokitzen dabilen *Txiki-txoko* izeneko gunerako materiala; hala, Udalak gertu izan nahi du irailaren 20rako, egun horretan zabaldu ditzan ateak. *Txiki-txokoa* Zabalotegiko eskola zaharrean izango da, eta 0-5 urte arteko umeak aita-amekin egoteko eta jolasteko lekua izango da; batez ere, eguraldi txarra egiten duenean gurasoek eta seme-alaba txikiak batera egoteko eta jolas egiteko aterpea izango da. Doakoa izango da.

Zelakoa izango den eta zelan funtzionatuko duen zehaztuta dauka Udaleko Hezkuntza sailak, eta Hezkuntza teknikari Nagore Narbaitzak azaldu digu: "Bi ikasgela ditu, eta biak erabiliko ditugu: bat oinez dabiltzanendako, eta bestea, oraindik katamarka dabiltzanendako. Ekipamendua minimoa izango da: bakarrik psikomotrizitatea lantzeko erabiltzen den materiala -koltxoneta batzuk eta kubo batzuk eskatu ditugu-, eta jostailuak norberak ekarriko ditu. Hala, gurasoek seme-alabekin jolas egin ahal izango dute".

Narbaitzak azpimarratu nahi du ez dela "begiralerik" ez beste arduradunik egongo.

### "PROBA EGINGO DUGU"

Irailaren 20an, udazkenarekin batera irekiko dute *Txiki-txokoa*, eta "neguan proba" egingo dute, ea zerbitzuak ze harrera



Nagore Narbaitza, Udaleko Hezkuntza teknikaria, *Txiki-txokoa*an.

LEIRE KORTABARRIA

duen. Hasieran behintzat, negurako zerbitzua izan dadin nahi dute, halako aterpe edo "leku epel" baten beharra dagoenerako, alegia: "Eguraldi txarra dagoenean, Bergaran ez dago umeekin egoteko horrelako lekurik", esaten du Narbaitzak. Horregatik, "eguraldiaren arabera erabiliko" dela uste dute.

Aldez aurretik galdetegi bat egin zuen Udal Hezkuntza sailak herriko bost ikastetxe eta haurtzaindegietako umeen

gurasoen artean, eta 139 familiak esan zuten horrelako zerbitzu bat erabiltzeko gertu egongo lirakeela. Horietatik gehienek (61) esan zuten batez ere astelehenetik egubakoitzera arteko arratsaldeetan erabiliko luketela gusturen; 29k, astelehenetik domekara, arratsalde; 19 familiak, egun solteetan arratsaldean erabiliko luketela esan zuten; eta 15 familiak, zapatu eta domeka arratsaldeetan. Gutxiagok, zortzik, erantzun zuten

zapatu eta domeketan goizez eta arratsaldean joango lirakeela umeekin Txiki-txokora; seik, astelehenetik domekara, goizez eta arratsaldean zabalik nahiko luketela; eta bakarrak erantzun zuten astelehenetik egubakoitzera goizez eta arratsaldean ikusten zuela ondoen.

Gehienek erantzundakoa kontuan izanda, azkenean astelehenetik domekara zabalik egotea erabaki dute, eta 17:00etatik 20:00etara.

DATUA

# 8.000

EURO

Obrarik ez da behar izan Zabalotegiko eskola egokitzeko; moketa, kafe-makina, bankua eta koltxonetak ipiniko dituzte. 8.000 euroko inbertsioa izan du denak.

ESANAK

"Eguraldi txarra egiten duenean gurasoak umeekin egoteko halako lekurik ez dago Bergaran"

Nagore Narbaitza > Teknikaria

ESANAK

"Zabalik egongo da nahi duten guztiak joan daitezten; irtetea, dena zegoenetan laga besterik ez dute"

Agurne Barruso > Alkatea

### 2006RA ARTE ERABILI ZEN

*Txiki-txokoa* egokitzeak ez du lan handirik ekarri; izan ere, Hezkuntza teknikariak dioten moduan, "Zabalotegiko eskoletan, 2006an oraindik bazebiltzan umeak, eskolak ematen ziren; hala, lehen ere umeak erabiltzen zutenek, lekua egokia da". Hala, bi gela nagusiez gain, umeendako komuna ere badago, eta helduendako beste bat ere bai.

Obrarik ez da behar izan. Egitako geratzen dena da moketa bat ipintzea eta lekua pixka bat txukuntzea. Helduendako ere ipiniko dute zerbait: kafe-makina. "Sarreran ipiniko dugu, banku batekin batera", esaten du Nagore Narbaitzak. Horrenbestez, 8.000 bat euroko aurrekontua izan du proiektu horrek.

Horrekin batera, argindarra sartu eta ingurua apur bat irisgarriago egin nahi du Udalak. Hori dena egin eta gero, azkenean erabiltzeko moduan izango da aterpea.

HIRIGINTZA &gt; BIDE BERRIA

# Gazteluondo eta Arrasate pasealekua lotzeko bidea egingo dute

Abuztuan jakinarazi du Eusko Jaurlaritzak Hiriber programarekin diruz lagunduko dituzten proiektuak; tartean dago Arrasateko bide berria

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Gazteluondo eta Arrasate pasealekua lotzeko bide berria egingo du Udalak. Bide hori izango da ibilgailuendako zein oinezkoendako, eta aterako da Gazteluondoren atzeko aldetik eta abade etxea inguratuta iritsiko da Arrasate pasealekuraino. 120 metro pasako luzera izango du, bide bakarra ibilgailuendako eta alde zaharreko kaleen izaera; hau da, ibilgailu zein oinezkoek bat egiten duten gunea izanik, automobilerik joan beharko dute, eta errepidearen galtzada berezia izango da.



Argazkiek erakusten dute pasabide berria nondik nora joango den.

U.M.

Arizmendi Ikastolako San Viator handi ikastetxea dagoen lekuan hasiko da justu errepide berria, Arrasate pasealekuaren goiko alderaino.

**PARKE TXIKITXO BAT ERE BAI**

Errepide berria zabaltzeaz batera, orube berean parkea ere eraikiko dute; txikia izango da, baina jarleku eta umeendako jolas

batzuk eta iturria izango ditu, besteak beste. Eta obra aprobetxatuta, abade etxerako sarrera berri egingo dute, sarrera hori bere horretan utziko dute-eta.

DATUA

## 463.000

EURO

Eusko Jaurlaritzak 463.710,10 euro bideratuko ditu Gazteluondo eta Arrasate pasealekua lotzeko, proiektu osoaren %65.

**DATORREN URTEAN BUKATU**

Proiektu horrek 713.400,16 euroko aurrekontua dauka (800.000 euro pasa BEZarekin), eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzeko du %65 (463.710,10 euro), Hiriber-Hiriak Berritu izeneko programaren bitartez (E planaren antzerakoa). Justu abuztuan argitaratu du Jaurlaritzak Arrasaterako onartutako laguntza

Hiriber programaren baldintza da 2011ko abenduaren 31rako bukatuta egon behar dela proiektua. Hori horrela, berehala abiaraziko du Udalak bide berriaren lizitazio prozedura.

&gt; LAN ESKAINTZA

### Langile gaztea behar dute AEDn, gazte saila kudeatzeko

U.M. &gt; ARRASATE

AEDk langilea behar du gazte saila kudeatzeko. Sei hilabeterako lan eskaintza da, egun erdiko jardunerako eta ahalik eta agudoen lanean hasteko. Zeregina izango da gazte saila kudeatzea eta gazteei begira ekimenak antolatzea; hori horrela, 30 urte edo hortik beherako gazteak hobetsiko dituzte; baita Arrasate edo ibarrekoak direnak ere. Horrez gain, ezinbestekoa da euskaraz jakitea.

Interesdunek [redtrabaja.es](http://redtrabaja.es) gunean ipini behar dute curriculumua.



Mojategiko instalazioei eragin die kiroldegiko kableen lapurreta saiakerak.

U.M.



Erlojuaren eraikinaren (Saiolan) atzetik Zerrajeraraino autoz iritsi daiteke orain. U.M.

GERTAKARIAK &gt; ABUZTUAN ZER

## Errepide berria, lapurreta eta murala

Kiroldegiko lapurreta saiakeraren kalteak zelan konpondu aztertzen dabilta orain

U.M. &gt; ARRASATE

Abuztuak utzitako gaien artean, Zerrajerako errepide berria, kiroldegiko lapurreta saiakera eta Ferreriasko murala dira, seguru aski, esanguratsuenak.

Kiroldegian gertatu da ezustekorik txarra: argindar haria lapurtzen saiatu, eta kableak moztu zituzten hainbat puntutan abuztuaren 26ko gauean. Ondorioz, lauzpabost egunez argi eta ur bero barik egon dira Mojate-

gin. Behin-behineko konponketa-ekin, asteen lortu dute ur beroa eta gutxieneko argiteria berreskuratzea. Orain, kalteok zelan konpondu aztertzen dabilta.

Zerrajerari dagokionez, berriz, joan den asteazken zabaldu zuten kalea ibilgailuendako; ospitale-gunetik erdigunera joan-etorria egiteko bide berria dago, beraz.

Bukatzeko, mural erraldoia margotu dute Ferreriasko plazan, kalearen historiarekin lotuta.



Ferreriasko plaza berrian margotu dute mural berria, burdinolekin lotutakoa. U.M.

**PATXI  
CASTRO**



Era guztietako aulkien konponketa

Tapizatu lanak

Zumezko eta kanaberazko artikulu salmenta

Besaulki, mahai, saskiak e.a

**943 78 71 65  
639 01 69 69**

**IBAI ARTE**

## Tabernetan hiru euro gastatzeko txartelak

J.B. > ARRASATE

Ibai-Arte elkarteak beste promozio bati ekin dio: elkarteko bazkide diren taberna eta jatetxeetan erabiltzeko hiru euroko 500 txartel banatuko ditu Ibai-Arte txartela erabiltzen dutenen artean. Ekimenak irailaren 30era arte iraungo du.

**HAINBAT TABERNA ETA JATETXE**

Erosketa egiteko unean saritua izan den bezeroak hiru euro izango ditu honako taberna eta jatetxeetan gastatzeko: Lorategi, Zuk Nahi, Santa Ana hotela, Hilarion, Arteaga landetxea, Mondragon hotela, Izozkitegi, Muruamendiaraz, Iturriotz, Hemen, Monte, Amets, Dublin, Galburu, Txoko 2, Lukas eta Itzala.

> ERRETIRATUAK

### Abaroak txango antolatu du Bizkai aldera hilaren 15erako

Abaroako erretiratuek irteera egingo dute hilaren 15ean. Bizkaiko zenbait toki bisitatuko dituzte; besteak beste, Markina eta Lekeitio. Irailaren 8an eman beharko da izena, 10:30ean. Txartelak hilaren 13an banatuko dituzte (11:00) eta txartelen prezioa 27 euro da.

> IKASTAROAK

### Tai txi ikastaroa Arizmendin datorren martitzen hasita

Rafael de la Maza irakasleak irailaren 7an hasiko du tai txi ikastaroa. Eskolak martitzen eta eguinetan emango ditu, 08:15etik 09:30era. San Viator eskolan -Arrasate pasealekua- izango dira eskolok. Izena eman gura duenak 679 642 491 telefonora deitu beharko du.



Bizkaia etorbideko igogailua luzatzeko eta Larragain kalea lotzeko lanak bukatzeaz daude.

GOIENKARIA

**IRISGARRITASUNA > BIZKAIA ETORBIDEA ETA GOROSTIZA AUZOA**

## Igogailua eta pasabidea datorren astean zabaltzea espero dute

Abuztuan egin behar ziren igogailu barruko obrak, baina Orona enpresak ezin izan ditu lanok egin arazo teknikoengatik; Gorostiza auzoa lotuko duen pasabidea datorren astearen amaierarako gertu egotea espero dute

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Bizkaia etorbidea eta Gorostiza auzoa lotuko dituen igogailuaren lanak atzerapenarekin datoz. Izan ere, abuztuan hasi beharrean, asteen hasi dira lanean igo-

gailu publikoaren barruko aldean. Beraz, egun, itxita dago igogailua, eta, Udaleko Hirigintza Sailak jakinarazi duenez, datorren astera arte itxita egongo da, gutxienez. Esandako moduan,

atzerapen batengatik datoz obra horiek. Izan ere, hasierako asmoa zen abuztu erdiko bi asteetan Bizkaia etorbideko igogailua ixtea, lanek erabiltzaileei ahalik eta eragozpen gutxien eragite-

**JENDARTEA > ERLIJOA**

## Irailaren 12an izango da Arantzazurako erromesaldia

Oinez joan gura dutenak 06:30ean irtengo dira Kontzezinotik; autobusez 09:00etan Garibaitik

J. B. > ARRASATE

Arrasatetik Arantzazurako erromesaldian parte hartzeko deialdia egin dute dagoeneko. Antzinako ohiturak agintzen duenez, Arrasateko fededunek Ama Birjinaren egunaren osteko domekan, hau da,

irailaren 12an egingo dute Arantzazurako erromesaldia. Eta, ohikoa den moduan, bi aukera izango dira Arrasatetik Arantzazu aldera abiatzeko: oinez edo autobusez. Noski, norberaren autoan joateko aukera ere izango da.

**OINEZ EDO AUTOBUSEZ**

Oinez joan gura duten erromesak 06:30ean abiatuko dira Kontzezino kaletik eta autobusez joan gura dutenak, berriz, Garibaitik aterako dira, 09:00etan. Hitzordua egin dute, beraz, bi domeka barrurako. Hala ere, erromesaldira autobusez joan gura duenak dagoeneko eros dezake txartela. Txartelok Kontzezino kalean bertan kokatuta dagoen Ecuador Bidaiak agentzian salduko dituzte.

Esandako moduan, Arantzazura oinez joan gura duten erromesak 06:30ean izango dute hitzordua, Kontzezino kalean. Bertatik Bedoña auzorako bidea hartuko dute eta Bedoñatik Larrinora abiatuko dira. Gero, Urkulura egingo dute, eta amaitzeko, Urrexolara. Ibilbide hori egiteko hiru ordu inguru beharko dute.

**GESALTA ELKARGUNE**

Oinez zein autobusez doazen erromesak Gesaltzan elkartuko dira. Hala, eta ohitura den moduan, Arantzazurako azkeneko zatia oinez egingo dute. Erromesaldiko azken tarte horretan erromesen ondoan joango dira frantziskotarrak, eta meza eta kantuen artean egingo dute Arantzazurako igoera. Santutegira iristean, frantziskotarrek eta Arrasateko Udaleko ordezkariak harrera egingo diete, ekitaldi txiki batekin, 11:00ak inguruan. Atsedean hartzeko tartea izan ostean, 12:00etan santutegira abiatuko dira fededunak, meza nagusia entzuteko.

San Juan Bataiatzailearen parrokiak deialdia egin die arrasatear guztiei ekitaldi "berezi" horretan parte har dezaten.

**Monte taberna**

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

**UGARAN**  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
**ARRASATE**

 **Txitxinpe**

**Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33  
**ARRASATE Tel.: 943 79 67 76**

**BASATI TABERNA**



943 711768

ERRUGBIA &gt; EUSKADIKO TXAPELKETA

# Aspaldiko aldaketa handienak Arrasateko errugbi taldearendako

Taldeari bultzada emateko Durangorekin sinatutako hitzarmena da nobedade handiena

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Garai berriak datoz Arrasate Kanpanzar errugbi taldearendako, eta liga hastearekin batera –oraingo astean hasi dituzte entrenamenduak– igarriko dituzte lehenengo aldaketak.

Liga amaitu ostean aurkeztu zuten Arrasateko eta Durangoko ordezkariek bi taldeen arteko hitzarmena, eta etxeko taldearendako izango dituen onuren gainean egin digu berba Igor Isasi entrenatzaileak: "Iaz larri ibili ginen partidu askotan, jokalaririk gutzirekin. Hamabost lagun joaten ginen partiduetara, eta horrela zaila da denboraldiari aurre egitea. Orain, Durangoko lehenengo taldean lekua ez dutenek gurekin jokatu dute, eta gorago dagoen talde batekin entrenatzen dutenez, guk ere etekina aterako dugu hor".

Bestalde, Arrasaten badira bizpahiru jokalarri goragoko kategorian jokatzeko maila dutenak, eta euren aukera aparta izango da Durangon jokatzeko: "Lortzen badute ni asko poztuko naiz; horretarako, Aratz Gallastegik eta biok astero egingo dugu berba, jokalarien nondik norakoen berri izateko".

## DENENDAKO TOKIA DAGO

Errugbia seriotasun apur batekin hartu nahi dutenekin egin nahi dute bi klubek aurrera: "Guztiendako tokia dago. Iaz jokalaririk gazteenak izan ziren maila onena eman zutenak, baina jokalaririk beteranoak ezinbestekoak izan ziren partidu asko aurrera ateratzeko".

## ETXEKO ENTRENATZAILEAK

Arrasate Kanpanzar taldeari dagokionez, Igor Isasi izango da lehenengo taldearen arduradun nagusia. Hala, emakumezkoen taldeko entrenatzaile moduan Jon Iriak jarraituko du, baina Durango aldetik laguntza izango du eguneroko lanean. Gazte eta kadete mailan, berriz, Andeka, Fisa eta Gomez izango dira gazteak zuzenduko dituztenak, eta Kako-k egingo ditu koordinazio lanak. Errugbi Eskolaren ardurak, berriz, Txanton-ek izango du.

## JAIA, BIHAR

Ikasturtea behar den moduan hasteko denboraldi hasierako jaia egingo du Arrasateko taldeak bihar, zapatua, goizean Moja-tegin. Lagunarteko partidua jokatuko ostean Zabaleta baserrian bazkaria egingo dute ordezkariek, eta noski, durangarrak ere bazkari horretara gonbidatuta daude.

Hala, oraindik Euskal Liga noiz hasiko duten zehaztu barik dagoenez –seguruenik hilaren 18an hasiko dute liga–, hilaren 11n lagunartekoa jokatuko dute Durangok eta Arrasatek.

## ELASTIKO BERRIA

Arrasatek eta Durangok bakoitzak bere izaera mantenduko duela erakusten duen adibide garbia da Arrasateko taldeek laster estreinatuko duten elastiko berria. Astorek egindako elastikoak dira, eta ohi moduan, zuria, morea eta beltza izango dira elastikoko koloreak, eta Kanpanzar, Basati eta Monte babesle nagusiak.



Gorrión, otsailean Durangoren kontra jokatutako partiduan.

GOIENKARIA

## HITZARMENA, PUNUKA

> **NORTASUN PROPIOA** Arrasatek eta Durangok lan batera egiteko hitzarmena sinatu badute ere, talde bakoitzak bere izaera izaten jarraituko du. Hala, Arrasatek Euskadiko txapelketan jokatzen jarraituko du, eta Durangok gorago, Ohorezko B mailan. Baina Arrasate Durangoren harrobiko taldea izango da.

> **HELBURU BATERATUA** Bi klubek hitzarmen horrekin helburu bateratua dute: klubetako talde guztiak indartzea eta jokalarien maila eta lehiakortasuna handitzea.

> **TALDE GUZTIENDAKO** Hitzarmen horrek ez die talde nagusiei bakarrik eragingo, guztiei baizik, bai emakumezkoen eta baita kategoriatik txikiak ere.

> **LAN ONAK SARIA DU** Arrasateko taldean maila ona erakusten duen jokalaririk leku egingo diote Durangon, eta Durangoko taldean lekurik ez duenak Arrasaten jokatuko du. Azken orduan erabaki dute egubakoitzero Arrasatek eta Durangok batera entrenatzea.

> **ENTRENATZAILEEN LANA** Arrasateko eta Durangoko entrenatzaileek harreman estua izango dute, jokalarien berri etengabe izateko. Eskarmentudun bi entrenatzaile izango dituzte taldeek: Igor Isasi Arrasaten eta Aratz Gallastegi Durangon.

> **JOKALARI GEHIAGO** Hitzarmenarekin gehitu egingo da taldeek izango duten jokalaririk kopurua, baita entrenatzaileak ere.



Aitor Ezkibelek eta Igor Egañak -erretratuan- taldea utziko dute.

J.A.

ESKUBALOIA &gt; EUSKADIKO TXAPELKETA

## Arrasate, ligako faboritoetako bat

Iaz hirugarren sailkatu eta gero, aurten ligan arrasatearrak mailaz igotzeko hautagai izango dira

X.U. &gt; ARRASATE

Arrasateko errugbi taldeak hasieratik erronka gogorra izango du aurten, dagoeneko kategoriako talde indartsu bilakatu direlako –iaz erakutsi zuten hori–, eta mailaz igotzeko faborito bilakatu dira; eta etxekoek ez diote etiketa horri bizkarrik eman nahi: "Dagoeneko ez digu balio esateak helburua kategoriari eustea

dela", argitu du Edu Orgazek –oraindik ez dago ziurtatuta taldean jarraituko duen–. Nik uste dut aurten helburuak izan behar duela igoera faserako sailkatzea; hau da, lehenengo bi sailkatuen artean egotea".

Aurten Barakaldo eta Egia igo dira, eta bi talde horiek utzitako hutsunea bete dezake Arrasatek: "Ikusteko dago Bizkaiko

taldeek ze maila erakutsiko duten, baina, berez, Askartzarekin eta Urdulizekin batera aurrean ibili beharko genuke".

## LIGA, URRIAREN 2AN ETA 3AN

Joan den astean hasi ziren Arrasateko mutilak entrenatzen, eta hilabeteko epea izango dute denboraldia behar den moduan hasteko; izan ere, Maritxu Kajoiko asteburuan hasiko dute liga.

Aurten, ligako berezitasunetako bat izango da Arrasatek eta Bergarako kategoriatan berean jokatuko dutela; nahiz eta mahoneoak igo berriak izan, kontuz ibiltzeko partiduak izango dira: "Komunikabideok garrantzia ematen diezue horrelako partiduei, eta bai, kontuz ibiltzeko partiduak izaten dira. Pentsatzen dut Bergarako gogoz jokatuko dituela derbiok".

> MUSIKA

## Ikasturte berriaren hasiera Goikobaluko kideendako

Goikobalu abesbatzako kideak atzo, eguena, hasi ziren entseguen. Martitzenero (21:00-22:30) eta eguenero (20:00-22:00) elkartuko dira. Gazteen abesbatzak eguaztetenanegino ditu entseguak, 19:00etatik 20:30era, irailaren 8tik aurrera. Eta Goikobalu Txikikoak irailaren 16an hasiko dira, 19:15ean. Goikobalun parte hartzeko izenematea 669 53 22 06 (Juan Antonio Barriocanal) edo 609 46 08 19 (Iñaki Maidagan) telefonotan egin daiteke.

> UDALA

## Ordutegi berezia Kulturaten irailaren 11ra arte

Abuztuko oporren ostean, Kulturateko Bibliotekak ordutegi berezia izango du irailaren 11ra arte. Hain zuzen, aste barruan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da zabalik. Zapatuetan ez dute zabalduko. Irailaren 13n ohiko ordutegiari ekingo diote Kulturaten. Gomendiorik onenak *Biblioporrak* gidan jaso dituzte aurten ere.

ZINEMA > 'BI ANAI'

# Mariasun Pagoaga Obaban izan da udan

Aktore arrasatearrak Atxagaren 'Bi anai' eleberrian oinarritutako filmean hartu du parte

Haren bigarren film luzea da; '80 egunean' filmarekin kritika oso onak jaso zituen Pagoagak

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Inongo mapatan agertzen ez den Euskal Herriko herri txiki batean igaro du uda Mariasun Pagoagak. Bernardo Atxaga idazlearen irudimenak sortutakoa da Obaba eta bertan kokatzen dira haren istorioetako asko. Bada, *Bi anai* eleberrian oinarritutako filmean hartu du parte aktore arrasatearrak. Udan egin dute filmaketa, Iturenen, Artikutzan eta Zubietan nagusiki. Uztailearen bukaeran amaitu zuten lana eta Pagoaga pozik dago: "Eleberrian azaltzen ez den rol txiki bat daukat: emakume zaharrena. Hain zuzen ere, erretorea eta ni

neu egiten gara kargu umezurtz geratu diren bi anai horietaz. Bata gaixoa da, eta anaiak asko babesten du. Elkarrizketa gutxi drama dela esango nuke eta nik uste dut lan polita aterako dela".

**BIGARREN FILMA**

Imanol Rayo nafarrak zuzendutakoa Mariasun Pagoagaren bigarren film da. Aurretik, kritika oso onak jaso zituen *80 egunean* filmean egindako lanagatik. "Aurreko filmean ibilitako kamera, teknikari eta langile asko elkartu gara berriro eta filmaketa gozamen hutsa izan da. Rayo



Mariasun Pagoaga *80 egunean* filmean.

oso gaztea da, lehen filma du haxe, baina aspalditik zeukan *Bi anai* filmatzeko asmoa eta duela hiru urte hasi zen kanpoaldeaketa filmatzen. Oso ausarta izan da istorio hau zinemara erosten".

Filmaren estreinaldia 2011n izango da. Bien bitartean, *80 egunean* filmean Mariasun Pagoagak egiten duen lanarekin gozatzeko aukera duzue. Hain zuzen ere hurrengo egubakoitzean, hila-

ren 10ean, Monterronen emango dute, 22:30ean.

Jose Mari Goenaga eta Jon Garañok zuzendutako lanak eta protagonisten lanak ere harrera beroa jaso zuten. "Esaten dutenaren erdia egia bada... ni pozik!", diosku Mariasunek. Aipatutako bi filmak gertatzeko orduan familiaren laguntza ezinbestekoa izan du. Aitziber alaba arte dramatikoa ikasitakoa da eta bereziki hark lagundu dio entseguetan.



Audience bizkaitarrek Kulturaten joko dute datorren domekan, irailaren 12an.

GOIENKARIA

MUSIKA > 'KULTURATE AKUSTIKOA'

# Boat Beam, Audience, Nacho Umbert eta Maderita Kulturaten

Boat Beam hirukote madrildarrak egingo du lehenbiziko emanaldia, datorren egubakoitzean

E.M. > ARRASATE

Aurten ere formatu akustikoko kontzertuak iritsiko dira irailean Kulturatera. Udako Kulturaz Zerbitzuak antolatuta, iraileko bi asteburutan lau kontzertu izango dira.

Lehenbiziko hitzordua hurrengo egubakoitzean, hilaren 10ean, izango da. Boat Beam

talde madrildarrak irekiko du aurtengo zikloa. Hiru emakume osatzen dute taldea; bata australiarra, bestea estatubatuarra eta hirugarrena espainiarra. Hainbat adituren arabera, haien musika The Divine Comedy edo The Cinematic Orchestra taldekoekin pareka daiteke. Liburuak, bidaia eta zinema dira haien

kantuen ardatzak. Audience gernikarrek hilaren 12an joko dute. Dagoeneko lau disko kaleratu dituzte eta zale ugari dituzte gure artean.

**BIGARREN ASTEBURUA**

Aurtengo programazioa osatzeko beste bi emanaldi izango dira: irailaren 17an Nacho Umbert kantariaren txanda izango da eta 18an Maderita izeneko bikotea izango dugu bisitari. Emanaldi guztiak 20:00etan, Kulturaten.

ZINEMA > 'UDA KO ZINEMA'

# 'El pequeño Nicolás' umorezko filma gaur gauean Monterronen

Udako azken aurreko emanaldia 22:30ean Monterronen; sarrera debalde da gaur ere

E.M. > ARRASATE

Udako zinema programazioaren barruan, azken aurreko emanaldia izango da Monterronen gaur, egubakoitzean, ohiko ordutegian, 22:30ean. Eguraldiak lagunduz gero, *El pequeño Nicolás* film frantziarra ikusteko aukera izango da gaur.

Bereziki gaztetzoei zuzendutako filma da *El pequeño Nicolás*, Goscinnyren eta Semperen klasikoan oinarritutakoa. Nicolasek bizimodu lasaia darma... gurasoek beste ume bat izango dutela uste duen arte. Haien arreta pizten saiatuko da, baina gurasoak haserretzea baino ez du lortuko. Valerie Lemerrier, Kad Merad eta Sandrine Kiberlain aktoreak dira komedia horretako protagonista nagusiak.

Datorren egubakoitzean, hilaren 10ean, amaituko da Udako zinema programazioa, 80 egunean filmaren emanaldiarekin.

Monterrongo aire zabaleko emanaldiak debalde dira.

**AMAIAN, IRAILAREN AZKENETAN**

Amaia antzokiko programazioa irailaren 25ean hasiko da. Hain zuzen ere, asteburu horretan *Las vidas posibles de Mr. Nobody* eta *Toy Story 3* filmak emango dituzte. *Toy Story*-ren kasuan, emanaldi bakarra izango da: hilaren 26an, hain zuzen ere, 17:00etan.



Filmeko kartela.

GOIENKARIA

## IKASTAROA

## Berdurak kontserban egiteko ikastaroa

Atal teorikoa eta praktikoa izango ditu; izenematea da hilaren 6a aurretik

M.B. &gt; BERGARA

Berdurak kontserban egiteko doako ikastaroa antolatu du Udalak San Martin jaien bueltan. Bi egunetan egingo da ikastaroa: irailaren 8an atal teorikoa egingo dute, 19:00etan, kultura etxean; irailaren 9an, berriz, atal praktikoa egingo dute, 19:00etan, elkarte gastronomiko baten. Ikastaroaz arduratuko da Jakion enpresa eta euskaraz izango da.

## IZENEMATEA ZABALIK DAGO

Izenematea zabalik dago irailaren 6ko 12:00ak arte, 943 77 91 59 telefono zenbakian.

Gehieneko parte-hartzaile kopurua 20 lagunekoa izango da eta bergararrek lehen-tasuna izango dute. Iaz ikastaroa egin zutenak kanpoan geratuko dira. Gainerakoe-kin zozketa egingo da irailaren 6an.

&gt; KULTURA

## Astlehenean hasiko dira danborradetako entseguak

San Martin jaien atarian gaude, eta, hori horrela, danborradetarako entseguak hastear daude. Hain justu ere, irailaren 6an, 7an, 8an, 9an, 13an eta 14an izango dira danborradetako entseguak, ume zein nagusien danborradetakoak.

Ordutegiari dagokionez, umeen entseguak izango dira 19:00-20:00 ordutegian eta nagusienak, 20:00-21:00 ordutegian, biak ala biak Semi-narioko jolaslekuan.



Ibargarai kalea da gune urdinetako bat. 1. zenbakian hasi eta 12ra arte margotuta daude zoruan marra urdinak.

M.B.

## UDALA &gt; ZERBITZUAK

# Irailaren 20an abiatuko da doako TAO zerbitzua erdiguneko kaleetan

Lau gune urdin ezarri dituzte eta denbora mugatua izango dute, 30 eta 180 minutu artekoak; Udala informazio kanpaina abiaraztear da

MONIKA BELASTEGI &gt; BERGARA

Hilaren 20an sartuko da indarrean zirkulazio eta aparkamenduen ordenamendua -TAO (OTA) laburdurarekin ezagunagoa- erdigunean. Uztaile amaieran ordenantza berria onartu zuen udalbatzak, zoruko marra urdinak dagoeneko marraztuta dituzte eta tiket-makina automatiko-

ak jartzeaz daude. Gertek SA enpresari enkargatu dio Udalak zeregin hori. Hura enkargatuko da makinak jartzeaz, eta zaintza lana egingo duen pertsona ere bere ardurapean egongo da. Zerbitzu horren aurrekontua da 86.000 euro urteko.

Sistema berriaren helburua da autoak erdigunean denbora luzez aparkatuta ez egotea; mugikortasun handiagoa egotea aparkalekuetan, azken batean.

Horretarako, lau gune finkatu dituzte, guztiak doakoak, eta denbora mugatuarekin: Oxirondo plazan (1. gunea) eta Ibargarai parking publikoan (3. gunea), gehienez hiru orduz aparkatuko da; San Martin plazan (2. gunea), 30 minutuz; eta erdiguneko kaleetan (4. gunea), 90 minutuz.

## BEDERATZI TIKET MAKINA

Tiket-makinei dagokionez, bederlatzi jarriko dituzte. Autoaren matrikula zenbakia sartuta aterako da tiketak, eta tiket hori ondo ikusteko moduan jarri beharko da autoan. Gune bakoitzeko tiket-makina programatuta egongo da guneari dagokion denbora-mugarekin. Horren haritik, dagokion denbora tartea gainditzea isunarekin zigor-tuko da. Era berean, zigortu egingo dira, besteak beste, tiketik ez jartzea edo autoan ikusteko moduko tokian ez jartzea.

## GUNE URDINEKO BIZILAGUNAK

Gune urdinean bizi diren bizilagunek txartel berezia izango dute. Horretarako, baina, ezinbesteko baldintzak izango dira ibilgai-

## LABUR

## ZONA URDINA

> **Lau gunetan banatu dute:** lehen gunea Oxirondo plazari dagokio; bigarrena, San Martin plazari; hirugarrena, Ibargarai parking publikoari; eta laugarrena, Ibargarai (1etik 12. zenbakira), Zurradero, Telesforo Aranzadi, Joan XXIII, Fraiskozuri, Irizar eta Herri Lagunak kaleei.

## ORDUTEGIA

> **1. eta 3. guneak:** Oxirondo plazan eta Ibargarai parkingean TAO zerbitzua egongo da asteleheneetik egubakoitzera, 09:00-13:00 eta 16:30-20:00 ordutegian eta zapatuetan, 09:00-13:30. Aparkatu ahal izango da gehienez hiru orduz.

> **2. gunea:** San Martin plazako ordutegia izango da asteleheneetik egubakoitzera, 09:00-13:30 eta 16:30-20:00, gehienez 30 minutuz.

> **4. gunea:** Erdiguneko kaleen ordutegia izango da asteleheneetik egubakoitzera, 09:00-13:00 eta 16:30-20:00 eta zapatuetan, 09:00-13:30era, gehienez, 90 minutuz.

> **Debekua:** Esandako denborak igaro eta gero, autoa lekuz aldatu beharko da eta ezingo da aparkatu inongo gunetan hurrengo hiru orduetan. San Martin plazaren kasuan (2. gunea), denbora igaro eta gero, ezingo da gune berera bueltatu hurrengo hiru orduetan, baina aparkatu ahal izango da beste hiruretako baten.

lua zona urdinaren baitako kale baten erroldatuta egotea eta jabea ere ibilgailuaren helbide berean erroldatuta egotea.

Txartel bereizgarri horrekin aparkatu ahal izango da 4. gunean, denbora mugarik gabe, betiere, txartela ikusgai izanda. Gainerako gune urdinetan beste erabiltzaileentzat ezarritakoa bete beharko dute.

## INFORMAZIO KANPAINA

Agurne Barruso alkateak adierazi duenez, TAO zerbitzu berriaren gainerako informazio kanpaina egitekoak dira eta laster ekingo diote. Horren harira, gehitu du gune urdinean bizi diren herritarrek zuzenean informatzeko batzarra ere deituko dutela kanpainaren baitan.

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

## EUXEBIO II

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

## alga 20. urteurrena

lurrindegia



Ibargarai 10  
BERGARA  
943 76 00 85

# %20ko deskontua + oparia\*

\*Irailaren zehar, edozein produktu erositara

## CAMACHO

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09





# SHOTOKAN KARATE-DO



## KARATE, KIROLA ETA ZERBAIT GEHIAGO

Karatea kirolik berebiziko eta osoenetariko da, beste kirol asko baino onuragarriagoa baita alde fisiologikotik begiratu.



**Umeek atarramentu handi**agoa lor dezakete ikasketetan eta gizarte harremanetan.



**Karatea kirol lehiakor**ra dela onarturik, geure ikasleak lehiatzera ere bultzatzen ditugu pixkanaka, betiere era positiboan eta motibazioa handitzeko asmotan.




**Kirolariek**, banaka edo taldean, erabat kontziente izan behar dute euren lorpenez eta euren helburuez



**Lagunartekotasuna**, adeitasuna eta sexuen arteko berdintasunean erreparatuz .



**IKASLEEN GARAPENA NEURTZEKO PROGRAMA BAT DUGU ABIAN**  
Programa horrekin ikasle bakoitzaren egoera fisikoa eta garapena neurtuko dugu. Bakoitzak ikus dezan ze aukera dituen.



### IRAKASLEAK

Irakasle aditu eta gaituak ditugu edozein talderekin jarduteko. Guztiak tituludunak: Euskal Kirol Eskola, Euskal Karate Federazioa eta Kirol-kontseilu Gorena.



**Konfiantza eta segurtasuna** hartzen dira eta osasuna eta sasoi ona.



**Kontzentrazioa lantzen da**, Errespetua eta gizatasuna bultzatzen dira,

Karate eskolak **IRAILAREN 8an** hasiko dira:

**Umeak:** 1. txanda, 17:30etik 18:30era      **Nagusiak:** 19:30etik 20:30era  
2. txanda, 18:30etik 19:30era

Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora edo zatoz Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako gimnasia orduetan.

JENDARTEA &gt; GERTAKARIAK

## Gerra garaiko obusa topatu dute abuztuan errekan

Ozaetako zubiaren azpian aurkitu zuen herritar batek 50-60 kiloko leherkaria

MONIKA BELASTEGI &gt; BERGARA

Abuztuaren 20an gerra garaiko obusa aurkitu zuen Ozaetako zubiaren azpian, erreka uretan murgilduta, herritar batek. Herritarrak obusa ikusi eta udaltzainei deitu zien berehala.

Udaltzainak erreka jaitsi eta gizonak ikusitakoa gerra

garaiko obusa zela egiaztatu zuten; izan ere, ur azpian egonda ez zen erraz antzematen. Hori horrela, Ertzaintzaren artezkariari abisatu zieten.

Artezkariak ingurune guttia sokaz hesi eta gero, 50-60 kiloko obusa errekatik atera eta Arantzazuko harrobi batera eroan zuten leherraraztera.

### 600 METRO

Udaltzaingoko iturrien esanetan, Ertzaintzako artezkariak obusa leherrarazi zutenenean, leherkariaren zatiak 600 metro-raino iritsi ziren.



Leherkaria, uretatik atera eta gero.

UDALTAINGOIA

## Ozaetako zubia itxi egin dute ibilgailuendako

Ozaetako zubia itxi egin dute ibilgailuendako. Oinezkoak, aldiz, igaro daitezke, haiendako pasabi-dea egokitu dute eta. Zubia itxi dute Ozaetan egin dituzten etxe berrien saneamendu lanak direla eta. Hain justu, kolektorearen hodiak lur-azpian sartzeko lanak, besteak beste. Abuztuaren 30ean itxi zuten eta San Martinetarako irekiko dute. Bien bitartean, urbanoa ez da geratuko Zubiaurren eta Martokon, Ozaetan baizik.



MONIKA BELASTEGI

## oharrak

### HEZKUNTZA

#### > Irailaren 6an hasiko dute ikasturtea Aranzadi ikastolan

Haur Hezkuntzako ikasleen kasuan, 3 urtekoak 10:00etan hasiko dira eta 4 eta 5 urtekoak, 09:30ean. Lehen Hezkuntzakoak 09:00etan hasiko dira. DBHko lehen mailakoak 10:30ean hasiko dira eta 2. 3. eta 4. mailakoak, 11:00etan. Batxilergoko ikasleek, berriz, 11:00etan ekingo diote ikasturteari. Bestalde, Seminarioko obrenetatik ikastolarako sarrera nagusia

itxita dagoenez, Lehen Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleak patiotik sartuko dira.

### KINTADA

#### > 1942an jaiotakoek (63ko kintoe) bazkaria egingo dute

Irailaren 25ean egingo dute, Azpeitxin -gizon zein emakume- 14:30ean. Izena ematerakoan 20 euro aurreratu behar dira Edel oihal-dendan edo Azpeitxi jatetxean, hilaren 21a aurretik. Mugaegunetik kanpo ez da inor onartuko.

### HEZKUNTZA

#### > Musika Eskolan irailaren 7an hasiko dute ikasturtea

Ikasturteko zerrendak sarrerako taulan daude ikusgai irailaren 6ra arte, 09:00-13:00 orduetartean, eta irailaren 7tik aurrera arratsaldean egongo dira ikusgai. Bestalde, instrumentu-eskoletarako ordutegia hartzeko irailaren 6an joan beharko dute ikasleek eskolara. Bada, Musika Eskolatik jakinarazi dute irailaren 20ra arte ize-ena emateko aukera dagoela.

# ariznoa elkarte

## 2010-2011 KURTSO HASIERA

**Alebinak, infantilak, kadeteak eta gazteak (5. mailatik gorakoak):**  
irailaren 3an, 18:00etan, Labegaraietan

**Aurrebenjaminak eta benjaminak (5 urtetik 4. mailara artekoak):**  
irailaren 21ean, 17:30ean, Ipintzan

**Antzuolako taldeak:**  
irailaren 22an, 14:30ean, frontoian



**Matrikula berrientzako bilera informatiboa**  
irailaren 14an, 17:30ean, Ipintza DBHko anfiteatroan

**Harremanetarako:** ariznoa\_ge@hotmail.com | 600 22 40 49



> ERAKUSKETA  
**Carlos Gartzia  
Anguloren lanak  
erakusgai daude**

Carlos Gartzia (Bilbo, 1943) margolariaren *Barne erretratu*a pintura erakusketa ikusgai dago egunotan Aroztegi aretoan.

Erakusketa hori asteko zazpi egunetan dago ikusgai. Aste barruan 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.

Hamahiru urte zituenean margotzen hasi zen bilbotar horren eskutik, abstrakzioa, sinboloak eta kolorea ondo nahasten dituen lanak ikusiko dituzue, hilaren 12ra arte.

> PINTURA LEHIAKETA  
**Ageriko margo  
lehiaketa hilaren  
12an, domeka**

Bergarako artisten elkarteak (Beart) antolatuta, ageriko pintura lehiaketaren 37. edizioa egingo dute hilaren 12an, domeka, Bergarako udaletxe-ko arkupeetan.

Margolariendako hitzordua 09:00etan izango da, eta, goiza margolanak egiteko erabili ostean, sari banaketa egunean bertan egingo dute, 14:30ean, udaletxean. Ondoren, aurkeztutako lanak erakusketa zabalduko dute, eta lanak irailaren 13tik 25era arte egongo dira ikusgai -bi egunak barne- Bergarako udaletxean.

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# "Partidu guztietan irabazteko aukera izatea nahi dugu"

Jose txo Muniategiren mutilak Euskadiko txapelketara itzuli dira hiru urteren ostean

Oraingo astean hasi dira entrenatzen, eta bihar Ordizian dute lagunartekoa



Corazonistas taldearen kontrako partiduan, aurtun, Bergarako jokalaria jaurtiketa egiteko gertu.

GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Territorial mailan hiru denboraldi egin ostean igo da Bergara, berriro, Euskadiko Txapelketara. Jose txo Muniategik jarraituko du Bergararen gidaritzan, eta kategoria horretan egin zuten azken denboraldian ikasitakoak -2006-2007 denboraldia- batutako esperientzia baliagarria izango dela uste du: "Urte txarra izan zen, gogorra. Hogeita sei partidutatik lauzpabost irabazi genituen, eta jendeak haserre amaitu zuen urtea. Partiduetara ez ginen irabazteko ze aukera genituen pentsatzen joaten, zenbat gol egingo zizkiguten zen gure buruari egi-ten genion galdera".

**KANTXA GUZTIETAN LEHIARA**

Aurtengoa urte erabat ezberdina izango dela uste du: "Edozein partidu irabazteko gauza izan

nahi dugu, nahiz eta badakigun batzuetan aukera txikiak izango ditugula. Gauzak ondo egiten baditugu sailkapenaren erdialdean egoteko moduko taldea dugu,

baina horretarako defentsan gehiago hobetu beharko dugu, gogor jokatu, eta ea erasoan erreferente ditugun jokalariek lesio-rik ez duten".

**KATEGORIAN FINKATU**

Talde gaztea dute: "Eta hori luxua da, 24 urte dituzten jokalaririk hauek bizpahiru urte barru oso maila ona emango dutelako".

**INPRIMATEGIA  
GARBIL  
PAPERDENDA**

☎ 943 76 23 28  
☎ 943 76 54 87  
✉ [imprentagarbil@euskalnet.net](mailto:imprentagarbil@euskalnet.net)  
✉ Artzamendi, 4  
20570 Bergara Gipuzkoa

**%10eko deskontua  
iragarki hau aurkeztuz gero**

**GOIERRI  
Autogidarien Eskola**

Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu  
Informa zaituz

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

**GURIA  
Taberna**

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**Larranaga**

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55  
**BERGARA**



Chateaubernardetik jasotako materiala kaxatan sartuta.

HERMANSOLOÑA

ELKARTASUNA &gt; LAGUNTZA

## Chateaubernardetik materiala ekarri zuten Argentinarako

Arropa, zapatak eta jostailuak ekarri zituzten uztailean herrira egindako bisitan

M.B. &gt; OÑATI

Chateaubernardeko ordezkari-za batek Argentinara bidaltzeko material sorta ekarri zuen uztailean. Hermansoloñako ordezkariak gustura jaso zuten Oñatirekin senidetuta dagoen herriko ordezkarien laguntza. Arropa, jostailuak, zapatak eta eskolako materiala ekarri zituzten, besteak beste.

Horietako gauza batzuk irailan Argentinara abiaraziko duten edukiontzian bidaliko dituzte. 28. edukiontzia iraila-

ren 15ean irtengo da. Bestalde, 27. edukiontzia Argentinako aduanan dagoela esan digute.

**LOKALEAN EDO EDUKIONTZIAN**  
Bitartean, Hermansoloñako kideek lanean jarraitzen dute. Bidebarrieta kaleko lokalean materiala jasotzen dihardute, eguztenetan eta eguenetan, 18:00etatik 20:00etara. Ordutegi horretatik kanpo doazenek lokalaren kanpo aldean dagoen edukiontzi zurian utz ditzakete poltsak.

&gt; POLITIKA

### Lourdes Idoiaga izango da EAJren 2011ko udal hauteskundeetarako zerrenda-buru

Oñatiko EAJk bihar aurkeztuko du 2011ko udal hauteskundeetarako zerrenda batzokian, 12:00etan. Egungo alkate Lourdes Idoiaga izango da zerrenda-buru. Zinegotzi karguetarako hautagaiak ere aurkeztuko dituzte jendaurrean. Bestalde, biharko ekitaldia aprobetxatuko dute EAJko alkate izan direnak omentzeko; hain justu ere, Juan Zelaia, Eli Galdos, Angel Iturbe, Andoni Gartzia eta Lourdes Idoiaga.

Gainera, ekitaldi politikoa itxeko, Gipuzku Buru Batzarreko presidente Joseba Egibarrek hitza hartuko du. Era berean, Lourdes Idoiaga ekitaldian daudenei zuzenduko zaie.

### oharrak

DEIALDIA

> **Odol-ateratzea egingo dute irailaren 10ean**

Oporren ondorengo lehen odol-ateratzea hilaren 10ean egingo dute Oñatiko odol-emai-le taldekoek. 18:00etatik 20:00etara egongo dira mediku eta erizainak Txantxiku ikastolan. Hurrengo ateratzeak egingo dituzte urriaren 8an, azaroaren 12an eta abenduaren 10ean.

BIRZIKLAPENA

> **Etxeo olio birritan batuko dute irailan**

Etxean batutako olio birziklatzeko furgoneta plazako aparkalekuan egongo da hilaren 11n eta 25ean, 09:00etatik 13:00etara. Besteak beste, etxe-ko olio erabilia eta beste hondakin arriskutsuak batuko dituzte egun horietan (pilak, fluoreszenteak, erradiografiak...).

TURISMOA &gt; INFORMAZIOA

# Turismo gida batek dio Oñati dela "Euskadiren alderik ilunena ezagutzeko leku onena"

Hamar bat bikote hurbildu dira turismo bulegora Lonely Planeten erreferentziak aintzat hartuta

"Gidak dioena gezurra da eta eskatu dugu Oñatiri buruzko testua aldatzea", dio alkateak

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

"Lonely Planet turismo gidak Oñatiri buruzko erreferentzia zatarrak egiten ditu 2009ko *Spain* liburuxkan", esan digu Lourdes Idoiaga alkateak (ikus beheko irudia). Besteak beste, dio "Euskadiren alderik ilunena ikusteko Oñati leku aproposena" dela, eta "herriko paretan ia zentimetro koadro bakoitza independentziaren aldeko grafitiz estalita" dagoela eta "pauso bakoitzean torturak salatzen eta euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatzeko horma-irudiak" daudela.

MONUMENTUAK ETA HISTORIA

Udako kanpainaren barruan dozena bat bikote hurbildu dira turismo bulegora grafitien eta horma-irudien gaineko informazioa eskatuz. Harrituta geratu ziren. "Uztail bukaeran jakin nuen Lonely Planetek egiten zuen aipamenaren berri. Amorrua eman zigun, astakirten baten iritzia besterik ez delako eta gezurra delako", dio alkateak.

Berehala Oñatiri buruzko aipamena aldatzeko eskaera egin zuen Udalak. "Testua aldatzeko agindu diegu. Baina ez dakigu gure eskaera aintzat hartuko duten edo ez", esan digu alkateak.

Bestalde, udal arduradunek "anekdota" moduan gogoratu gura dute pasarte hau. "Oñatira datozen turistak monumentuak eta historia ezagutzera datoz. Batzuk, gainera, aurreiritzi askorekin etortzen dira, eta gero harritu egiten dira. Horiek dira gehiengoak. Turismo politikoaren bila etorri direnak anekdota bat dira gure-tako", dio alkateak.

EGILEETAKO BAT

2009an argitaratu zuten *Spain* gida 10 lagunen artean idatzi

ESANAK

**"Amorrua eman zigun, astakirten baten iritzia besterik ez delako"**

Lourdes Idoiaga &gt; Alkatea

**"Askorendako Oñati 'Toledo txikia' zela idatzi nuen Lonely Planeteko gidan"**

Nancy Frey &gt; Egileetako bat



Gidaren azala.

GOIENKARIA

zuten. Horietako bat da Nancy Frey. Hura ere harrituta dago gidan agertzen den informazioarekin. "Nik idatzi nuena izan zen askok *Toledo txikia* bezala ezagutzen dutela Oñati, eta monumentu asko dituela. Idatzi nuen merezi zuela Oñati ezagutzera Bilbo alderako autobusa hartu aurretik", esan digu Freyk.

Hark idatzitako testua, baina, aldatu egin zuten 2009ko edizioan. "Guk idatzi genuena berriro egin zuten iaz, eta ez dakit zer aldatu duten. Ez daukat 2009ko gida", dio Freyk.

Geoplaneta enpresa da Lonely Planet gidak Espainian banatzen dituen. Eurekin kontaktuak jarri gara, eta ez digute azalpenik eman. Esan digute *Spain* gida ingelesez publikatu dutela eta eurek ez dutela itzulpenik egin.

BASQUE COUNTRY,  
NAVARRA & LA RIOJA

Sebastián (€1.55, 45 minutes), and occasionally for Hendaye, across the border in France. In summer you can catch a boat to Hendaye (€1.50, 10 minutes).

### SOUTH OF SAN SEBASTIÁN Museo Chillida Leku

This open-air museum (☎ 943 33 60 06; www.museochillidaleku.com; adult/child/student €8.50/free/6.50; 🕒 10.30am-8pm Mon-Sat, 10.30am-3pm Sun Jul & Aug, 10.30am-3pm Wed-Mon Sep-Jun) is the most engaging museum in rural Basque Country. Amid the beech, oak and magnolia trees, you'll find 40 sculptures of granite and iron created by the renowned Basque sculptor Eduardo Chillida. Many more of Chillida's works appear inside the renovated 16th-century farmhouse.

To get here, take the G2 bus (€1.25) for Hernani from Calle de Okendo in San Sebastián and get off at Zabalaga. If you're driving, take the A1 south from San Sebastián. After 7km, take the turn-off southwest for Hernani (GI3132). The museum is 600m along on your left.

OÑATI  
pop10,500

If your Basque experiences have so far been limited to a crawl around some San Sebastián bars and Bilbao galleries then you might be wondering what this ETA fuss is all about. If so, the small town of Oñati is a good place to experience the darker side of Euskadi.

On first impressions the town, set in a bowl in the surrounding mountains, is a charmer, but walk down its streets during a grey and drizzly lunchtime when all is shut up tight and you'll quickly see another side to the place. Almost every square centimetre of wall space is covered in Nationalist graffiti calling for independence. With every passing step you'll be confronted with a poster graphically revealing Spanish state torture or calling for Basque prisoners to be returned to the Basque Country. Against such a backdrop it's hard to imagine how real, lasting peace can be achieved.

Away from politics there are further reasons for visiting Oñati, the main one being

Spain gidan, Oñatiri buruzko erreferentzia.

GOIENKARIA

> MUSIKA

**Drakes taldeak lehen diskoa aurkeztuko du gaur Ibarondon**

Drakes musika taldeak *Si nos dejan, no keremos* diskoa aurkeztuko du gaur, Ibarondo liburu dendan 18:30ean. Ondoren kontzertua egingo dute Atzeko kalen Show Business taldearekin batera.

> JAIK

**Bi danborradetako entseguak asteon hasi dituzte**

Jaietako bi danborradetako entseguak asteon hasi dituzte. Bietakodanbor-joleek martitzenetan eta eguenetan entseatuko dute Errekalden, eta dantzariak astelehenetan eta eguaztenetan.

> DEIALDIA

**Ganbarako Eskolan izenematea zabalik hilaren 7ra arte**

Ganbara Kantu Eskolako izenematea zabalik dute hilaren 7ra arte. Interesatuak Errekaldeko eskola txikian eman dezakete izena 17:00etatik 20:00etara.

> DEIALDIA

**Musika eskolan matrikula egiteko epea zabalik dago**

Jose de Azpiau musika eskolako izenematea epea zabalik dago hilaren 15era arte, 943 783174 telefonoan edo [adiazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com](mailto:adiazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com) helbidean.

> UDA

**Usakon sorosle zerbitzua egongo da hilaren 12ra arte**

Usako aisialdi gunean sorosle zerbitzua egongo da hilaren 12ra arte. Arratsaldean egongo da lanean; hain justu ere, 15:00etatik 20:00etara arte, astelehenetik domekara.



Herritarrak hasi dira Lazarragako ezkerreko bidegorria erabiltzen: oinez, bizikletaz edo atsedean guneetan eseriz. MIREIA BIKUÑA

**AZPIEGITURAK > BIDEGORRI SAREA**

# Atsedenerako gune zabalak Lazarragako bidegorrian

Hiru parterre egokitu dituzte eta horietan eserlekuak jarri dituzte

Bidegorri sarearen hurrengo zatia Euskadi etorbidean egingo dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Abuztu erdialdean zabaldu zuten Lazarraga kaleko ezkerreko espaloian egokitu duten bidegorria. Bizikletendako bidea egokitzeaz gain, berdegunea berrantolatu egin dute. Hori horrela, Lazarraga kaleko bi bidegorriak bukatuta daude: Bidaurreta aldeko espaloioak Legazpi alderako noranzkoa du, eta orain bukatu berri dutenak, Euskadi etorbiderako noranzkoa.

HIRU PARTERRE

Lazarragako bidegorrian atsedenerako gune zabalak egokitu dituzte. Lanak hasi aurretik zeuden ezki gehienak mantendu dituzte, gerizpea egin dezaten, eta inguruan hiru parterre egokitu dituzte. Gainera, horietan, eserlekuak jarri dituzte: bizkarralde bakoak berdegunearen aurrealdean, eta bizkarraldedunak parterre barruan. Hain zuzen ere, gerizpe gehien dagoen lekuan.

Bestalde, berdegunearen eta bidegorriaren artean bi metro pasako espaloia egin dute oinezkoendako. Gainera, bidegorria egokitzeko lanak aprobetxatuz, Lazarragako argiteria berritu egin dute, eta eraginkortasun energetiko handiagoko farolak ipini dituzte. Iturria ere jarri dute.

KEZKA BATZUK

Herritarrak hasi dira bidegorria eta atsedean guneak erabiltzen. Erabilerarekin sortu dira lehen kezka: bizkarralde bako eserlekuak daudela, eta zikinak gainera; berdegune gainean dauden eserlekuetara igotzeko bi eskaile-maila igo behar direla; eskailera-mailtan barandarik ez dagoela...

Lourdes Idoiaga alkateak ere jaso ditu hainbat keza. "Herritar batek esan zidan farolak ipini ordez, zuhaitzak moztu beharko genituela. Baina, hain justu ere, toki ederra da gerizpe handia duela", esan digu.

Bidegorria atzeko aldean, berdegunearen atzean jarri behar zela uste duenik ere badago. "Errepidearen ondoan berdegunea jarri behar genuela esan zidan emakume batek, bidegorria paretaren kontra utzita. Kasu horretan, baina, bero handiena egiten duen orduetan atsedean gunean eguzkitan egongo lirateke", dio Idoiagak.

EUSKADI ETORBIDEKO ZATIA

Lazarragako bidegorria bukatuta, hurrengo lanak Euskadi etorbidean egingo dituzte urtea bukatu aurretik. Bidegorria errepidearen erdi-erdian egingo dute. Hala, autoendako bi noranzkoak estuagoak izango dira, eta abiadura moteldu egin beharko dute 30 kilometro ordura.

ERABILTZAILEEK ESANDAKOAK



Jesus Bengoa

"Ederra geratu da, baina batzuek ez dute bidegorria errespetatzen. Atsedean guneei dagokionean, ondo. Gerizpe handia dugu".



Carlos Odriozola

"Gustura gaude gerizpean. Berdegune gainean dauden eserlekuetara igotzeko arazo bat baino gehiago izango dute askok".



Braulio Zubia eta Isabel Zubia

"Ondo, pertsona nagusiendako gune polita egokitu dute. Eserlekuak erosoak dira, gerizpe handia dugu, eta iturria ere bai. Kexa moduan esango genuke eserleku batzuk bizkarralde bakoak direla, eta bidegorria estu samarra dela".



**40**  
urte  
elkarrekin  
1970-2010



Euskadi etorbidea 3 - Oñati  
943 71 89 49 - 943 78 36 99



Erreforma integralak

gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko

Berezaio auzoa - Oñati  
943 78 20 08

INGURUMENA &gt; BIDEGORRIA

# Areantzako bidegurutzeta eta Goroeta arteko bidea gertu

Zati nagusiak 364 metro luze eta lau metro zabal ditu; ezinduendako egokituta dago

Aulkiak eta argibide panelak jarriko dituzte orain; gero erabilgarri egongo da

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

Bukatu dute Urkulu urtegiaren bueltan egin gura duten bidegorri berriaren hirugarren zatia. Areantza auzoko bidegurutzetik Goroeta auzoraino doan zatia da eta ezintasunak dituztenendako -oinez ibiltzeko zein ikusteko- egokituta dago. Aulkiak eta argibide panelak jarritakoan erabilzailendako gertu egongo da.



Urkulu urtegiaren egin duten ezinduendako egokitutako bidegorri berria, erabilzaileren zain.

M.A.

OINEZKOAK ERREPIDEK ATERA

Urkulu inguruan bidegorria egitearen arrazoi nagusia oinezkoak errepidetik ateratzea da. Izan ere, Areantza eta Goroeta auzotako bizilagunak autoarekin pasatu behar dira urtegi inguruko bidetik, oinezkoak ibiltzen diren bide horretatik: "Aste buketan batez ere jende asko egoten da Urkulun eta auzotarrak kexa ziren zailtasunak izaten dituztelako autoarekin pasatzeko. Horri irtenbidea eman gura izan diogu", azaldu du Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziak.

Hiru zati izango ditu bidegorri horrek: Aozaratza auzotik urtegi sarreraraino; sarrera horretatik Areantzako bidegurutzeraino; eta bidegurutzeta horretatik Goroeta auzoraino. Ezintasunak dituztenendako egokitua egongo da eta bigarren zatia ere aurten egitea da asmoa.

EGOKITUTAKO BIDEA

Bukatuta dagoen bidegorria urtegiari zati bat kenduta egin dute

eta 513 metro luze ditu. Zati nagusia 364 metrokoa da eta lau metroko zabaleraduna. Komunitaria igotzeko hiru metro zabal dituen arrapala bikoitza egin dute, gurpildun aulkian doazenak ondo igotzeko eta bideak gehenez %8ko aldapa du. Mikroaglomeratuzko lurzorua da eta gorri ilun kolorekoa. Bi baranda jarri dute bide gurtian: bata itsuendako gidalguna eta bestea gurpildun aulkian dabilzanendako. Gainera, itsuen bastoiari lagun egiteko beste gida bat jarri dute baranden azpian.

ESANAK

**"Auzotarrek zailtasunak dituzte urtegi inguruan autoarekin pasatzeko, eta irtenbidea eman gura izan diogu horri"**

Joxe Anjel Antxia &gt; Zinegotzia

Bide horretan hainbat aulki jarriko dituzte eta mahairen bat ere egon daiteke. Egunotan erabakiko dute horiek non jarri. Argibide panelak ere egongo dira, Urkuluko landaretzaren eta hegaztien berri ematen duten panelak. Horiek ere itsuendako egokituak daude.

Lanok 243.000 euroko aurrekontua izan dute eta Sasoi Eraikuntzak enpresako langileek egin dituzte. Aldundiaren eskutik hainbat dirulaguntza jaso ditu Udalak lan horiendako.

DATUA

243.000

EURO

Bidegorri egokituaren hirugarren zatia aurrekontua 243.000 euro izan da. Aldundiaren eskutik hainbat dirulaguntza jaso ditu Udalak lan horiendako.

BIGARRIN ZATIA ERE AURTEN

Udal arduradunek ez dute erabaki oraindik noiz zabalduko duten bidegorria, seguru asko aulkiak eta panelak jarritakoan. Gainera, oraingoz ez dute egingo ekitaldi ofizialik: "Bigarren zatiko lanak egindakoan inauguratzea bi zatiok egokiagoa da", argitu du Inaxio Garro alkateak.

Udalaren asmoa da aurten bertan egitea bigarren zatiko lanok, hau da, urtegi sarrerako bidegurutzetik Areantzako bidegurutzerara artekoak. Proiektua Aldundira bidalita daukate eta onartuz gero autoendako bidari zati bat kendu eta urtegiari beste zati bat kenduta egingo dute bidea, urtegi aldetik hain zuzen. 355 metro izango ditu horrek eta Urkuluri buelta ematen dion bidegorriarekin lotuko dute.

Lehen zatiko lanek, ostera, ez dute datarik. Aozaratza auzotik urtegi bidegurutzeraino joango den bidea egiteko jabetza pribatuko lur batzuk behar ditu Udalak eta ez dago ezer adostuta.

ZABORRA

## Hondakin organikoa behar bezala jasotzeko deia

Poltsa berezia behar dela gogorarazi dute, eta edukiontzi marroi barruan sartu

M.A. &gt; ARETXABALETA

Gero eta herritar gehiagok jasotzen dituzten hondakin organikoak gurean, baina Ingurumen Saileko arduradunek jakinarazi dute hondakin horiek jasotzeko betebeharrak batzuk daudela eta guztiak ez dituztela betetzen. Hala, dendetako plastikozko poltsetan jasota agertu izan dira hondakinok, eta edukiontzien gainean utzita ere bai, barruan sartu barik.

Betebeharrak ondo betetzeko eskatu dute Ingurumen Saileko arduradunok, "bestela ez du-eta ezertarako balio". Hona: horretarako egokitutako poltsa berezietan jaso gai organikoa eta giltzarekin zabaltzen den edukiontzi marroi barruan sartu.

POLTSAK, GILTZA ETA SASKIA

Edozein herritarrek birzikla dezake zabor organikoa gurean, borondatea izanez gero. Arkupe kultura etxeko bigarren solairuan dituzte herritarren eskura horretarako behar diren poltsa bereziak, saskitxoak eta giltza.



Edukiontzi marroia.


M.A.

**BENGOA  
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

  
**MAPFRE**



**FONDMAPFRE  
BURTSA G VIII**

**INBERTITU BURTSAN, DIRUA  
ARRISKUAN JARRI BARIK**

- %100eko GARANTIA
- %125eko ERRENTAGARRITASUNA

Errekabarren 3 ARETXABALETA

Tel.: 943 77 11 76 / Faxe: 943 71 17 34 Posta-e: [angelzubi@euskalnet.net](mailto:angelzubi@euskalnet.net)

ETXEBIZITZAK > LANAK

## Txarapeako etxebizitzan lanak eten ditu Bruesak

Lanekin irail bukaeran jarraituko dutela esan dio alkateari Bruesako ordezkari batek

M.A. > ARETXABALETA

Inaxio Garro alkateak jakinarazi digu Deba ibaiaren beste aldean Bruesa Eraikuntzak egiten ari den etxebizitzan obra etenda dagoela gaur egun. Hala ere, Bruesako ordezkari batekin elkartu da alkatea, hauxe esan diote: "Etxebizitzan martxarekin irailaren amaieran jarraituko dute, eta ez dago arriskurik obrak bertan behera gelditzeko".

Txarapea ibilbidean Bruesa egiten dabilen etxe tasatuen eta librean lanak bertan behera utzi dituztela zabaldu da herrian uztailetik hona, eta jabeen egonezina sortu. Azken egunotan udaletxera galdezka joan diren herritarrak lasaitu gura ditu Inaxio Garro alkateak. Eta Bruesaren arabera, "gehienez ere hi hilabete atzera daitezke obrak".

Gaur, egubakoitza, bilera egingo dute Aretxabaleako Udaleko ordezkariak eta Bruesako obraren nondik norakoak argitzeko, eta gaurtik aurrerako urratsak zeintzuk izango diren ezagutzeko.

KULTURA > ARKUPEKO EGITARAUA

## Bost berbaldi daude, tartean osasun kontuen gainekoak

Urbaltz elkarteak gonbidatuta Floren Aoiz eta Martin Garitano etorriko dira

M.A. > ARETXABALETA

Iraileko egitaraua gertu dauka Kultura Sailak eta gaur bertan zabalduko du erakusketa aretoa. Pintura ikastaroko ikasle lanak izango dira ikusgai. Bestalde, udazkeneko ikastaroetan izena emateko epea zabaldu dute. Hona ikastaroak: pintura, bainika, eskulanak eta zeramika.

Iraileko protagonistak, baina, berbaldiak dira, bost antolatutako dituzte-eta. Batetik, osasun kontuak landuko dituzten berbaldiak egongo dira hiru egueztan (19:00): hilaren 9an, haurzaren gizentasunaren gainean egingo du berba Pediatria zerbitzuko Daniel Jimenez medikuak; hilaren 16an, Debagoieneko ospitale berria aurkeztuko die aretxabaletarrei Jose Luis Angulo gerenteak; eta hilaren 23an, etxez etxeko ospitalizazio zerbitzuaren buru Julio Sandoval medikuak etxerik

etxeko ospitalizazioaren gainean egingo du berba.

Gainerako bi berbaldiak Urbaltz elkarteak antolatu ditu: hilaren 13an, astelehena, *Aretxabaleta irudietan, 25 urte hauetan eta Munduko irudiak* ikus-entzunezkoak erakutsiko ditu Joseba Egibar argazkilari aretxabaletarrak; eta hilaren 15ean, eguaztena, Floren Aoiz eta Martin Garitano izango dira *Independentzia atzo, gaur eta bihar* berbaldia eskaintzeko.

ABESBATZAREN DVD AURKEZPENA

Umeendako ikuskizunak ere izango dira bi domekatan: Kidam Magoa hilaren 12an eta Poxpolo eta konpainia 19an. Eta helduek Aitziber Bilbaoren *Chicuelina* antzezlanak izango dute hilaren 11n eta Malas Compañías taldearen *Oilaskoetxea* 24an plazan. Gainera, bertsolariak izango dira hilaren 25ean Herriko Plazan: Sebastian Lizaso, Igor Elortza, Jon Maia, Iratxe Ibarra eta Estitxu Arozena.

Eta aurkezpen ekitaldi bat ere izango da Arkupen 17an: Aretxabaleta Abesbatzaren 25. urteurrena ospatzeko egindako DVDa, hain zuzen.



Karmelego igartuaren poesia saioa, maiatzean, Oier Sarasua eta Aitor Ziardegi lagun zituela.

LORAMENDI ELKARTEA

JENDARTEA > OROIGARRIA

## Karmelego igartuaren emanaldi bat jarri dute ikusgai Interneten

Abuztuaren 20an hil zen irakasle eta poeta omendu gura du horrela Loramendi elkarteak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Karmelego igartua (Aretxabaleta, 1959) irakasle eta poeta zendu zen abuztuaren 20an. Arrasto handia utzi du hark eta horren lekuko da Loramendi elkarteak kideek egin gura izan dioten omenalditxoak: maiatzean egindako poesia emanaldia jarri dute Interneten.

BI POESIA LIBURU

Kurtzebarri eskolako irakasle izan zen Igartua urte askoan, eta hantxe hasi zen antzerki lanak sortzen ikasleek taularatzeko. 2005ean Bergarako Idazle Esko-

lan izena eman zuen eta orduan txer hasi zen kanpora begira idazten: artikulak *Mugalari, Nabarra* eta beste aldizkari batzuetan eta *www.idazten.com* webgunean. Gainera, Marina Tsvietaieva poeta errusiarraren 12 gutun itzuli zituen gaztelaniatik.

2007ko abenduan Euskaltzaindia-BBK literatura saria jaso zuen *Hitzak orbainetan* poesia lanarekin. Eta bigarren poesia liburua iaz argitaratu zuen: *Denbora enaren hegaletan*. Arkupen egin zuen aurkezpen ekitaldia, abenduan, poesia irakurketare-

kin, eta orduan esan zuen gogoa zuela nola hasi zen poemagintzan, "orain dela ia 40 urte, Loramendi poetari egindako omenaldian, enara beltzarena errezzitza" egokitu zitzaionean.

POESIA EMANALDIA YOUTUBEN

Hainbat poesia irakurketa egin zituen Igartuak eta azkenetakoa Loramendi Elkartearen ibilbide berriaren aurkezpenaren izan zen, maiatzean. Oier Sarasua eta Aitor Ziardegi musikariak lagun zituela ordu laurdeneko saioa eskaini zuen. Orain ikusgai dago saio hori Youtuben. "Karmeleren omenez eta Karmeleri esker ona adierazteko" jarri dute Loramendiko kideek.

### oharrak

IZENEMATEA

> **Kirol jarduerak hastear Zainduz gimnasioan**

Kirol Zerbitzuek gertu dituzte 2010-2011 ikasturteari dagozkion kirol jarduerak -iazko antzeko eskaintza- eta irailaren 13tik aurrera hasiko dira ematen. Jarduera horien nondik norakoak ezagutzeko eta izena emateko Zainduz gimnasiora jo behar dute

interesatuek: 943 71 26 28 edo [kirola@aretxabaleta.net](mailto:kirola@aretxabaleta.net).

IKASTAROAK

> **Goizez dago zabalik KZgunea**

Iraileko eskaintza gertu daukate Markole auzoko KZgunean (09:00-13:00): ikastaroak, IT txartela eskuratzeko azterketak eta Izenpe txartelaren gaineko argibideak. Aurrez izena ematea

komeni da: 943 25 23 51 eta [tutor.aretxabaleta@kzgunea.net](mailto:tutor.aretxabaleta@kzgunea.net).

IZENEMATEA

> **Arkupen antolatutako ikastarotarako izenematea zabalik**

Ikasturte berria hastear dago eta pintura, bainika, eskulanak eta zeramika eskaini dituzte Arkupe kultura etxean. Izena emateko bertara jo behar da.



Malas Compañías taldearen *Oilaskoetxea* antzezlanaren irudia.

KULTURA SAILA

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

TAICHI • CHIKUNG • DANTZA

Kurtso berria  
zentro berrian

Klase irekiak (kurtsoa zertaz den jakiteko)  
Irailaren 21ean eta 28an, 10:30ean eta 19:30ean  
**BIZITZA**, Araba etorbidea 25, behea  
635 72 08 36 - [estibalizdc@euskalnet.net](mailto:estibalizdc@euskalnet.net)



Albiste da azken hilabeteotan herriko zaharren egoitza.

MIRIAN BITERI

## JENDARTEA &gt; ZAHARREN EGOITZA

# Egoitzako kostuei aurre egiteko behar diren laguntzak iritsiko dira

Abuztuan Diputazioko ikuskaria izan zen eta baldintzak betetzen dituela jakinarazi zuen

MIRIAN BITERI &gt; ESKORIATZA

Lanean dihardute Eskoriatzan Mesedeetako Amaren egoitzaren harira. Uztaileko azken asteko osoko bilkuran, zaharren egoitzako kudeatzailea kargugabetezko patronatuak hartutako erabakia babestu zuen udalbatzak. Bildutako bederatzi zinegotzietatik zazpi bozkatu zuten kargugabetezko erabakiaren alde, eta H1! eta EAJkoek, berriz, aurka.

Baina bestelakorik ere izan da: Pedro Lasagabaster alkateak azaldu digunez, kontu-hartzailetzako eta Gizarte Zerbitzuetako udal teknikariek egindako lanari esker, hiler, diru laguntzak kobratu ahal izateko Diputazioak eskatzen duen egoitza zerbitzuen katalogoa eguneratu da; eta abuztuan, Diputazioko ikuskariak egindako bisitan, laguntzetarako eskatzen diren baldintzak betetzen direla jakinarazi zuen. Lasagabasterren

esanetan: "Irailen Diputazioarekin batzartuko gara laguntza horien prezioak eguneratzeko. Kontuan izan behar da laguntza horiek ezinbestekoak direla egoitzaren egungo kostuak estaltzeko. Horrez gain, 2006tik 2009ra bitarteko auditoriak espero ditugu hil honetarako".

## FALTA LARRIAK

Ekainaren amaieran hartu zuten egoitzako patronatuaren juntan kudeatzailea kargutik kentzeko erabakia, eta horretarako, horrek egindako falta larriak egotzi zituzten. Ekainaren 26an, Udalak argitaratutako ohar batean, azaltzen zen egoitzan erizaintza eta garbitasun zerbitzua eskaintzen duen enpresak maiatzean jakinarazi ziola Udalari egoitzak kopuru handiko zorra zuela horrekiko.

Eliza eta herritarrekin batera, patronatuko batzordekide diren

udal ordezkariak juntara eraman zuten salaketa. Prentsa ohar horren arabera, "zuzendariak aitortu zuen aipatutako zorra egon bazegoela". Horrez gain, betiere prentsa oharraren arabera, besteak beste, aitortu zuen egoitzaren eraikina zaharberritzeko zegoen dirua ia gastatuta zuela.

## IKERKETA SAKONA

Gertakarien larritasuna ezagutu, horren gaineko ikerketa sakona egitea erabaki zen, eta, oharren arabera, 2006tik 2010era ez zela urteko kontabilitatea egin eta juntara aurkezten ziren balantze eta kontuak ez zirela benetakoak ondorioztatu zen. Horrez gain, oharra dio 2009ko apiriletik 2010eko maiatzera pilotutako zorra, gutxienez, 390.000 eurokoa izan dela.

Udalbatzaren erabakiaren harira, EAJ eta H1! alderdietako ordezkariekin harremanetan jartzen saiatu gara. Lehenengoak ez du erantzun eta bigarrena oportet harrapatu dugu.

## KULTURA &gt; AITZORROTZ ELKARTEA

## Antzerkia eta musika irailerako

M.B. &gt; ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkarteak gertu du iraileko egitaraua. Ekintza bi antolatu ditu: irailaren 18an, zapatuan, Zurrunka antzerki taldearen *Karakolaren gaua: eskale baten istorioa* antzezlan izango da, 22:30ean, kontzejupuan.

Antzerki munduan urteak daramatzaten Eñaut Gorbea gasteiztarak eta Ander Arrieta aguraindarrak osatzen dute Zurrunka taldea; eta hilaren

18an barre algarra ederrak eragingo dituen *clown* eta mimo emanaldia egingo dute.

Bestalde, irailaren 24an, punk-rocka nagusituko da Inkernu tabernan, Memo taldearen eskutik. Bereziki, *La alegría de molestar* izeneko azken laneko abestiak joko ditu Nafarroako laukoteak, baina baita *Todo va bien* eta *Casi perfecto* diskoetako hainbat kantu ere. Memoren kontzertua 22:30ean hasiko da.

## UDALA &gt; ENERGIA

## Argiztapen berriarekin 3.000 euro aurreztuko dituzte

LED teknologiako argiztapena jarri dute Luis Ezeizako ingurunean eta Gaztañadui kalean

M.B. &gt; ESKORIATZA

Iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko, Gaztañadui kalean eta Luis Ezeiza eskola ondoan LED teknologiako argiztapena ipini dute azken asteotan. Lehengo argiek, eraginkortasun txikikoak izateaz gain, argi kutsadura handia sortzen zuten, eta, hori dela-eta, kontsumoan gehien aurrezten dute-nak jarri dituzte.

Argiztapen berriarekin Udalak aurreikusitako CO2 emi-

sioak 10 tona gutxituko direla eta urtean 3.000 euro aurreztuko dituela. Inbertsioa 40.805 euro izan da eta 2010eko Tokiko Enplegurako eta Iraunkortasunerako Estatu Fondoko laguntzarekin ordaindu da.

## BESTE GUNEETARA ZABALDU

Argi berriek ondo funtzionatzen badute, argiztapen berria zatika herriko beste hainbat gunetara zabaltzea aztertuko du Udalak.



Argi berriek argi zuri-zuria ematen dute.

M.B.

## oharrak

## UDALA

### > Unai Salaberria da Elizateetako zinegotzi berria

Elizateen Elkartearen izenean Unai Salaberriak hartu zuen uztailaren amaieran egindako osoko bilkuran zinegotzi kargua. Leire Okarantza ordezkatu du. Honakook osatzen dute orain udalbatza: Pedro Lasagabaster, Dorleta Lezeta, Edorta Barandiaran, Ander Agiriano, Aitor Urrutia, Begoña Egaña, Maider Ota-

mendi, Karmelo Lezeta, Iñaki Pierrugues, Juan Luis Merino eta Salaberriak berak.

## LAGUNTZAK

### > Kulturako laguntzak eskatzeko azken eguna, irailaren 19a

Kultura elkarteek aurten egingo dituzten ekintzetarako dirulaguntzak eska ditzateke. Eskerak astelehenetik zapatara aurkeztu ahal dira, 10:00etatik 13:00etara, udaltxean, irailaren 19a baino lehen.



# Zenbaki Aholkulariak



## • Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak,

## • Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...

- Fiskala: Etxebizitza salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

## • Kontabilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • [www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)





MIREIA BIKUÑA

## Bidegorriko lanak, bukatu barik

Antzuolako sarreran, Matz-Erreka enpresaren aurretik egiten diharduten bidegorria bukatu barik dago. Aldundiak zehaztutako epeen arabera, uztaierako bukatuta behar zuen bidegorriak. Dena den, lanak egiten ziharduen enpresak arazoak izan zituen, eta, horren ondorioz, atzerapenarekin bukatuko dituzte lanak.

### KIROLA > IKASTURTE BERRIA

## Ate irekiak, gimasioaren eskaintza erakusteko

Hilaren 6tik 9ra eta 13an eta 14an hastapen ikastaroak izango dira, doan

M.B. > ANTZUOLA

Antzuolako gimnasioak kirol eskaintza zabala du esku artean. Askotariko ikastaroak egingo dituzte irailetik aurrera. Eskaintzak bertatik bertara ezagutzeko ate irekien egunak egingo dituzte; hain justu ere, hilaren 6tik 9ra, eta irailaren 13an eta 14an hastapen ikastaroak emango dituzte doan. Pilates, spinning eta *total fitness* ikastaroetan parte hartzeko aukera izango dute ate irekien egunetan. "Kirol bakoitzaren oinarriko arauak ezagutzeko

aukera izango dute erabiltzaileek", esan digu gimnasioko arduradun Xabier Azkaratek.

### ASKOTARIKO IKASTAROAK

Bestalde, ikasturte berrian gimnasioa erabili gura dutenendako izenemate epea atzo zabaldu zuten. Ikastaroetan parte hartu gura dutenek edo bazkide txartela egin gura dutenek gimnasioan eman behar dute izena.

Askotariko ikastaroak egingo dituztela esan digu Azkaratek; besteak beste, pilatesa, spinninga, *total fitness*-a, aerobika, gazteendako batuka, umeendako karatea, sasoiaren egoteko gimnasia eta hirugarren adinekoendako gimnasia. Gaineratu digu ikastaro batzuen ordu eta eguna aldatu egin dituela.

### HIRIGINTZA > LANAK

## Eskolako aterpeko lanek bi hilabeteko atzerapena dute

Egaralur enpresak hainbat material lortzeko arazoak izan ditu eta lanak gelditu daude

MIREIA BIKUÑA > ANTZUOLA

Eskolako jolaslekua estaliko duen aterpea eraikitzeko lanak gelditu daude. Udalak lanak esleitu zituenean, irailera, ikasturtea hasi orduko bukatuta egon beharko zuela aurreikusitua zen. Baina aterpe itxura hartzeko asko falta zaiola. Pedro Iturbe alkateak baieztatu digu lanak atzeratu egingo direla: "Gure asmoa zen ikasturte hasierarako aterpea bukatuta egotea, baina ezinezkoa da. Hurrengo astean bilduko gara Egaralur enpresakoekin fase berriak zehazteko. Hori horrela, lanak atzeratu egingo dira bi hilabetez".

Mundumira jaialdiaren ondoren hasi zituzten lanak, ekainean, eta 11 asteko epea zuten jolaslekua estaltzeko.

### MATERIALAREKIN ARAZOAK

Egaralur enpresak beste enpresa bat kontratatu zuen eskolako aterpeko lanak egiteko. Martxan one-

an jardun zuten, baina uztaierako bukatu materialarekin arazoak zituztela adierazi zioten Egaralur enpresako arduradunari. "Aterpeko sabaia egiteko egurrarekin arazoak zituztela esan ziguten. Materiala Europa aldetik ekarri behar zutela, eta garraioarekin arazoak zituztela", esan digu alkateak. Hori horrela, abuztuan ezin izan dute lanak egin.

Une honetan aterpea sostengatuko duten zutabeak eta jolaslekuko harmailak daude eginda. Gainera, jolaslekua hesituta dago, arazorik egon ez dadin.

### ESANAK

**"Materialarekin arazoak izan dituzte, eta bi hilabete atzeratuko dira lanak"**

Pedro Iturbe > Alkatea

### ESTALKIA ZATIKA

Aterpearen azalera 1.466 metro koadrokoa izango da. Estalkiak aluminiozko txapa izango du kanpoaldean eta izeizko egurra barrualdean. Euriaz eta haizeaz babesteko polikarbonato zelularrizko kanpo-ingurutzaila izango du aterpeak, barrualdean hiru metroko altuera libre uzten duena.

Egurrezko estalkia zatika jarriko dute. "Osorik ezin dute garraiatu, eta zatika ekarriko dute, eta zatika ipiniko dute", dio Iturbek.

### ESKOLAKO UMEAK

Alkatearen asmoa zen lanak ikasturte berria hasterako bukatua egotea. Atzerapenaren ondorioz eskolako umeek ezin izango dute jolaslekua erabili hesituta dagoelako. Euria eta hotza egiten duenean pilotalekua erabili behar dute. "Orain arte gauza bera egin dute euria egin duenean. Pilotalekuan ibiliko dira. Lanekin, baina, jolaslekua ezingo dute erabili eguzkia egiten duenean, material guztia han dago-eta", azaldu digu alkateak.



Eskolako jolaslekua estaltzeko lanak gelditu daude egun.

MIREIA BIKUÑA

**GAILUR**  
taberna eta  
gozotegia

**Buztinzuri 13 ANTZUOLA**  
Tel.: 943 78 70 32

*Tomas Gezalaga*

**Zoruen kutxilatua eta bernizatzea**

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**ANTZUOLA**

Apainketak eta isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

*Tomas Gezalaga*

Apainketarako eta industriarako pinturak  
•  
Paper margotuak  
•  
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



Besteak beste, estalkiari altuera handiagoa eman diote, etorkizunean igogailua jarri ahal izateko.

SAN MARTIN

HEZKUNTZA &gt; SAN MARTIN IKASTETXEA

## Igogailua jartzeko egokitzapen lanak egin dituzte eskolan udan

Igogailua hurrengo ikasturtean jarriko dute; ikasleak martitzenean itzuliko dira eskolara

EDU MENDIBIL &gt; ARAMAIO

Amaitzear daude San Martin eskolan igogailua jartzeko egokitzapen lanak. Ekainaren azkenetan ekin zien aipatutako lanei Goitu enpresak, eta, ikasturte berriaren atarian, margotze eta txukuntze lanak baino ez dira geratzen dena gertu izateko. Azkeneko ukituekin dihardute egunotan Goitu enpresako langileek.

Esan bezala, etorkizunean igogailua jarri ahal izateko egokitzapen lanak egin dituzte azken

asteotan. Estalkiari altuera handiagoa eman zaio, eta eskailerak bertaraino jarri dituzte, teilatupeko solairuraino, hain zuzen. San Martin ikastetxeko ordezkariak adierazitakoaren arabera, hasiera baten, igogailua hurrengo ikasturtean jartzea aurreikusen da. Eraikinaren kanpoaldek jarriko dute igogailua, eta teilatupeko solairuraino iritsiko da. Komunak ere jarriko dituzte solairu guztietan.

Udan egindako lanen aurrekontua 99.000 euro ingurukoa

izan da eta Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Udalaren artean ordainduko dituzte lanak.

San Martin ikastetxeko eraikina 1971koa da eta igogailua jartzeko proiektua aspaldikoa.

ESKOLARA, MARTITZENEAN

Ikasturtearen hasiera martitzenean, irailaren 7an, izango da. Ikastetxeak gurasoei bidalitako oharrean, gaztelarazko testua oker dago, bertan irailaren 8an joateko esaten zaielako ikasleei. Beraz, 2 eta 12 urte bitarteko haurrak martitzenean 09:00etan itzuliko dira eskolara. Ikasturte berrian 140 ikaslek eta 18 irakasleek jardungo dute.



MIREN MANIAS

## Txikiendako igerilekuak, harrera ona

Aramaioko Udalak 12 urtetik beherako neska-mutikoendako igerilekuak jarri zuen uztailearen azkenetan. Lehen aldiz herrian igerilekuaz gozatzeko aukera izan dute gaztetxoek eta erantzuna ona izan da Udaleko ordezkarien hitzetan. Beroari aurre egiteko modua izan dute txikiek, eta, jasotako informazioaren arabera, arratsaldetan ibili da jende gehien. Iker Beitia gaztea ibili da sorosle lanetan. Domekan, abuztuaren 29an, itxi zuten igerilekua. Orain, ikasturteari ekiteko ordua da.

&gt; AISIALDIA

## Multiabentura jardunaldia hilaren 18an Gorliz eta Urdulizen, Zuiako Koadrilaren eskutik

Zuiako koadrilak eta Udalak antolatuta, 12-30 bitarteko gazteei zuzendutako multiabentura jardunaldia egingo da irailaren 18an. Goizean body-board eta balance-bike jarduerak izango dira Gorliz eta arratsaldean eskalada eta arku-tiroketa Urdulizen. Izene-matea (20 euro) irailaren 9ra arte dago zabalik udaletxean. Argibideak, 945 43 01 67 (Cristina edo Itxaso) telefonoan.

&gt; UDALA

## Andres Osinaga EAko zinegotzia hil da

Andres Osinaga Aramaioko EAko zinegotzia hil zen abuztuaren 17an Gasteizen, 62 urte zituela. 1981ean hasi zen zinegotzi lanetan eta tarte baten ondoren azken hiru agintaldiak EAko zinegotzi eman zituen. Haren ordezkoa zein izango den ez dute oraindik erabaki.



Andres Osinaga.

&gt; KULTURA

## The Basics taldeak jazz, blues eta funk estiloak uztartuko ditu gaurko emanaldian Sastiñan

The Basics taldearen emanaldia izango da gaur, barikua, Sastiñan, 20:00etan. Jazz, blues eta funk ukituko kantuak ekarriko dituzte Aramaiora. Udaleko Kultura Zerbitzuak beste bi kontzertu iragarri ditu irailarako: hilaren 17an Gasteiz Big Band taldearen emanaldia izango da eta hilaren 24an Folk On taldea izango da bisitari Sastiñan, 20:00etan.

&gt; KULTURA

## 'Zuiako Koadrilari begirada bat' lehiaketa; argazkiak urriaren 20ra arte jasoko dituzte

Zuiako Koadrilak argazki lehiaketa deitu du. Zuiako udaletan ateratako argazkiak aurkeztu beharko dira. Irabazleak 300 euro eta trofeoa eskuratuko ditu, bigarrenak 200 euro eta trofeoa eta hirugarrenak 150 euro eta trofeoa. Aramaioko irudi onenarendako, 55 euro eta trofeoa. Urriaren 20an bukatuko da lanak entregatzeko epea. Argibide gehiago 945 43 01 67 telefono zenbakian.

JAIK &gt; EUSKARA

## Txirritola eguna ospatuko da datorren domekan, hilaren 12an, Aramaion

Bertako sagardogileen sagardoa dastatzeko aukera izango da eguerdian plazan

22 06 (Rosa) edo 619 18 97 27 (Xabi). Ekitaldiak 11:30ean hasiko dira, trikitilariekin eta gaztetxoendako jolasekin. Txotx irekiera 12:00etan izango da.

UDAKO POSTALEN LEHIAKETA

Bestalde, Txirritolak udako postalen lehiaketa deitu du aurten ere. Bereziki udan kanpora joan direnendako bideratuta dago lehiaketa eta, besteak beste, originaltasuna eta euskara maila izango dituzte kontuan irabazlea erabakitzeko orduan. Irailaren 15era arte dago ondoko helbidean jasoko dituzte postalak: Txirritola euskara elkartea; kultura etxea; 01160; Aramaio. Saria, Aramaioko jatetxe baten bi lagunendako afaria izango da.

E.M. &gt; ARAMAIO

Datorren domekan, irailaren 12an, Txirritola eguna ospatuko dute Aramaion, eta, ohikoa den moduan, bertako sagardogileen sagardoa dastatzeko aukera izango da. Hori dela eta, deialdi zabala egin diote Aramaion sagardoa egiten duen edonori; bertako sagarrekin sagardoa egiten duen norbaitek parte hartu nahi badu, ondoko telefonoetara dei dezake: 626 37

ELGETA > HIRIGINTZA

# Hilabete da Salbador kaleko pibota martxan dela

Erabiltzaileak, orokorrean, gustura agertu dira sistema berriaren funtzionamenduari

Pibotaren moteltasuna eta urrutiko aginte tresnen irismen txikia daude kritiken artean

MIREN MANIAS/ L.Z. > ELGETA

Salbador kaleko bizilagunak, orokorrean, gustura agertu dira uztail amaieran martxan ipinitako pibotak abuztuan izan duen funtzionamenduari. Abuztu amaieran kalean egindako galdeketa batean esan digute auto gutxiago dabilela orain kale horretan gora eta behera, eta jendeak ez dituela lehen bezala nonahi aparkatzen. Umeak dituztenendako hori seguruagoa dela aipatu dute batek baino gehiagok.

Hori horrela, sistema berriari hobekuntzak egin behar zaizkiola uste duenik ere badago, ordea: "Pibotak denbora luzea behar du guztiz jaisteko", esan digu auzotar batek. Ez da jaso dugun kritika bakarra: "Urruti-

ko aginte tresnaren irismena txikia da", esan digu Salbador kaleko merkatariei. "Banatzaileak iristen direnean piboteraino igo behar dut bidea zabaltzeko urrutiko aginte tresnaren irismena txikia delako".

IRAILEAN BERRIKUNTZAK

Udalak uztail amaieran ipini zuen martxan Salbador kaleko pibota. Auzotarren artean urrutiko 200 aginte tresna banatu zituen atariz atari bilerak eginez. Hirigintza zinegotzi Iban Retolatzaren esanetan, "jendeak nahiko errespetatzen ditu arauok. Dena dela, badaude oraindik arauak betetzen ez dituztenak, eta iraileko martxa normalagoarekin batera abisu eta isunen kontua martxan



Salbador kaleko pibota.

MIREN MANIAS

jarri beharko da". Banatzaileei bidea zabaltzeko arazoak dituzten merkatariei Retolatzak gogorarazten die eragozpen horrek baduela araututako irtenbidea:

"Merkatariek banatzaileei emateko urrutiko aginte tresnak eskatzeko aukera dute", esan du. Eskara hori udaletxean bertan egin behar dute.

ELGETA

## 85 ikasle hartuko ditu aurten Herri Eskolak

Martitzenean, hilak 7, emango diote hasiera 2010-2011 ikasturteari

L.Z. > ELGETA

Irailaren 1ean itzuli ziren irakasleak lanera, eta datorren astean bueltatuko dira Elgetako umeak ikasgeletara. Goizeko ordutegia izango dute lehenengo astean: 09:00etatik 12:30era Haur Hezkuntzako 41 umeek eta 09:00etatik 13:00etara Lehenengo Hezkuntzako 44 umeek. Jangela zerbitzua ikasturte hasieratik eskainiko dute; hortaz, eskolan bazkaltzen dutenak 14:00etan irtengo dira.

HAURRESKOLA ERE MARTXAN

Haurreskola zerbitzua ere datorren astean zabalduko dute: astelehenean. hain zuzen ere. Hasiera baten, 0-2 urte bitarteko zortzi erabiltzaile izango ditu zerbitzuak.

ELGETA > AIXOLAKO ZENTROA

# Programa pilotu batean aritu dira zentroko hiruzpalau gazte

Abuztuan, astean bitan Eibarko San Andres gerontologikoko ortuan aritu dira lorezaintza lanetan

TXOMIN MADINA/ L.Z. > ELGETA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehenengo balorazioa positiboa da. Besteak beste, gerontologikoko baratzeko arduraduna esperientzia errepikatzeko prest ager-

tu dela esan dute. Aldundiaren eta Eibarko Udalaren arteko hitzarmen baten ondorioa izan da programa aitzindaria. Gazteak lorezaintza eta baratze lanetan aritu dira Eibarren.

Orain, programari jarraipena eman edo ez erabaki behar dute, eta horretarako hainbat irizki jaso nahi dituzte. Alde batek, Aixolako zentroaren inguruan eraturako mahai teknikoak osatzen duten kideen balorazioa jaso nahi dute; Aldundiak berak eta Ermuko, Eibarko eta Elgeta-

ko udalek osatzen dute mahai hori. Bestetik, programa aitzindarian parte hartu duten gazteen balorazioa ere jaso nahi dute.

GAUZAK HOBERA

Martxoan izan zen albiste Aixolako zentroa, bertan gertatutako istiluen harira. Orduetik hona gauzak hobera egin dutela diote Aldundiko arduradunek. Elgetako alkate Oxel Erostarbek esan du oraingoz gauzak ondo doazela, eta ondo baloratu du mahai teknikoaren lana.

ELGETA > LANDETXEAK

# Herriko bi landetxeetan pozik abuztuan izandako bisitari kopuruarekin

L.Z. > ELGETA

Hotelean jende gutxi izan dutela esan digute, baina Eguzkitza eta Barrenengua landetxeetan iaz baino lan gehiago izan dutela aipatu digute. Bisitarien jatorria ez da askorik aldatu; Kataluniatik eta Valentziatik etorri dira, gehienbat, nahiz eta madrildarrak, andaluziarrak, frantziarrak eta errusiarrak ere izan diren tartean. Azken urteotako joera ei da erreserbak azken unean egitea. "Uztail amaieran hasi ziren erreser-

bak egiten", esan digute Eguzkitzan. "Duela urte batzuk, bizpahiru hilabeteko aurrerapenarekin egiten zituzten".

Barrenengua landetxean esan digute orokorrean astebeteko egonaldiak egin dituztela etxean ostatu hartuta izan dituzten bisitariak. "Oñati ingurua asko gustatu zaie, eta, hemen egonda, mendian zein kostaldetan ibili dira. Lekeitio, Ondarroa eta Bermeo aldera egin dute askok. Askok gustatu zaie kostaldeta".

LEINTZ GATZAGA > PILOTALEKUA

# Hilaren 13an hasiko dituzte lanak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Pilotalekuko lanak hastear daude: irailaren 13an, astelehena, hain zuzen. Andramari jaiak bukatutakoan hasteko eskatu zuen Udalak eta halaxe egingo dute. Eskoriatzako Razkin erakuntza enpresak egingo ditu eta bi hilabete beharko dituzte.

SAN MILIXANETARAKO GERTU

Herri txikiei laguntzea helburu duen Landagipuzkoa egitasmoak onartu eta lagundutako proiektua da pilotalekuaren berritzea. Horretarako 110.000 euro inbertituko dituzte, eta horietatik 60.000 euro inguru Landagipuzkoak jarriko ditu.

Udalaren aspaldiko eskaera zen pilotalekua konpontzea, "herrirako oso garrantzitsua" delako. Hala, itxi egingo dute goiko partean zabalik daukan zatia eta estaldura guztia berrituko diote, txapela ustelduta dauka eta. Era berean, ur hodiak aldatuko dizkiote.

Lan horiek egiteko epea, bi hilabete, zorrotz bete beharko dute langileek; izan ere, azaroaren 14rako erabiltzeko moduan egon behar da San Milixan feria ospatzeko. "Ondo bidean ordurako itxita egongo da eta bertan egoten diren artisauek eta ikusleek asko igarriko diote", dio Eusebio Villar alkateak.

Horretarako, baina, lanek ezusteko barik egin beharko dute aurrera eta eguraldiak ere laguntzea komeni da, batez ere teila-tuko konponketak egiteko.

> INTERNET

## Gaur arratsaldean dinamizatzailea egongo da KZgunean

Aitor Madrid dinamizatzailea etorriko da gaur (16:00-20:00) KZgunera hainbat ikastaro eskaintzera herritarrei. 16 urtetik gorako edonork egin ditzake ikastaro horiek -bi ordukoak guztiak- sare sozialak, Youtube, Skype, wi-fi... Irailaren 17an egingo du hileko bigarren bisita Madriderik.

FUTBOLA &gt; ARRASATE HIRIA

# Mondraren torneoak etxeko guztiak batuko ditu

Aretxabaleta, Bergara, Aloña Mendi eta Mondra lehiatuko dira bihar, zapatua, Arrasate Hirian

Torneoak erakutsiko du irailaren 12an hasiko duten ligari begira ibarrekoak zelan dauden

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Datorren asteburuan hasiko dute, irailaren 12ko eta 13ko asteburuan, ohorezko erregional mailako liga txapelketa. Eta Arrasate Hiria torneoak erakutsiko du, bihar eta etzi, gure ordezkariak zelan dauden ekitaldi berrirako: "Torneo hauek gauza berriak probatzeko balio dute, jokalariei aukerak emateko, eta ligari begira taldean ze aukera izango ditugun ikusteko", adierazi zuen astelehenean *Harmailatik* saioan Oskar Maiztegi, Bergara Hiria torneoak irabazi ostean -finalean 2-0 irabazi zioten Mondrari.

Denboraldi-aurreko torneoak probak egiteko dira, bai, baina garaikur bat dago jokoan, eta hori baino garrantzitsuagoa dena, liga ondo hasteko behar den konfiantza dago jokoan. Esaterako, lehenengo mailan partidu

bakarra baino ez dute jokatu, baina Osasunako zaleak urduri daude dagoeneko, ligako lehenengo partiduan baino talde gorritxoak denboraldi-aurrean batu dituen emaitzengatik.

## ORDU ERDI LEHENAGO

Joan den asteburuan Mojategin argindar kablea osten ahalegin du ziren lapurrak, kablea zenbait puntutan moztuta. Behin-behineko konponbidearen bitartez, martitzenean berreskuratu zuten ur beroa eta gutxieneko argiteria Mojategin, eta argi arazorik ez izateko, biharko partiduok ordu erdi aurreratzea erabaki dute Mondrako ordezkariak -ondoko taulako ordutegiak daude ondo.

Bihar lehenengo partiduan Mondrak joan den zapatuko partiduko errebantxa hartu ahal izango du Bergararen kontra eta bigarrenean, hirugarren maila-



Mondrako eta Aretxabaletako kapitainak, joan den egubakoitzeko Bergara Hirian, norgehiagoka hasi aurretik, epaileekin. x.u.

## Arrasate Hiria, ordutegiak

### 4, zapatua

16:00 Mondra-Bergara

18:00 Aretxabaleta-Aloña Mendi

### 5, domeka

16:30 Finala

tik jaitsi den Aretxabaletak eta Aloña Mendik jokatuko dute. Finala, berriz, domekan jokatuko dute, eta hor ez da ordutegi aldaketarik egongo (16:30).

## AULKIAN, IA GUZTIAK BERRIAK

Aurten denboraldi-aurrea, gainera, talde gehienendako izan da berria. Aloña Mendiko entrenatzaile Pablo Diez da lanean hasi

aurretik taldea ezagutzen zuen bakarra, beste hirurak -Rafa Urrutia, Oskar Maiztegi eta Iban Rodriguez- berriak direlako. Hala, Mondrako zaleek Rodriguez ikusi ahal izango dute talde zuri-morea lehenengoz Mojategin gidatzen, eta Bergarako finalak ihes egin eta gero, Arrasatekoa gogotsu egongo da etxean itxura polita erakusteko.

SASKIBALOIA &gt; LEHEN NAZIONAL MAILA

# MU eta Aloña Mendi multzo berean daude

Urriaren 2ko eta 3ko asteburuan hasiko dute Igartuaren eta Larrañagaren mutilek liga txapelketa

X.U. &gt; BERGARA

Nazional mailako liga txapelketa inoiz baino interesgarriagoa izango da aurten. Nahiz eta kantuan kategorian galdu, talde gutxi zaudenez federazioak hainbat talde berreskuratu ditu kategorian horretarako, eta Mondragon Unibertsitatea da talde horietako bat. Hala, Josu Larreategiren mutilek azken urteotan jokatu duten kategorian jarraituko dute.

Interesgarria dela diogu, baina, lehenengoz Debagoieneko bi ordezkari izango ditugulako kategorian horretan. Bi urte ikusgarriren ondoren, Xabi Igartuaren Aloña Mendik ere nazional mailan



MUK lehenengo nazional mailan jokatuko du aurten ere.

GOIENKARIA

lan jokatuko du aurten, eta hori gutxi balitz, zozketak bi taldeak multzo berean kokatu ditu. Hala, Iturripeko eta Zubikoako harmailak jendez beteko dituen derbiak izango ditugu ikusgai.

## LEHENA, AZAROAREN 13AN

Euskadiko saskibaloia federazioak dagoeneko egin du egutegiaren zozketa. Mondragon Unibertsitateak Easoren kontra jokatuko du lehenengo jardunaldia

-Maritxu Kajoiaren biharamunean- eta iaz lortu ez zuten helburuarekin irtengo dira kantzara, kategoriari eustea.

Aloña Mendik, berriz, badauki aurtengoa ez dela azken bi urteak modukoa izango; dena dela, iaz ere talde igo berria zen, eta sekulako denboraldia egin zuten. Taldeko betanoek ondo ezagutzen dute kategorian, Ointxe!-n egon ziren sasotik, baina gainontzekoendako berria izango da erronka. Xabi Igartuak ere badauki lehen nazional mailan entrenatzea zer den, Arrasaten laguntzaile moduan egon zen sasotik.

Eta, egutegiko zozketak ere argitu du zaleek gogoz hartuko dituzten derbiak noiz jokatuko dituzten Arrasateko eta Oñatiko taldeek. Azaroaren 13an izango da joaneko partidua, Zubikoan. Bigarren itzuliko partidua, berriz, otsailaren 5ean jokatuko dute, Iturripen.

&gt; ATLETISMOA

## Arrasateko taldean gazteendako ate irekien jardunaldiak

Datorren astean Arrasateko atletismo taldean ate irekien jardunaldiak egingo dituzte.

Hala, entrenamendu saioak egingo dituzte, atletismoan hasi nahi duten Debagoieneko gazteei zuzenduta. Entrenamenduak eguaztenean eta egubakoitzean egingo dituzte Mojategin (18:00-19:00).

&gt; ZIKLISMOA

## Bizikletan ibiltzeko ibilbideak Euskaltel eta MUKen eskutik

Euskaltelek eta MUK proiektu berritzaile bat jarri dute abian, [www.euskalroute.net](http://www.euskalroute.net) izeneko ataria.

Bertan, txirrindulariek bizikletan egiteko ibilbide berriak bilatu ahal izango dituzte, GPSra jaisteko. Eta norberak egindakoak ere zintzilika daitezke bertan.

MENDIKO BIZIKLETA > GATZAGA

# Domekan, Gatzagako mendi bizikleta irteerak hasiko du ibarreko zirkuitua

Bizikletazaleak

09:30ean irtengo dira Gatzagako plazatik; antolatzaileek iazko ibilbidea errepikatzea erabaki dute, jendea gustura ibili zelako

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Oporretan egindako gehiegikeriak Gatzagako mendi bizikletako martxan igarriko dituzte askok eta askok. Izan ere, domekan bertan egingo dute Debagoieneko mendi bizikletako zirkuituko lehenengo proba (09:30, Gatzagako plazan). Kontrara, oporretan bizikletan ibili direnek berehala hartuko dute aurre, Gatzagan trenbide zaharreko bidea hartu eta Gatzagainera iritsi orduko aurrean izango dira.

IAZKO BERA

Antolatzaileek iazko ibilbidea errepikatzea erabaki dute, jendeak gustuko duena zertarako aldatu leloa jarraituz: "Iaz jendea oso gustura ibili zen, eta erabaki dugu ibilbide bera egitea", adie-



Aurten lehenengoz antolatu duten Aretxabaletako mendi bizikleta irteerako erretratua, Urkulura bidean.

GOIENKARIA

razi digu antolatzaile lanetan ibili den Alberto Altubek: "Hasierako kilometroetan erorikoren bat edo beste egon zen bideren baten harri gehiegi zegoelako, eta tar- te hori aldatu dugu. Bestela, ber- dina izango da". Hala, ziklistak Gatzagatik irten eta trenbide

zaharra hartuta Gatzagainera- no joango dira, eta handik Hiru- kurutzetara. Ertzainen antena ingurutik Dorletako Amara jai- tsiko dira, herrian atseden har- tzeko -bertan egongo dira jateko- ak eta edatekoak. Eta ibilbideko bigarren zatian herriaren beste

aldera egingo dute, Jarindo alde- ra; guztira 30 kilometro: "Iaz 186 lagun etorri ziren, eta domekan beste horrenbeste espero ditugu".

**HASI DA MTB ZIRKUITUA**

Gatzagako mendi bizikleta mar- txarekin ekingo diote datozen

## Blogean aurkituko duzue informazioa

Debagoieneko mendi bizikletako martxen gaineko informazioa [www.goiena.net/blogak/debagoienamtb](http://www.goiena.net/blogak/debagoienamtb) helbidea duen blogean aurkituko duzue. Iaz jarri zuten blog hori martxan, eta orduko erretratu eta bideoak oraindik ikusgai daude, eta aurtengo martxen gaineko informazioa ere bertan aurkituko duzue.

Ez informazioa bakarrik, martxetako erretratuak ere bertan zintzilikatuko dituzte, eta norberak ateratako erretratuak ere bertan argitaratuko dituzte, [kirola@goiena.com](mailto:kirola@goiena.com) helbidera bidaliz gero.

## Egutegia

Gatzagako martxa	Irailak 5
Oñatiko martxa	Irailak 12
Bergarako martxa	Urriak 3
Arrasateko martxa	Urriak 16
Eskoriatzako	Urriak 17

hilabeteotan Debagoieneko hain- bat herritan egingo dituzten mar- txen zirkuituari.

Hala, joan poliki-poliki kilo- metroak egin eta gorputzaldi ona errekuperatzen, datorren aste- buruan Oñatiko martxan hartu- ko du-eta erreleboa.



**Soran**  
etxea  
Hotela • Jatetxea






ondo  
ibili  
jaixetan!

**10 logela zabal eta erosoak**

•

**Menu bereziak**

•

**30 pertsonendako aretoa**

Santiago kalea 3 • 20530 LEINTZ GATZAGA • Tel.: 943 71 53 98 • [info@soranetxea.com](mailto:info@soranetxea.com) • [www.soranetxea.com](http://www.soranetxea.com)

Abantailaz  
betetako kluba!

Goiena  
kluba

## UZTAILEKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05  
e-posta: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
Kuota: 45 euro



### ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA

Bidali KLUBA SARRERAK  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



### ELHUYAR-EN PANPINA ETA JOKUA

Bidali KLUBA PANPINA  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



### ESAIT-EKO KAMISETA GORRIA

Bidali KLUBA ESAIT  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



### EUSKALTELEKO KAMISETA

Bidali KLUBA EUSKALTEL  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



## SARI NAGUSIA UZTAILA-URRIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

### WII SPORTS RESORT PACK TXURIA



Sistemen salmenta eta mantenua  
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak  
Webguneen diseinua.

Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)  
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZA mezu bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena  
Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu  
bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek  
zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)



Iazko Aramaioko rallysprintean zaleak auto gidariei animuak ematen.

GOIENKARIA

**AUTOMOBILISMOA** > ARAMAIOKO RALLYSPRINTA ETA GATZAGAKO IGOERA

# Motorrak hitzordu bikoitza du gurean, Aramaion eta Gatzagan

Irailaren 11n Aramaioko rallysprinta korrituko dute; hilaren 18an, berriz, Gatzagako igoera egingo dute, 22 urteren ostean

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Auto lasterketek aparteko protagonismoa izango dute hil honean gurean. Aramaioko Azpikorracing taldeko ordezkariak burubelarri dabilta datorren asteburuan, hilak 11, Aramaion egingo duten rallysprinta prestatzen: "Dagoeneko vilariñotarrak eman dute izena, eta, iaz moduan, aurten ere euren Subaru Impreza izango da, segurue-

nik, autorik azkarrena", adierazi digu aurten antolatzaile lanetan ere badabilen Aramaioko pilotu Inhar Amenabarrek.

**GATZAGAKO, 22 URTEREN OSTEAN**

Aramaioko hitzorduaren ostean etorriko da Leintz Gatzagako igoera. 80ko hamarkadan klasiko bilakatu zen lasterketa hori, eta guztira 13 edizio egin zituzten. 1988an egin zuten azkeneko las-

terketa hori, eta 22 urteren ostean, Aretxabaletako eta Eskoriaztako motorzale koadrila batek lasterketa errekuiperatzea erabaki du: "Azken urteotan 4x4 autoen probak antolatzen ibili gara Apotzagan, baina aurten ez dugu lurzorurik topatu, eta motorzaleak garenez, Gatzagako igoera errekuiperatzea okurritu zitzaigun", adierazi digu Ibon Aranburuzabala eskoriaztarrak.

Igoerak lau kilometro pasa izango ditu: "Marulanda baino lehenago hasiko da proba, Castañares auzoan, eta goraino igoko dira, Gatzagaineraino".

> ZIKLISMOA

### Eta irabazi ostean, Kanadara joango da Irizar martitzenean

Abuztuan Frantziako Poitou Charentesko itzulian etapa bat irabazi ostean, Astelehenean *Harmailatik* saioan Oñatikoak adierazi zuen oraindik Kanadara eta Lombardiara joan behar duela korritzera: "Nik egin beharrekoa egin dut, eta ea bi hitzordu horietan Haimarren [Zubeldia] ondoan lan ona egiten dugun".

Bestalde, Iban Velascok urtebeterako berri du Euskaltekin duen kontratua: "Pozik nago, dagoeneko atsedean hartzen; taldeak esan dit amaitu dudala aurtengo denboraldia".

> EHIZA

### Leintze elkarteak antolatuta ehiza txapelketa hilaren 11n

Urtero sasoi honetan egiten duten moduan, Arrasateko Leintze arrantza eta ehiza elkarteak antolatuta irailaren 11n ehiza txapelketa egingo dute, txakurrekin. Txapelketa, ohi moduan, Araban egingo dute, Santa Cruz del Fierron (08:00).

Txapelketan parte hartzeko interesa dutenek eguaztenez eman ahal izango dute izena, 19:00etatik 20:00etara, Leintze elkartearen egoitzan, 20 euro ordainduta. Sari banaketa Santa Cruz del Fierron bertan egingo duten bazkarian egingo dute.

> MENDIA

### Antzuolako Arrola mendi taldeak finalisten eguna egingo du hilaren 19an

Antzuolako Arrola mendi elkarteak antolatuta, irailaren 19an, domeka, finalisten eguna egingo dute.

Arrolakoek mendi irteera antolatu dute egun horretarako, eta 09:00etarako egin dute hitzordua, plazan. Bertatik San Josea, eta gero Uzarragara igoko dira, Arrasate baserritik Trekutza aldera joateko.

Antolatzaileek adierazi dute umeendako ere ibilbide aproposa dela, eta bertan parte hartzeko ez dago aurrez izena eman beharrik.



> **BI KALE-ANTZERKI**  
Arrasaten eta Bergaran emanaldi bana egingo du Bizkaiko talde batek > 32



> **'GAU MAGIKOAK'**  
'Gau magikoak Munibe plazan', orain bideoan ikusteko aukera > 32



> **BOSNIATIK BUELTRAN**  
Arrasateko Ain\_1 taldea "hunkituta" itzuli da Bosniatik > 33

Txemi Etxebarria > 'Olentzero&Company' ikuskizunaren musika zuzendaria

## "Abenduaren 11n eta 12an aurkeztuko dugu 'Olentzero&Company', Arrasaten"

MIRIAN BITERI > BERGARA

*Olentzero&Company* musikalean buru-belarri lan egiten harrapatu dugu egunotan Txemi Etxebarria (Bergara, 1980). Egitasmo horren musika zuzendaria den heinean, horretan dituen zereginenez berba egin digu; orokorrean, prestaketa lanak zelan doazen ere azaldu digu datozen lerrootan.

### Zertan datza zure lana?

Hiru lan ditut: batetik, Oihan Vegarekin batera hainbat abesti konposatu ditut; horretaz gain, kantu guztiak orkestratzeaz ere arduratzen naiz eta horrekin nabil orain. Musika guztia dagoeneko buruan badugu ere, oraindik lan handia dago egiteke. Esaterako, pianorako asmatuta geneukan abesti bat instrumentu guztietarako partitura atera behar dut eta horretan nabil buru-belarri. Azkenik, musika orkestra ere zuzenduko dut.

### Nolako musika izango du?

Moderno da eta denetarik dauka; ez da genero bat bereizten. Besteak beste, pop, rock, jazz, saltsa, dance, balsa eta hardcorea izango ditu, eta baita betiko Gabon kantuek ere, nola ez. Azken horiek izan ezik, gainerako guztiak Oihanek eta nik neuk konposatutakoak dira.

### Euskal Herrian egin diren gainerako musikalekin alderatuta badu ezberdintasunik?

Bai. Nagusia da ideia originaletik hasitako euskarazko musika dela. Aurretik egindako musikalek (*San Martinen Estanpa*, *Oliver!* eta *Miserableak*, esaterako) libretoak idatzita eta musika egina zuten eta horiek euskaratu eta moldatu baino ez zen egin behar.

Bestalde, esan bezala, musika estilo asko batzen ditu eta oso bizia da.

### Lehenengo aldia da horrelako egitasmo batean parte hartzen duzuna?

Musika zuzendari moduan, bai. *Miserableak* musikalean aktore moduan igo nintzen agertokira; eta *Oliver!* ikuskizunean, berriz, musikari moduan, orkestran jotzen.



Txemi Etxebarria, joan den martitzenean, Bergarako musika eskolan.

MIRIAN BITERI

### Nola sortu zen musikala sortzeko ideia?

Bost urte daramatzat Holandan bizi izaten eta Oihan Vega behin bisitan etorri zenean irten zen ideia. Elkartzen garen bakoitzean konposatzen ditugun abes-

tien gainean luze hitz egiten dugu, eta, horrelako baten, geneukana-ekin zerbait egin zitekeela iruditu zitzaigun. Oihanek duen buruarekin, Olentzerorekin lotutako musikala egiteko ideia asmatu zuen. Normalean, musikala

aldrebes egiten da; istorio bat daukazu, eta, horren harira, musika sortzen duzu. Oraingo honetan, kontrakoa egin dugu; abesti txikietatik istorio bat asmatu dugu eta hori borobiltzeko musika gehiago konposatu dugu.

### Holandan bizi zara. Horietan egoterik izango duzu?

Bai. Bergaran geratuko naiz musikalara amaitu arte. Urrian Holandara joan beharko dut, ikasketak direla-eta, baina bi aste kontua izango da.

**"Musika zuzendari moduan lehenengo aldia da horrelako egitasmo baten parte hartzen dudana"**

**"Etzi, domeka, orkestraren entseguak hasiko ditugu, Bergarako Musika Eskolan"**

### Zuzendaritza ikasten eta abesbatza zuzentzen dabil Holandan

Txemi Etxebarria bergararra orain dela bost urte joan zen Holandara, Maastrichtera, tronpa masterra egitera. Haren esanetan: "Bilbon, kontserbatorioan tronpa irakasle titulua lortu nuenean, konturatu nintzen asko neukala oraindik ikasteko, eta, hori dela-eta, Holandara joatea erabaki nuen. Izugarriko zortea izan dut; tronpa masterra amaitzean, Valentzian, 20 urtez eskolak ematen ibilitako eta jaioterrira itzultitako konpositore holandarra ezagutu nuen. Orduetik hona konposaketa eskolak ematen dizkit

asteen behin bere etxean. Besteak beste, konposatzen eta orkestratzen erakutsi dit".

Masterra amaitu aurretik, gainera, zuzendaritza ikasten hasi zen; aurten amaitzea espero duena. Hortik aurrera zer egingo duen ez daki: "Toki on baten jende ona zuzentzea da asmoa. Hori non izango den ez dakit. Holandan maila handia dago, Euskal Herrian agian zailtasun gehiago izango nituzke; baina etxea ere faltan igartzen dut". Bada, abesbatza bat eta banda bat zuzentzen ditu Holandan.

BOST URTE ETXETIK KANPO

ANTZERKIA &gt; KALE ANTZERKIA

# En la Lona taldea 'Trastelekua' eta 'Exodo' lanekin dator gurera


Gaur, Bergarako San Martin plazan kale-antzerkia eskainiko du, 19:30ean

Bihar gauean, azken lana aurkeztuko du Arrasateko Seber Altube plazan

MIRIAN BITERI &gt; BERGARA

En la Lona konpainia bizkaitarra izango da gurean egunotan. Gaur, egubakoitza, *Trastelekua* izeneko antzezlana aurkeztuko du San Martin plazan, 19:30ean. Familiendako emanaldian, garbitzaille bat trastelekuan sartuko da, eta, abentura munduan murgilduz eta traste zaharrek pertsonaia bitxiak sortuz, liluraz betetako istorioak sortuko ditu. Publikoaren parte-hartzea ezinbestekoa izango da horretan.

Hori Bergarari dagokionez. Arrasaten, ostera, azken lana aurkeztuko du Argentinan sor-



En la Lonak *Exodo* izeneko antzezlana aurkeztuko du bihar Arrasaten.

EN LA LONA

tutako baina aspalditik Euskal Herrian bizi den taldeak. *Exodo* izena duen gaueko ikuskizunean, estructures pisutsuekin amaiera gabeko bidaia egiten dabilzan hiru emakume ezagutuko dituzte Seber Altube plazan 20:30ean batzen direnek. Hiri berri batera iristean larritu egingo da hirukote hori, eraso jasango ote

duten beldur. Baina ingurunea aztertu ostean, apurka konfiantza hartzen joango dira.

#### 1997A EZKERO

Ederto pasatuko dute ikusleek bi ikuskizunetan, En la Lona taldeak urteak daramatzalako lanean eta, hortaz, ederto daki-eta publikoan barre algarak eragiten.

1997an Paula Alfierik eta Andres Fesnok taldea sortu zuten Buenos Airesen eta 2000an Euskal Herrira etorri ziren. Ibilbidean zehar zirku-teknikak, antzerkia, txotxongiloak, pailazoak eta maskarak uztartu dituzte egindako ikuskizunetan. Maiatzetik burubelarri dabilta *Exodo* lana aurkezten.

'PERFORMANCE'-A

## 'Gau magikoak' ikuskizuna, bideoan

M.B. &gt; BERGARA

Joan den ekainaren 25ean Bergarako Munibe plazan izan ez zirenek aukera dute orain Ramon Arantzabalen *Gau magikoak Munibe plazan* ikuskizuna ikusteko. Andoni eta Jabi Gaztelua anaiek gau hartan grabatutakoarekin bideo ederra egin dute eta dagoeneko edonork ikus dezake Interneten: hain justu ere, *Youtube* atarian edo Ramon Arantzabalen blogean (<http://gaumagikoak.wordpress.com>).

#### JEAN SIBELIUSEN MUSIKA

Gaztelua anaiek gertatutako bideoak 8 minutu eta 40 segundo irauten du, eta oinarrian Jean Sibeliusek musika dauka, *Finlandia*.

Ramon Arantzabal arrasatearraren *performance*-ak txundituta utzi zituen asko ekainaren 25eko gaur hartan. Dantza garaikidea, antzerkia, argi-jokoak, artea eta musika uztartuz ikuskizun ederra egin zuten Bergarako Munibe plazan.



**BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITUGU**

**UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITUGU**

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABAETA





Ain\_1 taldeko Iraitz Agirre, Amaia Pavon eta Ainara Kortabarria, SOS Balkanes elkarteko bi kideekin batera, Bosnian. AIN\_1

MUSIKA > AIN\_1 BOSNIAN

## "Polita bezain gogorra izan da, hunkituta bueltatu gara"

XIII. adiskidetasunaren nazioarteko jaialdian jotzeaz gain, Bosniako errealitatea ezagutu ahal izan du taldeak

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE  
SOS Balkanes gobernu kanpoko erakundearen eskutik Ain\_1 talde arrasatearra Bosniako Gorazde herrian izan zen abuztu hasieran, XIII. adiskidetasunaren nazioarteko jaialdian parte hartzen. Bost kidek osatzen dute taldea, bai-

na Bosnian hiru kide izan ziren. Hori bai, agertoki gainean SOS Balkanes elkarteko bi musikariren laguntza jaso zuten. Hamar egun egin zituzten bertan; "gutxiagi", Iraitz Agirre taldekideak Arrasate Irratian egindako elkarrizketan azaldu zuenez. Hala ere, Agi-

rrak adierazi du "oso esperientzia positiboa" izan dela, baina "gogorra" aldi berean: "Orduan haur batzuk ginen arren, erretinan gordeta daukagu Bosniako gerra, eta 15 urte pasa ostean gerra oso presente dagoela konturatu gara. Gorazde setiatutako herria izan zen gerra garaian eta armada ez zen horrenbeste sartu. Baina ondo-ko beste herri batzuetan ikusi ahal izan genuenez, eraikin guztiek zituzten metraila arrastoak. Ez zen bakar bat ere libratzen. Gorazden, bestalde, ekonomikoki ez daukate aukera askorik; lan baldintzak oso eskasak dira eta nekazaritzaz bizi dira. Hori bai, ezer ez dute, baina dena emateko gertu daude; oso jende ona da". Horregatik guztiagatik "hunkituta" bueltatu direla dio Agirrek.

### BI SAIO, BI ISTORIO EZBERDIN

Agertoki gainean, bestalde, "oso gustura" izan ziren. Eman zituzten bi kontzertuak ezberdinak izan ziren erabat. Lehena, agertoki erraldoi batean, pantaila eta guzti, eta jende askotxorekin. Eta bigarrena, agertoki txikian eta, jasan behar izan zuten ekaitzaren ondorioz, jende gutxiarekin.

Kontuan hartuta taldeak hitza duela oinarri eta euskaraz ez zietela deus ere ulertu behar, Espainian bizi izan den lagun bosniar batek hango hizkuntzan errezitatu zituen talde arrasatearraren zenbait poema. Gainera, abestien titulu guztiak ere hango hizkuntzan esaten saiatu ziren. Buelta-tzeko gogoz geratu dira.

### MUSIKA

## Goi mailako jazz izango da domekan Zabalotegin

Javier Garaialde saxofoi-jotzailea gidari, 19:00etan hasiko da zuzeneko

J.B. > BERGARA

Zuzenean eta esperientziadun musikariren eskutik, goi mailako jazz dastatzeko aukera izango da etzi Zabalotegin Javier Garaialde saxofoi-jotzaile nafarrak gidatuta. Garaialde 1980ko hamarkadan egin zen ospetsu eta ordu-tik ohikoa izan da haren presentzia komunikabide, jaialdi eta jazz klubetan. Kutxaren laguntzarekin antolatu dute.

### INPROBISAZIOA ETA INDARRA

Garaialderen ondoan Marcelo Scrich -kontrabaxua- eta Manu Urriza -pianoa- eta Aurelio Zabalegi -bateria- izango dira agertokian. Emanaldiak inprobisazioa, sentikortasuna eta indarra eskainiko ditu, eta baita estiloen arteko nahasketa ere: swinga, bopa, bluesa, funka, baladak...



**INSTALAZIOEN  
MANTENIMENDU  
OSOA**

**24  
ORDUKO  
ZERBITZU  
OROKORRA\***  
\* Kontratutakoa

Proiektuak eta legeztatzea • Diagnosiak eta berrizteak • Gas ikuskatzeak • Iturgintza orokorrean

Energia berriztagarriak eta alternatiboak; proiektu eta zaharberritzeak eta azterketa energetikoak.

**Berokuntza • Gasa • Aire girotua • Haizeztatzea**

Basabe Industrialdea B-3 ARETXABALETA

Tel.: 943 77 19 88 / Faxes: 943 79 59 97

[www.goiena.net/blogak/urko](http://www.goiena.net/blogak/urko)

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

### LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

### LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

### BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

## IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

## LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

## MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

## SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

### INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA

### ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

### AREDHANA YOGA ETA GESTALT

### PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

# Andramaiak 2010

EGUBAKOITZA / 2010EKO IRAILAREN 3A



**ARETXABALETAKO  
ETA LEINTZ  
GATZAGAKO  
jaiak**

Koadrilak jokoan, Andramari hirugarrenean egindako herri bazkariaren ondoren, Aretxabaletako Herriko Plazan.

MIRARI ALTUBE



Errekabarren 3, behea ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21  
[garbittu@euskalnet.net](mailto:garbittu@euskalnet.net)

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak

JAIK &gt; ANDRAMAIXAK

# Jende asko ibili da kalean giro ezin hobean

Doctor Deseok bete egin zuen plaza eta Los Delgas taldeak, barre algarak eragin; gazteek, ostera, gustura jardun zuten zezentxoekin

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETAN

Giro freskoak esnatu zuen abuztuaren 14a, baina poliki-poliki berotzen joan zen herritarrek jarritako umore on eta jai gogoari esker. Hala, abuztuaren 17an kaleak beteta zirela egin zioten agur Andramaixei –askoren ustean iaz baino jende gehiago–.

Miren Etxeandia alkate txikiak egin zuen jaietarako deia udaletxeko balkoitik eta Unai Mendieta alkateorde txikiak isiotutako etxafuegoak hasiera eman. Ikurrinari egindako agurraren ondoren izan zen hori –Aralar alderdiko hiru ordezkari eta EAJ-ko bakarrekin–, eta herritarrak jai giroan murgildu ziren.

Abuztuaren 15a, Andramari eguna, elizbirarekin hasi zuten, azken bi urteotan legez. Ama Birjina airean hartuta Durana kalean gora egin zuten lehenengo eta gero Herriko Plazan agurra egin zioten dantzariak. Aurten, baina, udalbatzako kideek ez dute hartu parte bira horretan eta elizara joan ziren zuzenean txistularie-

(38. orrialdean jarraitzen du)



Alkate eta alkateorde txikiak udalbatzako kideekin ikurrinari agurra egiten. M.A.



Ama Birjina Herriko Plazatik bueltan elizara berriro, herritarrek lagun eginda. M.A.



Kurtzebarri inguruan kanpina sortu guran Trapu Zaharra taldeko kideak. M.A.



Ia bi orduko kontzertua eskaini zuten Doctor Deseo bizkaitarrek. JOSETXO ARANTZABAL



## Fino

Gizonezkoen

ile apaindegia

Ilearen tratamenduetan espezialistak


Durana 19 • Aretxabaleta • Tel.: 666 26 48 86

*Aupa  
Andramaixak!*



# IOSU

harategia • taberna



Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08

**Kilima**  
ume eta haurdunendako arropak



Ilargi plaza 6 Aretxabaleta  
Tel.: 943 53 34 96



**HERRIKO PLAZAKO DENDARI  
ETA TABERNARIEN PARTEZ...**



**Eskerrik asko!**



ILE APAINDEGIA  
Tel.: 943 79 83 64



aretxabaleta  
Tel.: 943 09 33

**BAR ARTANO**  
Tel.: 943 53 39 87



Tel.: 943 10 97 98



Tel.: 943 03 66 61

**MARIA JESUS**  
ARGAZI PROFESIONALA  
[www.mjargazki.com](http://www.mjargazki.com)  
Tel.: 943 77 12 55 - 656 73 24 63

## Jende asko ibili da kalean giro ezin hobean

(36. orrialdetik dator)

kin. Gau partean Doctor Deseo izan zen izarra. Ia bi orduko ekitaldia eskaini zieten plazan elkartutakoei eta haiek gustura jarraitu zituzten talde bizkaitarraren kantua.

72. txirringulari lasterketak 140 bat txirringulari ekarri zituen gurera eta norgehiagoka zirrargaria ikusi zuten helmugara hurbildutakoek. Errekortadore eskolakoek, ostera, gaztetxo asko elkartu zituzten zezentxoaren aurrean. Gustura baino gusturago jardun zuten jolasean zezentxoekin eta sustoren bat edo beste jaso arren baten batek, minik ez. Los Delgas taldea ikusteko plaza ez zen bete, baina elkartutakoek ezin izan zieten barre algareki eutsi.

Azken eguna, Koadrilien Eguna, sokamuturrak hasi zuen. Jende asko elkartu zen gero herri bazkarian, eta aurten guztiendako izan da paella. Bazkalostea koadrilien arteko jolasek girotu zuten, eta irabazleak Untzak eta Txiki Bonba izan ziren. Gazte Ekimenak, gainera, hainbat ekitaldi antolatu zituen, tartean Petti nafarraren kontzertua; herriko taldeek ere izan zuten euren gaua.

### BIDEGORRIKO HESIA APURTUTA

Martin Garai udaltzainburiaren esanetan, ez da egon aparteko arazorik jaietan: edukiontzi bi erretzen saiatu ziren, baina lortu ez eta Arrasatera bidean dagoen bidegorriko hesia apurtu zuten.

Bestalde, txosnagunearen inguruko bizilagunen kexak jaso zituzten udaltzainek, "musika oso ozen eta denbora luzean izaten zutelako", baina "urteroko kexak" izaten ohi dira.



Mariachi doinuak gustuko dituztela erakutsi zuten herritarrek. M.A.



Zezentxoaren aurrean ezin hobeto moldatu ziren gaztetxo asko, toreratzaileren kapa eskuan hartuta. M.A.



Eguzkipean zain egon ziren herritarrek paella jateko gogoz; guztiendako iritsi zen. M.A.



Ederto ibili ziren koadrilak Gazte Ekimenak jarritako jolasetan. M.A.



# ANDRAMAIXAK ederto pasa ondoren, jarrai dezagun Euskal Herriaren Alkartasun eta Askatasunagatik gogor lanegiten.



Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7, behea  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 00 33 / 79 42 56



FELIX PAGALDAY

Gora  
Andramaixak!




# Belar Meta<sup>®</sup>

gazteentzako moda

Durana kalea, 20 Aretxabaleta 943 53 27 39



**UDAZKENEKO DESKONTUA!** Irailaren 3tik 11ra, 10€ko deskontua  
udazkeneko edozein arropatan txartel hau ekarriz gero [pertsonako bakarra]



# GUREA

## TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

## agurra



Euxebio Villar  
Leintz Gatzagako alkatea

## Jaiak gozatzeko egunak

Urte hauetako, jaietako eta guztion etxean izandako ibilbidearen balantzea egiteko unea iritsi da.

Azken urte hauetan lortutakoa beste herri batzuekin alderatzen badugu, adibidez Bilborekin, hiriak jasandako eraldaketari begiratu gero badirudi hegazkinez mugitzen direla; inguruko herriekin alderatuz, berriz, Bilboko eraldaketa mailara iritsi gabe hemen ere handia izan dela ikus dezakegu, hauek Mercedes-ean mugitzen direla esan genezake. Guk, aldiz, atzera begiratzean, nolabaiteko aldaketa nabaritzeko ezin dugu azken urteetara soilik begiratu, azken 25 urteetara begiratu beharra daukagu, *seiscientos*-a da gure ibilgailua. Geroz eta nabariagoa da udalerrri txikien garapen urria, handienek ez bezala.

Oroitzapen berezi bat arrazoi politikoak medio sakabanatuta daudenei eta errefuxiatu edo gaixo daudelako gurekin egoterik izango ez dutenentzat; ea datorren urtean denok gauden eta egunerokotasuna alde batera utziz jai egunak gozatzeko aukera izaten dugun.

Jai hauek antolatzen parte hartu duzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizue batzordeak, denok dakigu zenbat eta partaidetza handiagoa orduan eta jai hobeak izango direla.

# Jaietako egitaraua

## Egubakoitza, 3

### > Jaien hasiera

Etxafuegoak eta umeendako bonba japoniarrak, 18:00etan, San Migel plazan.

### > Bederatziurrena

Dorletako santutegian, 19:00etan.

### > Kontzertuak

Rock taldeen eskutik, 22:00etan, plazan.

### > Alkoholemia kontrola

Borondatezko alkoholemia proba egiteko aukera.

## Zapatua, 4

### > Puzgarriak

Umeendako gaztelu puzgarriak, 11:00etan, plazan.

### > Eriz magoa

Umeendako ikuskizuna, 13:00etan, plazan.

### > Puzgarriak

16:00etan, plazan.

### > Mus eta briska txapelketak

Toki Eder elkartearen egingo dituzte: briska txapelketa, 16:00etan eta mus txapelketa, 16:30etan. Izenematea, (16:00etan) 20 euro bikoteko. Gehienez 32 bikote onartuko dituzte.

### > Bederatziurrena

Dorletako santutegian, 19:00etan.

### > Herri afaria

Pilotalekuan, 21:30ean. Girotzeko Fermin Valencia kantautorea, bertsolariak eta trikitilariak.

### > Bolo txapelketa



Herri kirolak izango dira plazan domekan.

JOSETXO ARANTZABAL

Bolatokian, 00:00etan. Sariak: 1.ari, diruaren %50 eta urdaiazpikoa; 2.ari, diruaren %25 eta urdaiazpikoa; 3.ari, diruaren %10 eta xanpain eta ardo botila; eta 4.ari eta 5.ari, xapain eta ardo botila bana.

## Domeka, 5

### > Mendi bizikleta ibilaldia

Leintz Gatzagako VIII. mendi bizikleta ibilaldia 09:00etan, plazatik irtenda.

### > Herri kirolak

San Migel plazan, 13:00etan.

### > Pilota partiduak

Pilotari gazteen arteko txapelketaren finalak. Pilotalekuan, 16:00etan.

### > Bederatziurrena

Dorletan, 19:00etan.

### > Kalejira

Zozongo perkusio taldearekin, 19:30ean.

## Martitzena, 7

### > Bederatziurrena

Bederatziurrenaren bukaera Eskoriatzako abesbatzarekin. Ondoren gazta mokadutxo. Dorletako santutegian, 19:00etan.

## Eguaztena, 8

### > Otxandiokoei ongietorria

Otxandiotik datozen lagunei harrera Dorletan, 11:00etan.

### > Meza nagusia

Eskoriatzako abesbatzarekin, 12:00etan, Dorletan.

## Zapatua, 11

### > Erretiratuen Eguna

Erretiratuen bazkaria, 14:30ean.



Bederatziurrenaren bukaera ospatzen Dorletako santutegian.

M.A.



sormen o d d  
i n d u s t r i a l   d e s i g n

Andramai jai  
gorisutwak !!



## GATZA-GAIN Jatetxea

- Plater konbinatuak
- Ogitarakoak
- Espezialitateak: Baserriko oilaskoa, etxeko txorizoa eta okela ekologikoa



Tel.: 943 71 40 05 GATZAGA

Ondo ibili jaietan!



HERRI AFARIA > PILOTALEKUAN

# Entsalada eta bildots-txuletak herri afarian

Bihar egingo dute Gatzagako frontoian eta 150 txartel jarri dituzte salgai; bertsolariak eta trikitilariak girotuko dute afal ondorengoa

MIREIA BIKUÑA > LEINTZ GATZAGA

Gatzagarrak mahaiaren bueltan bilduko dira bihar Andramaiak ospatzeko. Hain zuzen ere, herri afaria egingo dute pilotalekuan, 21:30ean. Antolatzaileek 150 txartel jarri dituzte salgai-iazko kopuru bera.

Menuan ere ez dago aldaketarik, eta azken urteotako berbera jarriko dute: entsalada, bildots-txuletak eta postrea egongo dira.

LABAIEN ETA GOROSTIDI

Afal ondorengoa girotzeko, bertsolariak eta trikitilariak saio bana egingo dute. Jokin Labaiek eta Bixente Gorostidik askotariko neurriak eta doinuak erabiliko dituzte bertsoan. Afarian

dauden guztiak kantuan jartzeko asmoa dutela esan digu Gatzagako alkate Eusebio Villarrek. Jarraian trikitilarien txanda izango da. Dantzarako musika jarriko dute, inor aspertu ez dadin.

BAKARLARIA


Bertso saioaren aurretik, Fermin Valencia bakarlariak emaldia egingo du pilotalekuan bertan. Getze Ibargoitian (Nafarroa) jaiotako kantariak grabatu dituen bi diskoetako kantuak eskainiko ditu. Tartean, *Tafalla* delako kantua.

Gainera, Nafarroako kantu eta jota ezagunen erreposoa egingo du Valenciak.



2008ko herri afarian dantza ikuskizuna egin zuten.

ARTXIBOA



"Leintz Gatzagako  
Udalak Andramaixa  
zoriontsuak  
opa dizkizue  
gatzagar guztioi"



KIROLA &gt; DORLETAKO TXAPELKETA

# Harrobiko pilotarien lana ezagutzeko aukera egongo da domekako finaletan

Txikiak, umeak, kimuak, koskorak, haurrak, kadeteak eta gazteak mailletako finalak 16:00etan hasiko dituzte

**MIREIA BIKUÑA** > LEINTZ GATZAGA  
Dorletako pilota txapelketako finalak domekan jokatuko dituzte frontoian. Adinaren arabera, zazpi final jokatuko dituzte: txikiak, umeak, kimuak, koskorak, haurrak, kadeteak eta gazteak. Ekitaldia borobiltzeko afizionatu mailan diharduten pilotariek partidua jokatuko dute: Renobales eta Bolinaga Otamendi eta Uzkudunen kontra neurtuko dira (Renobalesek Mendizabalen ordez jokatu du, eta Otamendik Larrañagaren ordez).

**ONENAK FINALEAN**  
Mauri Zubillagak antolatu du txapelketa. Maila bakoitzeko kanporaketak jokatu dituzte, eta pilotari onenak finalerako sailkatu



Aitor Mendizabal pilota astintzen Elgetako txapelketan.

GOIENKARIA

## Finaletan parte hartuko dute bikoteak

### Txikiak

Alonso-Zubia (Leintz Gatzaga - Eskoriatza) / Garitano-Errasti (Arrasate)

### Umeak

Biteri anaiak (Marin) / Uribetxeberria-Davila (Aretxabaleta)

### Kimuak

Oñederra-Oñate (Leintz Gatzaga - Eskoriatza) / Elkorobarrutia-Salaberria (Arrasate-Marin)

### Koskorak

Ajuria-Urizar (Leintz Gatzaga) / Bellido-Ruiz (Amurrio)

### Haurrak

Urtzelai anaiak (Eskoriatza) / Llodio-Murua (Arrasate)

### Kadeteak

Barandiaran-Aizpurua (Leintz Gatzaga) / Axpe-Urtzelai (Eskoriatza)

### Gazteak

Zubizarreta anaiak (Eskoriatza) / Arabaolatza-Etxagibel (Arrasate)

### Helduak

Renobales-Bolinaga (Legorreta-Arrasate) / Otamendi-Uzkudun (Azpeitia)

\*Finalak domekan jokatuko dituzte, 16:00etan.

ITURRIA: GATZAGAKO UDALA

dira. "Bailarako pilotari onenak lehiatu dira. Kanpokoak ere gonbidatu ditugu: Legutiokoak, Maringoak, Azpeitikoak... Egia esan, txapelketa ederra jokatu dute. Ea finalak onak diren", esan digu Zubillagak.

Seigarren aldia da Zubillagak pilota txapelketa antolatzen duena. "Pilotan Gatzagako frontoian hasi nintzen, eta beti izan dut zor txiki bat Gatzagarekin. Txapelketa hori ordaintzeko modua da", esan digu.

# Gure Ametsa

## Jatetxea

Ondo ibili Andramaixetan!

ezkontzatarako areto handi eta erosoak  
aparkaleku pribatu handia  
aperitiboendako terraza  
sukaldaritza zaindu eta paregabea  
aurrekontu guztietarako menuak

943 71 49 52  
gatzaga









Abuztuaren 28an, Bergarako **Miren** eta Cintruenigoko **Antonio** ezkondu ziren Donostiako La Perlan. Eztei-bidaian Hong Kong eta Balira joan dira. Bidaian ederto pasa dezatela espero dute etxekoek eta lagunek. Patxo handi bat eta zorionak, bikote!



Aretxabaletako **Jon Atxa** eta **Ainara Urrutia** bihar, zapatua, ezkonduko dira Leintz Gatzagako Dorletako elizan, familia eta lagunez inguratuta. "Guztionez partetik, zorion beroenak eta ondo pasatzea opa dizuegu. Patxo pila!"



Donostiako **Endika** eta Eskoriatzako **Mainer** bihar, zapatua, ezkonduko dira Eskoriatzako Ibarraundi musean. Bikotearen lagun eta familia guztien partetik, zorionak eta egin behar duzuen eztei bidaian ondo-ondo pasa dezazuela!

## hildakoak


- **Olatz Zabarte Arza.** Oñatin, abuztuaren 29an. 14 urte.
- **Manolo San Vicente Abarrategi.** Arrasaten, abuztuaren 30ean. 75 urte.
- **Mari Tartas Ibañez.** Bergaran, abuztuaren 30ean. 79 urte.
- **Maria Angeles Lopez Martin.** Bergaran, abuztuaren 30ean. 50 urte
- **Maria Luisa Noarbe Portela.** Bergaran, abuztuaren 31n. 96 urte.
- **Maritxu Azkarate Jauregi.** Bergaran, hilaren 1ean.
- **Antonio Murillo Murillo.** Arrasaten, hilaren 1ean. 78 urte.
- **Karmen Bikuña Igartua.** Bergaran, hilaren 1n. 81 urte.
- **Jose Antonio Oses Pueyo.** Bergaran, hilaren 1ean. 63 urte.
- **Juana Elkoru Golonoetxea.** Bergaran, hilaren 1ean. 92 urte.
- **Pilar Madariaga Legorburu.** Bergaran, hilaren 1ean. 94 urte.



**Antonio Madinabeitia** eta **Teresa Aranguren** 1960ko irailaren 3an ezkondu ziren Apotzagari. Urrezko ezteiak ospatuko dituzte Arantzazun, irailaren 5ean, domeka, familia guztiarekin batera. Zorionak, guztionez partetik!



**Andres Arlanzon** eta **Claudina Leon** oñatiarrak 1960ko abuztuaren 15ean ezkondu ziren Burgosen, eta aurtengo egun berean urrezko ezteiak ospatu dituzte, Arantzazuko santutegian. Zorionak, bada, bikoteari, familiakoen izenean!



URTEURRENA

## Aitor Arza Zelaia

Oñatin hil zen 2009ko irailaren 6an.

*Ez agurrik, ez adiorik  
ikusirik arte bakarrik.*



Ona taberna.  
Oñatin, 2010eko irailaren 5an.

URTEURRENA

## Felix Lamariano Agirre

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 5ean, 11:00etan, Antzuolako Antiguako ermitan ospatuko da.

*Denbora aurrera doa  
Urtebete zu gabe jada  
Baina urteak joan ahala  
Aldatzen ez den zerbait bada  
Zure lekioek aurre egiteko  
Ematen diguten indarra.*



Gure ondoan egon zareten guztioi  
eskerrik asko etxeko izenean.

URTEURRENA

## Cristina Madinabeitia Arregui

Candido Igartuaren alarguna

Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 4an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

*Umoresua zinen  
guztionez gainerik  
borondatean ere  
ez zeneukan faltik*

*nahiz eta urru joan  
mundu honetatik  
ez dezun aldego  
gure bihotzetik.*



Mila esker bertaratuko zareten guztioi.

ESKER ONA

## Miguel Moñux Gimeno

Bergaran hil zen 2010eko abuztuaren 17an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.

*Isilik joan zara azkenean  
baina oroitzapen bana utzi diguzu  
bakoitzari bere soinuz.*



Bergaran, 2010eko irailaren 5an.

ESKER ONA

## Victor Alday Echavarri

Maria Orunaren alarguna

Arrasaten hil zen 2010eko abuztuaren 27an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.

*Izan zarenagatik  
eta erakutsi diguzunagatik  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.*



Arrasaten, 2010eko irailaren 5an.

ESKER ONA

## Xole Uribeetxebarria Badiola

Pedro Antxiaren alarguna

Donostian hil zen 2010eko abuztuaren 8an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.

*Nork al lezazken  
elur-usoen  
antzera, goiak garaitu!  
Nork, an... lurrean  
loia uztean  
gurutz saildua lastandu!*



Aretxabaletan, 2010eko irailaren 5an.

OROIGARRIA

## Andres Osinaga Leibar

EAKo zinegotzia Aramaioiko Udalean

2010eko abuztuaren 17an hil zen, 62 urte zituela.

Udal honetan egindako lanagatik beti gogoan izango zaitugu.

Gure doluminik sentikorrena familiarentzat.



Aramaion, 2010eko irailaren 5an.

OROIGARRIA

## Victor Alday Echavarri

Kora Alday lankidearen aita.

Arrasaten hil zen 2010eko abuztuaren 27an, 85 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik,  
gero arte bakarrik.*



Arizmendi ikastolako lankideak.  
Leintz bailaran, 2010eko irailaren 3an.



Babeslea:

**Euskalduna**

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia  
Etengabe zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Irailak 3-9

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



BERGARA

### > Javier Garaialde jazz musikariak kontzertua egingo du domekan

Javier Garaialde jazz saxofonistak eta bere taldeak kontzertua egingo dute etzi, domeka, Zabalotegi aretoan (19:00), Kutxak lagundutako emanaldian. Jazzaren barruan, hainbat estilo lantzen ditu: dixielanda, swinga, betiko jazz...

## Antzerkia



ARRASATE

### > 'Éxodo' ikuskizuna, egokitzen ez den jendeari egindako omenaldia

En la Lona taldeak *Éxodo* kale antzerkia egingo du bihar, zapatua, Seber Altuben hasita (22:30). "Egokitzen ez den jendeari egindako omenaldi" gisa aurkezten dute egileek; batez ere, "ingurumen desplazatuei".

## Musika



OÑATI

### > Ruper Ordorikaren kontzerturako sarrerak laster salgai kultur etxean

Irailaren 17an, Ruper Ordorikak *Haizea garizumakoa* delako diskoa aurkezteko kontzertua egingo du herrian, Oñatin, eta sarrerak irailaren 6an ipiniko dituzte salgai kultura etxean, 10 eurotan (16:30-20:30).

## Hitzaldiak

ARETXABALETA

### > 'Obesidad infantil' hitzaldia egingo du mediku batek

Osakidetza antolatuta, Daniel Jiménez medikuak *Obesidad infantil* delako hitzaldia egingo du.

Eguenean, hilak 9, Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan.

## Lehiaketak

ARAMAIO

### > VI. Postal lehiaketan parte har daiteke oraindik

Txirritola elkarteak deitu duen VI. Postal lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. Postalak deskribapen laburra izan behar du, eta kontuan hartuko dituzte originaltasuna eta euskara maila. Saria da bi lagunendako afaria herriko jatetxe baten.

Postala honako helbidera bidali behar da: Txirritola euskara elkarte; Kultura etxea; Aramaio 01160 (Araba). Mugaeguna: irailak 15.

## Ikastaroak

ARRASATE

### > Yoga eskolak eta hasiberriendako ikastaroa, aukeran

Ikasturterako izenemate epea zabaldu du Sanatana Dharma yoga eskolak. Honako ordutegiak antolatu ditu:

## Musika

OÑATI

### > Drakes punk-rock taldeak diskoa aurkeztuko du gaur

Oñatiko Drakes punk-rock taldeak diskoa, *Si nos dejan, no keremos* izenekoa, aurkeztuko du Ibarrodo liburu-dendan.

22:30ean, kontzertua egingo dute Atzeko Kale auzoan, Show Business taldearekin batera.

18:30ean, Ibarrodo liburu-dendan.

ARAMAIO

### > The Basics taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza

Uztailerako Udalak antolatu zituen musika emanaldiekin jarraituko dute irailean. Lehenengo kontzertua Gasteizko The Basics taldeak egingo du. Nu-jazz, blues eta funk estiloak lantzen dituzte, bereziki.

Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 20:00etan.

## Antzerkia

BERGARA

### > 'Trastelekua' antzezlana egingo du En la Lona taldeak

Bizkaiko eta Kataluniako En la Lona taldeak *Trastelekua* delako kale-antzerkia egingo du. Adin guztietako ikusleendako egokia da.

Garbitzaile bat trastelekuan sartuko da eta bere begirakune bereziarekin abentura munduan murgildu eta traste zaharrekin pertsonaia bitxiak sortuz, liluraz beteriko istorioak sortuko ditu. Abentura honen parte den publikoa ere protagonista izango da.

50 bat minutuko ikuskizuna da.

Gaur, egubakoitza, San Martin plazan, 19:30ean.

## Erakusketak

ESKORATZA

### > Euskal Herriko zeramika labe onenetakoa bisita daiteke

Zubiate labea, Ibarraundin, Euskal Herrian gordetzen den zeramika labe adibide onenetakoa da, eta gaur egunera arte iritsi den mota horretako bakarra Gipuzkoan.

Gaur egun gordetzen den elementu bakarra labea da, eta Aranzadi zientzia elkarteak zaharberritu eta sendotu ostean balioan jarri da.

Aldez aurretik deitu behar da bisita gidatua eskatu nahi bada.

Ordutegia hau da: 09:00-14:00. Ordu horietatik kanpo bisitatu nahi bada ere deitu egin behar da telefonoz.

Argibideak: 943 71 54 53 (Ibarraundi); [www.eskoriatza.net](http://www.eskoriatza.net); [www.turismodebagoiena.com](http://www.turismodebagoiena.com).

BERGARA

### > Carlos García Angulok erakusketa dauka Aroztegin

Carlos García Angulo (Bilbo, 1943) margolariak *Barne-erretatua* izeneko

erakusketa dauka Aroztegin, irailaren 12ra arte.

Ordutegia: astelehenean egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.

ARETXABALETA

### > Margo ikastaroan ibili diren lanak ikusteko aukera

Margo ikastaroan ibili diren herritarrek euren lanak erakutsiko dituzte gaur, egubakoitza, hasi eta irailaren 30era arte, Arkupen.

11:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapatuetan, 11:00-13:00; domeka eta jaiegunetan, itxita.

PROPOSAMENA



LEINTZ GATZAGA

### > Etxafuego, meza eta musikarekin hasiko dira Andramari jaiak, asteburuko gatza eta piperra

Aste bukaeran egongo da zer egina, Gatzagako jai nagusien eskutik. Gaur, egubakoitza, etxafuegoak botako dituzte (18:00) eta Dorletan nobena (19:00) eta kontzertuak (22:00) izango dira; bihar, zapatua, besteak beste, herri afaria (21:30) eta afalosteko animazioa, eta bolo txapelketa (00:00); eta etzi, domeka, VIII. mendiko bizikleta proba (09:00), herri kirolak (13:00) eta Dorletako pilota txapelketako finalak (16:00).

Gaur, egubakoitza, hasten dira jaiak, eta hilaren 11n bukatu.

## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

### MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

#### SIMULAGAILUA HANDITU DUGU

Errusiar mendiaren simulagailua handitu egin dugu lau eserlekuko plataforma berri batekin. Gainera, bidaiarietako batek joystick baten bidez mugimenduak zuzendu ahal izango ditu. Filma berriak ikusteko aukera ere izango duzu bertan.



Informazio gehiago: [www.miramón.org](http://www.miramón.org) edota 943 01 24 78



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78  
[www.miramón.org](http://www.miramón.org)

**Ordutegia**  
Astelehenean itxita.  
Asterartetik ostirala 10:00-19:00.  
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00



# Gurean ere erosten da urrea

**DENDA BERRIA ARRASATEN** Abuztu hasieran ireki zituen atea Arrasateko Zerkaosteta kaleko negozioak

**ERA GUZTIETAKOAK** Denetariko bitxiak onartzen dituzte; hortzetako zorroak ere jaso izan dituzte

**KILATEAK** Urrearen kalitatea edo kilateak neurtu eta haren balioa dirutan ematen dute momentuan

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

Orain arte hiriburuetan ikusi izan ditugu horrelakoak, baina letra beltzez *Urrea erosten da* dioten kartel horiak iritsi dira Deba-goienera ere.

Arrasatear askori, seguruenik, udako oporretatik bueltan atentzioa emango zien Zerkaosteta kalean ireki berri duten dendak. Urrea erosten dute bertan; hau da, urrea edo urrezko bitxiak bertara eramaten dituenari haien balioa dirutan ematen diote momentuan.

**USTE BAINO HASIERA HOBEA**


Abuztuaren 3an ireki zituen atea negozio berriak eta bertan lanean diharduen Maitane Muñoz arrasatearrak esan digu herritarrek ondo erantzun dutela eta aurreiritziak alde batera utzi eta bezero asko izan dituztela lehenengo egunetik: "Oso pozik gaude negozioak izan duen erantzunarekin. Nik uste dut jendeak pozik hartu duela herrian horrelako denda bat edukitzea. Uste baino hobeto hasi gara".

**BITXIAK ETA BITXIKERIAK**

Eraztunak, eskumuturrekoak, lepokoak, erlojuak, apurtutako bitxiak edota eskumuturreko baten itxigailua... denetarik onartzen dute Arrasateko denda berrian. Muñozek azaldu digu, esaterako, ohikoa dela banandutako pertsonen ezkontza-eraztuna saltzea.

Horiek bitxiak, baina bada bitxikeriarik ere: urrezko hortzetako zorroak. "Ez dakit zer gertatu den aste honetan, baina izugarria izan da. Jende asko etorri zait hortzetako zorroekin eta gehienak kalitate onekoak ziren, gainera".

Izan ere, kalitatea da negozio horren hitz gakoa, bertara eramaten den urrearen kalitatea edo kilate kopurua. "Gure bitxiak orokorrean 14 edo 18 kilate izaten dituzte. Dena dela, gehiengoa bezeroek ez dute jakiten zer duten etxean eta batzuetan sorpresa desatseginak ere hartzen dituzte". Gaztelaniazko esaerak ondo dioten moduan, ez da urrea distira egiten duen gutzia.



URREA EROSTEN DA Maitane Muñoz arrasatearrak egiten du lan Arrasaten ireki berri duten dendan.

JULEN IRIONDO

## ahobero

**"Nik uste dut ez dudala akats larririk egin sekula"**

Venus Raj > Miss Filipinak

Filipinetako hautagaia Miss Unibertso lehiaketa irabazteko faboritoetako bat zen, baina akats larri batek koroa eskuetatik kendu zion. Lehiaketako aurkezleak galdetu zion zein den bizitzan egin duen akats larriena, eta horixe izan zen erantzuna: akats larririk ez duela sekula egin. Harrokeriak koro barik utzi zuen. Orain esan dezake akats larri bat behintzat egin duela bere bizitzan.

## iturri onetik

**'Atejaun, el señor de las puertas' liburua kaleratu du Martin Arriaran bergararrak**

Martin Arriaran (1964) bergararrak bere lehen eleberrria kaleratu berri du: *Atejaun, el señor de las puertas*. Gaztelaraz dago idatzia eta polizia eta misterio-nobelaren artean kokatzen den thriller da, baina fantasia kutsua ere badu.

Arriaranek zuzenbide ikasketak egin zituen eta xakea izan da bere betiko zaletasuna. Duela urte batzuk idazteari ekin zion.

## piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

### Udagoien beroa

**T**opikoa da, urtero erabiltzen da arrazoiak egon ala ez, eta hori guztia. Baina aurtan lanerako itzulera giroan entzun eta entzun ari naiz pil-pilaren soinua: 27rako espero den adierazpena eta bere ondorio guztiak, Madrilgo aurrekontuen negoziaketa eta han-hemenkako xake partidak, krisiaren bilakaera eta hiritarren egunerokoa...

Horrelakoetan ondo dator atzera begiratzea. Oso erraz uste izaten dugu mendeko bero handi, euri bortitz ala gertakari nabarmenena bizitzen ari garela, harik eta norbaitek hiru urte lehenagoko datua ateratzen digun arte. Hartu lasai eta kabitu: udagoien hau ere beroa izango da, eta ni pozik espero dugun hori gertatzen bada. Baina gero negua etorriko da, eta hotza eta elurra. Hau da, ohiko gurgila. Animo!

## ai, ene!



**Horrela ikusiko al ditugu erretzaileak laster?**

Jatetxeetan erretzeko debekua dela-eta, aukera bat izan daiteke erretzaile bakoitza horrelako kapsula batean sartzea.

www.quedateaki.com



*Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatzu**

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51